

1. ERANSKINA

LANBIDE-ERREFERENTEA

A) Lanbide-profila.

a) Lanbide profila

Komunikazio Bitartekaritzako teknikari tituluaren lanbide-profila zehazten duten alderdiak hauek dira: gaitasun orokorra, lanbide-gaitasunak eta enplegarritasunerakoak, eta Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalaren barnean titulu horri dagozkion kualifikazioak eta, hala denean, gaitasun-unitateak.

b) Gaitasun orokorra.

Hau da titulu honen gaitasun orokorra: komunikazio-bitartekaritzako esku-hartzeak gauzatzea gorrentzat, gor-itsuentzat eta entzumen-desgaitasuna duten pertsonentzat, baldin eta Espainiako zeinu-hizkuntza erabiltzen badute, edo komunikazio-, hizkuntza- eta hizketa-zailtasunak badituzte; halaber, Espainiako zeinu-hizkuntza edo komunikazio-sistema alternatiboak erabiltzen dituzten gorrak eta gor-itsuak sustatzeko eta gizartea sentsibilizatzeko programak gauzatzea, betiere erabiltzaileen idiosinkrasia errespetaturik.

c) Kualifikazioak eta gaitasun-unitateak.

Komunikazio Bitartekaritzako goi-mailako teknikari titulu biltzen diren kualifikazioak eta gaitasun-unitateak honako hauek dira:

Lanbide-kualifikazio osoak:

SSC449_3 - Gorren komunitatearen sustapena, garapena eta parte-hartzea.

–UC1437_3: Espainiako zeinu-hizkuntza erabiltzea bere eginkizunak betetzeko.

–UC1447_3: Norbanakoak, taldeak eta erakundeak gorren komunitateari buruz aholkatzea eta sentsibilizatzea.

–UC0252_3: Gizarte-integrazioko esku-hartzeak programatzea, antolatzea eta ebaluatzea.

–UC1023_3: Elkarrekin ehuna sortzeko eta garatzeko lanetan esku hartzea, haiek sostengatzea eta laguntzea.

SSC447_3 - Gor-itsuaren eta komunitatearen arteko bitartekaritza. Gaitasun-unitate hauek biltzen ditu:

–UC1437_3: Espainiako zeinu-hizkuntza erabiltzea bere eginkizunak betetzeko.

–UC1438_3: Gor-itsuen komunikazioari laguntzeko sistema eta baliabide espezifikoak eta gidatzaile ikusmendunaren teknikak erabiltzea.

–UC1439_3: Gor-itsuendako hezkuntza- eta prestakuntza-programak garatzen parte hartzea.

–UC1440_3: Gor-itsuen bakartze-egoerak arintzeko esku-hartzeak egitea.

–UC1441_3: Gor-itsuak oinarritzko zereginak egiteko bere ingurunearekin interakzioa egitea erraztea.

Osatu gabeko lanbide-kualifikazioak:

SSC321_3 - Komunitate-dinamizazioa

–UC1026_3: Genero-ikuspegia txertatzea gizarte-arloko esku-hartzeen proiektuetan.

SSC090_3 - Autonomia pertsonal eta sozialeko trebetasunen arloko hezkuntza.

–UC0254_3: Komunikazio-sistema alternatiboak ezartzea, egokitzea eta aplikatzea.

d) Lanbide-gaitasunak eta enplegarritasunerako gaitasunak.

1) Komunikazio-, hizkuntza- eta hizketa-zailtasunak dituzten pertsonak gizartean integratzeko programak prestatzea, eta horietan indarrean dagoen lege-araudia aplikatu eta genero-ikuspegia txertatzea.

- 2) Esku hartzeko programetan aritzeko jarraibideak ezartzea, informazioa biltzeko teknikak eta tresnak aplikaturik.
- 3) Gizabanakoak, kolektiboak eta erakundeak gorrei, gor-itsuei eta entzumen- eta komunikazio-desgaitasuna dutenei buruz aholkatu eta sentsibilizatzea, gizarte-komunikazioko teknikak eta hedabideak erabiliz.
- 4) Espainiako zeinu-hizkuntzan komunikatzea hizkuntza horren erabiltzaileekin, hizkuntza horren elementuak zehaztasunez erabiliz diskurtsoaren koherentzia bermatze aldera.
- 5) Komunikazio-, hizkuntza- eta hizketa-zailtasunak dituzten pertsonen komunikazioa sustatzea, eta sistema alternatiboak eta handigarriak eta ahozko komunikaziorako laguntza-bitartekoak hautatzea.
- 6) Komunikazioa erabiltzaileari egokitzea, haren egoera pertsonalaren eta komunikazio-ingururen aldaketak kontuan harturik.
- 7) Oinarrizko zereginak egiteko gorren, gor-itsuen eta entzumen- eta komunikazio-desgaitasuna duten pertsonen autonomia sustatzea, ingurunearekiko komunikazioa erraztuz.
- 8) Zeinu-hizkuntza erabiltzen duten gorren, gor-itsuen, entzumen-desgaitasuna duten pertsonen eta komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonen eta entzumendunen arteko komunikazioa ahalbidetzea.
- 9) Gor-itsuei lagun egitea, gidatzaile ikusmendunaren teknikak aplikatuz eta komunikazio-era egoerara egokituz.
- 10) Komunikazio-, hizkuntza- eta hizketa-zailtasunak dituzten pertsonendako komunikazioaren, hezkuntzaren, prestakuntzaren eta gizarte-integrazioaren arloko esku-hartze programak antolatu eta ezartzea.
- 11) Gorren, gor-itsuen eta entzumen-desgaitasuna eta komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonen komunikazio-isolamenduko egoerak prebenitu eta arintzeko esku-hartzeak egitea.
- 12) Komunikazio-bitartekaritzako esku-hartzeak egitea, eta informazioa eskuratzeko eta komunikaziorako laguntza tekniken aplikazioa optimizatu eta haien funtzionaltasuna egiaztatzea.
- 13) Komunikazio-, hizkuntza- eta hizketa-zailtasunak dituzten pertsonen aplikaturiko komunikazioko eta gizarte-integrazioko programak ebaluatzea, eta haien egokitasuna eta erabiltzailearekiko egokitzapena baloratzea.
- 14) Ezbehar edo larrialdietan, lehen laguntzen arloan ezarritako protokoloak aplikatzea.
- 15) Erabiltzaileekin eta familiekin, taldekideekin eta gainerako profesionalekin harreman joriatzea, lagunarteko gaitasunak erakutsiz eta ager daitezkeen gatazken aurrean irtenbideak proposatuz.
- 16) Laneko egoera berrietara egokitzea, egunean izanda lanbide-ingurunearen gaineko ezagutza zientifikoak, teknikoak eta teknologikoak, prestakuntza eta baliabideak bizitza osoan ikaskuntzan kudeatuta, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabilia.
- 17) Egoerak, arazoak edo gorabeherak konpontzea, eta horretarako ekimena eta autonomia baliatzea norberaren eskumeneko eremuan, sormena eta berritzeko eta hobetzeko gogoia erakutsiz, bai norberaren lanean, bai taldeko kideenean.
- 18) Lantaldeak arduraz antolatzea eta koordinatzea, lanaren garapena gainbegiratzuz, harreman errazak mantenduz eta lidergoia norberaren gain hartuz, eta taldean sortzen ahal diren gatazkei irtenbideak emanez.
- 19) Parekoekin, nagusiekin, bezeroekin eta bere ardurapeko pertsonen komunikatzea, komunikazio-bide eraginkorrak erabilia, informazioa edo ezagupen egokiak emanda, eta dagokion lan eremuan parte hartzen duten lagunen autonomia eta eskumenak errespetatuta.
- 20) Norberaren eta lantaldearen lana aitzina eramatean ingurune seguruak sortzea, laneko eta ingurumeneko arriskuei aitzintzeko prozedurak gainbegiratuta eta aplikatuta, betiere enpresaren arautegian eta helburuetan xedatutakoaren arabera.

- 21) Produkzioko edo zerbitzuak emateko prozesuetan bildutako lanbide-jardueretan, kalitatea kudeatzeko prozedurak eta irisgarritasun unibertsalari eta «pertsonek guztientzako diseinuari» dagozkionak, gainbegiratzea eta aplikatzea.
- 22) Enpresa txiki baten sorrerarako eta funtzionamendurako oinarritzko kudeaketa egitea eta lanbide-jardueran ekimena izatea, gizarte-erantzukizunez.
- 23) Norberaren lanbide-jardueraren ondoriozko betebeharrak betetzea eta eskubideak erabiltzea, indarrean dagoen legerian ezarritakoarekin bat etorriz; eta bizitza ekonomiko, sozial eta kulturean aktiboki parte hartzea.

B) Produkzio-sistema.

a) Lanbide- eta lan-ingurunea.

Zeinu-hizkuntza erabiltzen duten gor, gor-itsu eta entzuteko desgaitasuna eta/edo komunikatzeko zailtasuna duten pertsonendako zerbitzuen sektorean egiten dute beren jarduera titulu hau lortzen dutenek. Arlo hauek daude zerbitzu horien barnean: laguntza- eta hezkuntza-esparruak, esparru sozialak eta psikosozialak eta oinarritzko zereginak egiten laguntzeko esparruak.

Halaber, komunitatearendako zerbitzuen sektorean, komunitatea dinamizatzeko eremuetan eta kolektibo horien aukera-berdintasuna sustatzen ere egiten dute beren jarduera.

Honako hauek dira eginkizun eta lanpostu garrantzitsuenak:

- Espainiako zeinu-hizkuntza erabiltzen duten eta gorren komunitateko kide izatearen sentimendua adierazten duten gorren kolektiboa garatzeko eragilea.
- Espainiako zeinu-hizkuntza erabiltzen duten gorrei arreta emateko eta sustatzeko teknikaria.
- Espainiako zeinu-hizkuntza erabiltzen duten eta gorren komunitateko kide izatearen sentimendua adierazten duten gorren kolektiboa dinamizatzeko eragilea.
- Espainiako zeinu-hizkuntza erabiltzen duten eta gorren komunitateko kide izatearen sentimendua adierazten duten gorren kolektiboarendako gizarte-bitartekaria.
- Gor-itsuen komunitatea garatzeko agentea.
- Gorren komunitatea dinamizatzeko eragilea.
- Gor-itsuen bitartekaria.
- Gor-itsuen laguntzailea.
- Komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonen bitartekaria.
- Desgaitasuna duten pertsonen hezitzailea.
- Hezkuntza-laguntzaile teknikoa.

b) Nafarroako lurralde-testuingurua.

Profesional honek gorrei, gor-itsuei, entzumen-desgaitasuna duten eta, oro har, komunikazio-, hizkuntza- eta hizketa-zailtasunak dituzten pertsonen zerbitzuak ematen dizkien edo kudeatzen dituen edozein egitura edo erakunde publiko edo pribatutan betetzen ditu bere eginkizunak, bai eta kolektibo horiek dauden beste edozein testuingurutan ere. Diziplinarteko taldeetan integratzen da, maila bereko edo gora-gorako beste profesional batzuekin batera.

Titulu honek ematen duen enplegarritasunaren bermea da gizartean izan den eboluzioa, desgaitasuna edo komunikazio-, hizkuntza- edo hizketako zailtasunak dituzten pertsonen eskubideen aitortzea dagokionez, zeina indarrean dagoen araudian islatu baita:

- Estatukoan: abenduaren 2ko 51/2003 Legea; Desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei buruzko nazioarteko hitzarmena, 2006koa (2008an onetsi zen Espainian); abenduaren 14ko 39/2006 Legea; urriaren 23ko 27/2007 Legea.

–Nafarroako Foru Komunitatekoan: Nafarroan desgaitasuna dutenei arreta emateari eta beren eskubideak bermatzeari buruzko azaroaren 28ko 31/2022 Foru Legea, eta egin diren plangintzak eta azterketak: (2019-2025 Desgaitasun Plana, 2020-2022 aldirako Irisgarritasun Unibertsalaren Plan Eragilearen irisgarritasunaren eta desgaitasunaren arloko inpaktu-txostena eta Nafarroako desgaitasunari buruzko III. Txostena).

Testuinguru horretan, Nafarroan, komunikazio-bitartekaritzaren arloko profesionalak prestatzea funtsezkoa da Komunitatean entzuteko, ikusteko eta komunikatzeko desgaitasuna duten pertsonen eskubideak garatu eta aplikatzeko.

Komunikazio-, hizkuntza- eta hizketa-zailtasunak dituzten pertsonen gizartean parte-hartze handiagoa dutenez, beharrezkoa da figura profesional bat izatea, pertsona horiek bizitzako esparru guztietan integratzeko aukera emateko, besteak beste, bitartekari, zeinu-hizkuntzako interprete eta gidatzaile-interpreteak.

Nafarroan, 31/2022 Foru Legearen eta Nafarroako Foru Komunitateko 2019-2025 Desgaitasun Planaren garapenetik eratorririko lanpostuetan koka liteke Komunikazio Bitartekaritzako goi-mailako teknikariaren laneratzea, bai administrazio publikoaren esparruan, bai desgaitasuna duten pertsonen aukera-berdintasunera eta gizarte-inklusiara bideraturiko hezkuntza-, osasun-, laguntza-, lan-, kultura-, kirol- eta komunitate-zerbitzuak ematen dituzten erakunde eta entitateetan, eta, zehazkiago, esparru horretan, komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonen aukera-berdintasunera eta gizarte-inklusiara bideraturikoetan.

Ondorioz, komunikazio-bitartekaritzako lanbide hau beharrezkoa da eguneroko bizitzako alderdi guztietan (hezkuntza eta prestakuntza; laneratzea; osasun- eta laguntza-arreta; aisia, kultura eta kirola, eta irisgarritasun unibertsalaren printzipiotik abiatutako gizartean parte hartzea), gor-itsuei eta komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonen bizitza normalizatu eta parte-hartzaile baterako irisgarritasun osoa bermatzeko.

c) Prospektiba.

Profesional honek gorrei, gor-itsuei, entzumen-desgaitasuna duten eta, oro har, komunikazio-, hizkuntza- eta hizketa-zailtasunak dituzten pertsonen zerbitzuak ematen dizkien edo kudeatzen dituen edozein egitura edo erakunde publiko edo pribatutan betetzen ditu bere eginkizunak, bai eta kolektibo horiek dauden beste edozein testuingurutan ere. Diziplinarteko taldeetan integratzen da, maila bereko edo goragoko beste profesional batzuekin batera.

Titulu honek ematen duen enplegarritasunaren berme da gizartean izan den eboluzioa, desgaitasuna edo komunizazio, hizkuntzako edo hizketako zailtasunak dituzten pertsonen eskubideen aitopenerari dagokionez, zeina indarrean dagoen araudian islatu baita:

–51/2003 Legea, abenduaren 2koa, Desgaitasunak dituzten pertsonen aukera-berdintasunari, bereizkeriarik ezari eta denendako irisgarritasunari buruzkoa:

–Desgaitasunak dituzten pertsonen eskubideei buruzko nazioarteko hitzarmena. 2006ko abenduaren 13an egin zen, New Yorken (Nazio Batuen Erakundea), eta, Espainian, 2008an onetsi zen; beraz, gure herrialdeko oinarritzeko eskubidea da.

–39/2006 Legea, abenduaren 14koa, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa. Hamabosgarren xedapen gehigarriak ezartzen du irisgarritasuna bermaturik eta oztupoak kendurik eskainiko direla Autonomia eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemaren (AMAS) zerbitzuak.

–27/2007 Legea, urriaren 23koa, Espainiako zeinu-hizkuntzak aitortu eta aho-komunikaziorako laguntza-baliabideak arautzen dituen. Hitzaurrean aitortzen du garrantzitsua dela eskuragarri izatea ingurune fisiko, sozial, ekonomiko eta kulturalerako eta hezkuntza, informazioa eta komunikazioak, talde bakoitzaren behar espezifikoak kontuan harturik, desgaitasuna duten pertsonen giza eskubide eta askatasun guztiak izan ditzaten oso-osoan.

Komunikazio-, hizkuntza- eta hizketa-zailtasunak dituzten pertsonen gizartean parte-hartze handiagoa dutenez, beharrezkoa da figura profesional bat izatea, pertsona horiek bizitzako esparru

guztietan integratzeko aukera emateko, besteak beste, bitartekari, zeinu-hizkuntzako interprete eta gidatzaile-interpreteak.

Espainiako zeinu-hizkuntzako prestakuntzari dagokionez, profesional honek B2 maila (erabiltzaile independentea) izatea galdegiten da lanbidean aritzeko, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren arabera: Ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluazioa.

2. ERANSKINA

CURRICULUMA

A) Heziketa-zikloaren helburu orokorrak.

a) Informazioa interpretatzea; estrategiak eta baliabideak hautatzea komunikazio-, hizkuntza- eta hizketa-zailtasunak dituzten pertsonak gizartean integratzeko programak prestatzeko, eta lege-araudia aplikatu eta genero-ikuspegia txertatzea.

b) Informazioa lortzeko teknikak eta tresnak hautatzea eta horiek erabiltzailearen beharrekina eta ezaugarriekin lotzea, esku-hartze programetan aritzeko jarraibideak ezartze aldera.

c) Gizarte-komunikazioko teknikak eta hedabideak aztertzea, eta ematen dituzten aukerak eta mugak identifikatzea, gizabanakoak, kolektiboak eta erakundeak gorrei, gor-itsuei eta entzumen- eta komunikazio-desgaitasuna dutenei buruz aholkatzea eta sentsibilizatzeko.

d) Zeinu-hizkuntzaren erabiltzaileekin komunikatzeko hizkuntza horretan mezuak prestatu eta igortzea, hizkuntza-elementuak eta -baliabideak hautaturik.

e) Komunikazio-sistema alternatiboak eta handigarriak eta ahozko komunikaziorako laguntza-bi-tartekoak erabiltzea, eta haien aukerak eta mugak aztertzea erabiltzaileen komunikazioaren sustapenean aplikatzeko.

f) Komunikazioa erraztu edo zailtzen duten faktoreak identifikatzea, eta egoera pertsonalaren eta komunikazio-ingurunearen ezaugarriak eta aldaketak aztertzea komunikazioa erabiltzaileari egokitzeko.

g) Jarduteko estrategia eta jarraibideak hautatzea eta erabiltzailearen eguneroko bizitzako egoerak aztertzea, oinarrizko zereginak egitean haren autonomia sustatzeko.

h) Komunikazio-bitartekaritzako teknikak identifikatzea, eta esku-hartzearen testuingurua eta solaskideen ezaugarriak aztertzea, haien arteko komunikazioa ahalbidetzeko.

i) Gidatzaile ikusmendunaren teknikak eta komunikaziorako laguntza-sistemak hautatzea, eta komunikazio-modua egoerara egokitzea gor-itsuei lagun egiteko.

j) Estrategia eta baliabide metodologikoak hautatzea, eta komunikazioan esku hartzeko programa interpretatzea horiek antolatu eta ezartzeko.

k) Komunikazio-isolamenduko egoerak prebenitu eta arintzeko estrategiak eta baliabideak hautatzea, erabiltzailearen egoera pertsonala eta soziala eta komunikazio-testuingurua aztertuz.

l) Baliabide eta laguntza teknikoak aztertzea, eta haien funtzionamendua eta pertsonaren eta testuinguruaren ezaugarriak eta beharretarako egokitzapena aplikatuz komunikazio-bitartekaritzako esku-hartzeak egiteko.

m) Ebaluazio-teknika eta -tresnak hautatzea, eta kalitate-irizpide eta -adierazleak aztertzea komunikazio-, hizkuntza- eta hizketa-zailtasunak dituzten pertsonendako komunikazioko eta gizarte-integrazioko programak ebaluatzen.

n) Ezbeharretan edo larrialdietan erantzuteko protokoloak deskribatzea, lehen sorospenak aplikatzeko teknika egokiak hautatuta.

o) Lanbidearen ingurunean behar diren lagunarteko trebetasunak aztertzea, esku-hartzean inplikatutako pertsonekin harreman joria izateko eta gatazkarik izanez gero haiek konpontzeko erabakigarriak diren faktoreak identifikatuta.

p) Sektoreko bilakaera zientifikoarekin, teknologikoarekin eta antolamendukoarekin eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiekina loturik ikaskuntzan dauden baliabideak eta aukerak aztertzea eta erabiltzea, eguneratzeko gogoari eusteko eta laneko egoera berrietara eta egoera pertsonal berrietara egokitzeko.

q) Sormena eta berrikuntzarako gogoari garatzea, lanaren eta norberaren bizitzaren prozesuetan eta antolamenduan agertzen diren eginkizunei erantzuteko.

r) Erabakiak arrazoituta hartzea eta, horretarako, inplikaturako aldagaiak aztertzea, hainbat esparrutako jakintzak integratzea eta arriskuak eta erabaki okerrak hartzeko aukera onartzea, askotariko egoerei, arazoei edo gorabeherai aurre egiteko eta haiek ebazteko.

s) Gidaritza-, motibazio-, gainbegiratzeko- eta komunikazio-teknikak garatzea talde-laneko testuinguruetan, betiere lantaldeen antolamendua eta koordinazioa errazteko.

t) Komunikazio-estrategiak eta -teknikak aplikatzea eta transmitituko diren edukietara, xedera eta hartzaileen ezaugarrietara egokitzea, komunikazio-prozesuen eraginkortasuna ziurtatzeko.

u) Laneko arriskuen prebentzioko eta ingurumen-babeseko egoerak ebaluatzea, norberaren eta taldearen prebentziorako neurriak proposatuz eta aplikatuz, lan-prozesuetan aplikatzekoa den araudiaren arabera, ingurune seguruak bermatzeko.

v) Irisgarritasun unibertsalari eta «pertsona guztientzako diseinua»ri erantzuteko beharrezkoak diren lanbide-ekintzak identifikatzea eta proposatzea.

w) Kalitate-parametroak identifikatzea eta aplikatzea ikasteko prozesuan egiten diren lanetan eta jardueretan, ebaluazioaren eta kalitatearen kultura balioesteko, eta kalitate-kudeaketako prozedurak gainbegiratu eta hobetzeko gauza izateko.

x) Kultura ekintzailearekin eta enpresaren eta ekimen profesionalaren kulturarekin lotuta dauden prozedurak erabiltzea, enpresa txiki baten oinarritzko kudeaketa egiteko edo lan bati ekiteko.

y) Baldintza sozialak eta lanekoak arautzen dituen lege-esparrua kontuan izanda, gizarteko eragile aktibo gisa dituen eskubideak eta betebeharrak zein diren jakitea, herritar demokratiko gisa parte hartzeko.

B) Lanbide-moduluak.

a) Izena, iraupena eta sekuentziazioa.

Komunikazio Bitartekaritzako goi-mailako teknikariaren lanbide-moduluen zerrenda ematen da jarraian, izena, iraupena eta denbora banaketa zehaztuta.

KODEA	IZENA	ORDUAK, GUZTIRA	ESKOLAK ASTEAN	IKASMAILA
1709	Enplegarritasunerako ibilbide pertsonala I	100	3	1.
1665	Produktzio-sektoreei aplikaturako digitalizazioa (GM)	40	1	1.
1708	Produktzio-sistemari aplikaturako jasagarritasuna	40	1	1.
0179	Laneko ingelesa (GM)	70	2	1.
1111	Komunikazioan, hizkuntzan eta hizketan zailtasunak dituzten pertsonak gizartean integratzeko metodologia	130	4	1.
1112	Sentsibilizazio soziala eta parte-hartzea	70	2	1.
1113	Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea gor-itsuekin	130	4	2.
1114	Gor-itsuekiko komunikazio-bitartekaritzaren testuingurua	130	4	2.
1115	Zeinu-hizkuntza	195	6	1.
1116	Zeinu-hizkuntzaren erabilera-esparruak	165	5	2.
1117	Komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonekin esku hartzea	165	5	1.
1118	Esku-hartze komunikatiboko teknikak	195	6	2.
0343	Komunikazio-sistema handigarriak eta alternatiboak	130	4	1.
0017	Trebetasun sozialak	130	4	2.
0020	Lehen sorospenak	70	2	1.
1119	Komunikazio-bitartekaritzako modulu arteko proiektua	70	2	2.
1710	Enplegarritasunerako ibilbide pertsonala II	70	2	2.
	Aukerakoa	100	3	2.

- b) Lanbide-moduluen garapena.

Lanbide-modulua: Enplegarritasunerako ibilbide pertsonala I.

Kodea: 1709.

Baliokidetasuna ECTS kreditutan (goi-mailako heziketa-zikloetan): 5.

Iraupena: 100 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1. Produkzio-sektorearen ezaugarriak bereizten ditu, eta lanpostuak definitzen ditu, tituluari adierazitako lanbide-gaitasunekin erlazionatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Lanbide-sektorean dauden enplegurako eta laneratzeko aukera nagusiak aztertu ditu; enplegu-aukerak identifikatu ditu, eta lanbide-profilerrako gaur egun dituzten eskakizunak aztertu ditu.
- b) Lan-merkatuak galdegiten dituen sektore pribatuarekin loturiko betekizunak eta funtzio publikoan lan egiteko betekizunak alderatu ditu.
- c) Tituluarekin loturiko lanbide-jarduerarako gaur egun galdegiten diren jarrerari eta gaitasunari buruz hausnartu du, bai eta sektorerako garrantzitsuenak diren gaitasun pertsonal eta sozialei buruz ere, eta gure hurbileko garapen-eremua identifikatu du.

2. Laneko Arriskuen Prebentzioari oinarritutako teknikariaren titulua lortzeko beharrezkoak diren konpetentziak eskuratzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Prebentzioaren kulturak enpresako edo erakunde parekatuko eremu eta jarduerari guztietan duen garrantzia baloratu da; lan-baldintzak eta langilearen osasun-egoera lotu dira; eta jardueraren arrisku-faktoreak eta haien ondoriozko kalteak identifikatu eta sailkatu dira, bereziki tituluarekin loturiko lanbide-sektoreko lan-inguruneetan ohikoenak diren arrisku-egoerak.
- b) Tituluaren lanbide-profilari lotutako kalte profesional motak sailkatu eta deskribatu dira, bereziki lan-istripuei eta lanbide-gaixotasunei dagokienez.
- c) Enpresako edo erakunde parekatuko arriskuen ebaluazioa zehaztu da, eta kalteak jatorrian sailhestea eta haien ondorioak minimizatzeko aplikatu beharreko prebentzio- eta babes-teknikak zehaztu dira.
- d) Larrialdietan jarduteko protokoloak aztertu dira.
- e) Laneko arriskuen prebentzioaren arloko eskubide eta betebeharrak nagusiak zein diren zehaztu da.
- f) Enpresan edo erakunde parekatuan prebentzioa kudeatzeko moduak sailkatu dira, laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudian ezarritako irizpideen arabera, eta, horrez gain, enpresan edo erakunde parekatuan arriskuen prebentzioaren arloan langileak ordezkatzeko moduak zehaztu dira.
- g) Aintzat hartu da garrantzitsua dela enpresan edo erakunde parekatuan prebentzio plana izatea, larrialdietan egin beharreko jarduketan sekuentzia barne duena, eta, horrez gain, planaren edukiri buruz hausnartu da.
- h) Langilearen osasuna zaintzeko betebeharrak eta baldintzak zehaztu dira, bai eta prebentzio neurri gisa duten garrantzia ere.
- i) Lehen sorospenetarako oinarritutako teknikak identifikatu dira, istripuaren lekuan aplikatu behar direnak kalte-mota desberdinei aurre egiteko. Halaber, botika-kutxaren osagaiak eta erabilera identifikatu dira.

3. Besteren konturako langile gisa dituen lan baldintzak aztertzen ditu, eta identifikatzen ditu lan-araudian eta, bereziki, sektoreko hitzarmen kolektiboan lan-harremanean izaten ahal diren aldaketa eta gorabehera garrantzitsu nagusietan.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Lan-harremananaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak aztertu ditu, bai eta tituluarekin loturiko lanbide-sektoreari aplikatzekoa zaion hitzarmen kolektiboan itunduriko lan-baldintzak ere.
- b) Kontratazio-modalitate nagusiak alderatu ditu, eta dauden ereduak aurkitu ditu iturri ofizialetan.
- c) Lan-antolamenduaren ingurune berrien ezaugarriak eta dakartzaten eskubideak identifikatu ditu.
- d) Soldataren ordainagiriak dituen osagaiak identifikatu ditu.
- e) Lan-harremanean gertatzen ahal diren gorabeheren aurrean dauden lan-baliabideak identifikatu ditu.
- f) Gizarte Segurantzaren eginkizuna baloratu da, herritarren bizi-kalitatea hobetzeko zutabe nagusia den aldetik.
- g) Laneko harremanak eten eta azkentzearen ondoriozko prestazio nagusiak aztertu ditu.

4. Bere ahalmen profesionala eta autoorientazio-prozesuan gidatzeko dituen interesak aztertzen eta ebaluatzen ditu, eta laneratzeko bide-orri bat egiten du, konpetentzia, interes eta abilezia pertsonalen azterketan oinarrituta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Norberaren interesak, motibazioak, trebetasunak eta abileziak ebaluatu dira, autoezagutza-prozesu baten esparruan.
- b) Tituluaren profilarekin loturiko lanbide-jardueraren hurbileko ezaugarri eta gaitasun pertsonalak aztertu ditu.
- c) Enplegurako balioa duten gaitasun pertsonalak eta sozialak zehaztu dira.
- d) Lanbide-proiektu baten esparruko lehentasun profesional, interes eta jomugak adierazi ditu.
- e) Lana bilatzeko prozesuan autoestimua kontzeptua aintzat hartu da.
- f) Identifikatu du zer indar, ahulezia, mehatxu eta aukera dituen laneratzeko.
- g) Laneratzeko etorkizuneko itxaropenak identifikatu dira, eta norberaren gaitasunak, interesak eta abileziak aztertu dira.
- h) Balio profesionalizatzailea duten bizi-ibilbideko mugarri garrantzitsuak baloratu ditu.
- i) Lanbide-profilari loturiko prestakuntza-ibilbide profesionalak identifikatu ditu.
- j) Helburu profesionalak formulatu ditu, eta enplegarritasuna eta laneratzeko baldintzak hobetzeko helburu pertsonal eta profesionalak zehaztu ditu.
- k) Hobetzeko arloak garatzeko eta enplegurako balioa duten indargune pertsonalak indartzeko ekintza-plan bat egin du.

5. Ikaskuntza autonomorako estrategiak aplikatzen ditu, eta, horretarako, haren balio profesionalizatzailea aitortzen du, bere ikaskuntza-ingurunea diseinatzeko eta optimizatzen du, teknologia digitalak ikaskuntza autonomoko tresna gisa erabiliz, eta koherentea da bere nortasun digitalarekin eta bere garapen indibidualeko planean planteatutako helburu profesionalarekin.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Garapen profesionalerako banakako erantzukizunaz jabetu da, eta etengabeko ikaskuntzako jarrera baloratu du gaitasun propioak eta berriak garatzeko.

- b) Enplegarritasuna lan-ingurunera egokitzeko gaitasun gisa identifikatu du.
- c) Tresnak, informazio-iturriak, konexioak eta jarduerak ezagutu eta erabili ditu enplegarritasunerako ikaskuntza-ingurune pertsonal bat eratzeke.
- d) Gaitasun digitala erabili du, enplegarritasunerako ikaskuntza-ingurune pertsonal bat konfiguratzeko.
- e) Identitate digitalaren kontzeptua eta enplegarritasunean duen eragina aztertu ditu.
- f) Ikaskuntza-ingurunearen diseinua justifikatu du horrek enplegarritasuna hobetzen duela oinarri harturik.
- g) Banakako garapen-plana egin du, enplegarritasuna hobetzeko tresna gisa.
- h) Ikaskuntza autonomoko tresnak aplikatu ditu garapen pertsonalerako eta profesionalerako.
- i) Banakako garapen-plana lortzeko aukera ematen duen ikaskuntza-ingurunea diseinatu du.

Lanbide-modulua: Produkzio-sistemari aplikaturiko digitalizazioa (GM).

Kodea: 1665.

Baliokidetasuna ECTS kreditutan: 3.

Iraupena: 40 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1. Digitalizazioaren kontzeptua eta produkzio-sektoreetan duen eragina aztertzen ditu, enpresaren jardura kontuan hartuta eta IT (Information Technology: informazioaren teknologia) eta OT (Operation Technology: eragiketa-teknologia) ingurune bereizgarriak identifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Deskribatu du zertan datzan digitalizazioaren kontzeptua.
- b) Teknologia digitalaren ezarpena eta enpresen antolamendua lotu ditu.
- c) IT- eta OT-inguruneen arteko desberdintasunak eta antzekotasunak zehaztu ditu.
- d) IT-inguruneak izaten ahal diren enpresen ohiko sailak identifikatu ditu.
- e) Instalazioko eta negozioko digitalizatzeko-teknologia tipikoak hautatu ditu.
- f) IT- eta OT-inguruneen arteko konexioaren garrantzia aztertu du.
- g) Industria-enpresa bat muturretik muturrera digitalizatzearen abantailak aztertu ditu.

2. Enpresak ingurune digitaletara egokitzeko/eraldatzeko beharrezkoak diren teknologia erraztaile digitalak ezaugarritzen ditu, eta haien ezaugarriak eta aplikazioak deskribatzen.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Teknologia erraztaile digital nagusiak identifikatu ditu.
- b) Teknologia erraztaile digitalak produktuen eta zerbitzuen garapenarekin lotu ditu.
- c) Teknologia erraztaile digitalen garrantzia ekonomia jasangarri eta efizientearekin lotu du.
- d) Teknologia erraztaile digitalen sortu dituzten merkatu berriak identifikatu ditu.
- e) Teknologia erraztaile digitalen negozio-zatien zein instalazio-zatien inplikazioa aztertu du.
- f) IT- eta OT-inguruneekin loturik teknologia erraztaileak ezartzearen ondorioz sorturiko hobekuntzak identifikatu ditu.
- g) Teknologia haien ezaugarriak eta aplikazio-eremuekin lotzen dituen txostena egin du.

3. Cloud/hodeian oinarritutako sistemak eta haiek sistema digitalen garapenean duten eragina identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Hodeiaren (cloud) mailak identifikatu ditu.
- b) Hodeiaren eginkizun nagusiak identifikatu ditu (datuak prozesatzea, informazioa trukatzea eta aplikazioak exekutatzea, besteak beste).
- c) Edge computingaren kontzeptua eta hodeiarekin duen lotura deskribatu ditu.
- d) Fog eta mist kontzeptuak eta haiek multzoan dituzten aplikazio-eremuak definitu ditu.
- e) Sistema konektatuetan hodeia erabiltzeak dakartzan abantailak identifikatu ditu.

4. Titulua kokatzen den sektorearen inguruneetan AAK (adimen artifiziala) zer aplikazio dituen identifikatzen du, eta ezarpenak inplizituki dakartzan hobekuntzak deskribatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) AAK prozesuen automatizazioan eta optimizazioan duen garrantzia identifikatu du.

- b) AA datu-bilketa masiboarekin (Big Data) lotu du, eta datuen tratamendua (analisia) enpresen errentagarritasunarekin.
- c) AAren oraingo eta etorkizuneko garrantzia baloratu du.
- d) AAK ezarpen handiena dituen sektoreak identifikatu ditu.
- e) AArako programazio-lengoaiak identifikatu ditu.
- f) Deskribatu du nola eragiten duen AAK tituluaren sektorean.

5. Datuen garrantzia ebaluatzen du, baita datu horien babesa ere ekonomia digital globalizatu batean, eta, horretarako, segurtasun-eta zibersegurtasun-sistemak definitzen ditu, bai ekipamendu/sistemei dagokienez, bai orokorrean.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Datuaren eta informazioaren arteko desberdintasuna ezarri du.
- b) Produktuaren bizi-zikloa deskribatu du.
- c) Big Dataren, datuen analisiaren, ikasketa automatikoaren/sakonaren (machine/deep learning) eta adimen artifizialaren arteko lotura identifikatu du.
- d) Big Data definitzen duten ezaugarriak deskribatu ditu.
- e) Datu-zientziaren etapa tipikoak eta prozesuan elkarrekin duten lotura deskribatu ditu.
- f) Hodeian datuak biltegitatzeko prozedurak deskribatu ditu.
- g) Hodeiko konputazioaren (cloud computing) garrantzia deskribatu du.
- h) Datu-zientziak enpresetan dituen helburu nagusiak identifikatu ditu.
- i) Datuen aldetik segurtasunak eta segurtasunaren erregulazioak duten garrantzia baloratu du.

6. Tituluarekin lotutako sektore bateko enpresa baten eraldaketa digitaleko proiektu bat garatzen du, enpresaren helburuen arabera gauzatu beharreko aldaketak kontuan hartuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Enpresaren helburu estrategikoak identifikatu ditu.
- b) Produkzioko/negozioko eta komunikazioko arloak identifikatu eta lerrokatu ditu.
- c) Digitalizatzen ahal diren arloak identifikatu ditu.
- d) Aztertu du eremu digitalizatuak nola uztartzen diren elkarrekin eta digitalizaturik ez daudenekin.
- e) Enpresaren oraingo eta etorkizuneko beharrak kontuan hartu ditu.
- f) Arlo bakoitza teknologien ezarpenarekin lotu du.
- g) Arlo bakoitzean izan litezkeen segurtasun-arrakalak aztertu ditu.
- h) Datuen tratamendua eta analisia definitu ditu.
- i) Besteak beste, datuen, aplikazioen eta haiei eusten dieten plataformen arteko integrazioa kontuan hartu du.
- j) Estrategiaren arabera eginiko aldaketak dokumentatu ditu.
- k) Giza baliabideen egokitasuna kontuan hartu du.

Lanbide-modulua: Produkzio-sistemari aplikatutako jasangarritasuna.

Kodea: 1708.

Baliokidetasuna ECTS kreditutan (goi-mailako heziketa-zikloetan): 3.

Iraupena: 40 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1. Jasangarritasunari buruzko ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-alderdiak (IGG) identifikatzen ditu, garapen jasangarriaren kontzeptua eta hori lortzen laguntzen duten nazioarteko esparruak kontuan hartuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jasangarritasunaren kontzeptua deskribatu du, eta garapen jasangarriarekin loturiko nazioarteko esparruak zehaztu ditu.
- b) Enpresa-antolakundearen garapen jasangarrian eragina duten ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-gaiak identifikatu ditu.
- c) Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) 2030 Agenda lortzeko duten garrantziarekin lotu ditu.
- d) Erakundearen interes-taldeentzat garrantzitsuenak diren ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-alderdiak (IGG) identifikatzearen garrantzia aztertu du, eta erakundeari berari dakarzkioten arriskuekin eta aukerekin lotu ditu.
- e) Jasangarritasun-jarduna ebaluatzeko metriken estandar nagusiak identifikatu ditu, baita indarrean dagoen legeriak eta hura garatzeko etorkizuneko erregulazioek ezartzen duten kontu-ematean duten zeregina ere.
- f) Inbertsio sozialki arduratsua eta analistek, inbertitzaileek, agentziek eta jasangarritasun-indizek jasangarritasunaren sustapenean duten zeregina deskribatu ditu.

2. Gizarteak aurrean dituen ingurumen- eta gizarte-erronken ezaugarriak zehazten ditu, eta, horretarako, pertsonengan eta produkzio-sektoreetan dituen inpaktuak deskribatu eta haiek minimizatzeko ekintzak proposatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ingurumen- eta gizarte-erronka nagusiak identifikatu ditu.
- b) Ingurumen- eta gizarte-erronkak jarduera ekonomikoa gauzatzearekin lotu ditu.
- c) Ingurumen- eta gizarte-inpaktuek pertsonengan eta produkzio-sektoreetan duten eragina aztertu du.
- d) Ingurumen- eta gizarte-inpaktuak minimizatzerako bideraturiko neurri eta ekintzak identifikatu ditu.
- e) Ingurumen- eta gizarte-erronkei arrakastaz aurre egiteko aliantzak ezartzearen eta zeharka eta koordinaturik lan egitearen garrantzia aztertu du.

3. Jardun profesionalean eta pertsonalean jasangarritasun-irizpideak aplikatzea zehazten du, horretarako beharrezko diren elementuak identifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Egiten duen lanbide-jarduerarako garrantzitsuenak diren GJHak identifikatu ditu.
- b) GJHek dakartzaten arrisku eta aukerak aztertu ditu.
- c) Jarduera profesionaletik eta ingurune pertsonaletik ingurumen- eta gizarte-erronketako zenbait erantzuteko behar diren ekintzak identifikatu ditu.

4. Produktu eta zerbitzu arduratsuak proposatzen ditu, ekonomia zirkularraren printzipioak kontuan hartuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Egungo produkzio- eta kontsumo-ereduaren ezaugarriak zehaztu ditu.
- b) Ekonomia berde eta zirkularraren printzipioak identifikatu ditu.
- c) Produkzio-eredu klasikoarekin alderatu ditu ekonomia berde eta zirkularraren onurak.
- d) Ekodiseinuaren printzipioak aplikatu ditu.
- e) Produktuaren bizi-zikloa aztertu du.
- f) Produkzio-prozesuak eta aplikatu diren jasangarritasun-irizpideak identifikatu ditu.

5. Jarduera jasangarriak egiten ditu, jarduera horiek ingurumenean duten eragina minimizatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Egungo produkzio- eta kontsumo-eredua ezaugarritu du.
- b) Ekonomia berde eta zirkularraren printzipioak identifikatu ditu.
- c) Ekonomia berde eta zirkularraren onurak alderatu ditu produkzio-eredu klasikoarekin.
- d) Jarduera pertsonalen eta profesionalen inpaktua ebaluatu du.
- e) Ekodiseinuaren printzipioak aplikatu ditu.
- f) Estrategia jasangarriak aplikatu ditu.
- g) Produktuaren bizi-zikloa aztertu du.
- h) Produkzio-prozesuak eta aplikatu diren jasangarritasun-irizpideak identifikatu ditu.
- i) Ingurumen-araudia aplikatu du.

6. Sektoreko enpresa baten jasangarritasun-plana aztertzen du; horretarako, hain zuzen, enpresaren interes-taldeak eta IGG alderdi materialak identifikatzen ditu, eta horiek kudeatzeko eta neurtzeko ekintzak justifikatzen.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Enpresaren interes-talde nagusiak identifikatu ditu.
- b) IGG-alderdi materialak, interes-taldeen itxaropenak eta enpresa-helburuei dagokienez IGG-alderdiek duten garrantzia aztertu ditu.
- c) Identifikaturiko IGG-alderdi nagusiek planteatzen dituzten inpaktu negatiboak minimizatzeko eta aukerak aprobetxatzeko ekintzak definitu ditu.
- d) Enpresaren jarduna gehien erabiltzen diren jasangarritasun-estandarren arabera ebaluatzeko metrikak zehaztu ditu.
- e) Jasangarritasun-txosten bat egin du, proposaturiko plana eta adierazleak adierazirik.

Lanbide-modulua: Laneko ingelesa (GM).

Kodea: 0179.

Baliokidetasuna ECTS kreditutan: 5.

Iraupena: 70 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1. Edozein komunikabidek hizkuntza estandarrean emandako ahozko diskurtsoetan, ulertzen du lanbideari, ikasketei eta eguneroko gaiei buruzko informazioa, eta zehaztasunez interpretatzen du mezuaren edukia.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Bizitza sozialarekin, profesionalarekin edo akademikoarekin loturiko hizkuntza estandarreko mezuen ideia nagusia identifikatu du.
- b) Zuzeneko mezuen zein edozein euskarritan hizkuntza estandarrean igorritako mezuen helburua ezagutu du.
- c) Bizitza sozial, profesional edo akademikoarekin loturik hizkuntza estandarrean dauden ahozko zenbait diskurtsotako informazioa atera du.
- d) Hiztunaren ikuspegia eta jarrera identifikatu ditu.
- e) Ahozko mezuen argudio-haria identifikatu du, eta mezu horietan agertzen diren rolak zehaztu ditu.
- f) Kutsadura akustikoa duten giroetan hizkuntza estandarrean dauden mezuak behar bezala ulertu ditu.
- g) Hitzaldi, solasaldi eta txostenetako ideia nagusiak atera ditu, baita hizkuntza mailan konplexuak diren aurkezpen akademiko eta profesionaleko beste modu batzuetako ideia nagusiak ere.
- h) Mezu bat bere elementu guzti-guztiak ulertu gabe orokorrean konprenitzea zeinen garrantzi-tsua den ohartu da.

2. Lanbide- eta akademia-arloko nahiz egunerokoarekin lotutako idatzizko mezuak ulertzen ditu, nahiko zailak, eta haien edukia ulertuz aztertzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Bere esparru sozial, profesional edo akademikoko berariazko testuen ideia nagusia identifikatu du.
- b) Hizkuntza estandarrean edozein euskarritan idatzirik dauden lanbide-jarduerarekin loturiko zenbait testuren helburua ezagutu du.
- c) Lanbideari buruzko mota anitzetako eta zenbait euskarritako testuetatik informazio jakin bat atera du.
- d) Mezu bat bere elementu guzti-guztiak ulertu gabe orokorrean konprenitzea zeinen garrantzi-tsua den ohartu da.
- e) Sektorearekin zerikusia duten testuak irakurri eta ulertu ditu, modu autonomoan eta gaitasun-mailari dagokion irakurketa-abiadurarekin eta -estiloarekin.
- f) Norberaren espezialitateko gaien gaineko gutunak interpretatu dira eta erraz atzeman zaie funtsezko esanahia.
- g) Testu luze eta aski konplexuak interpretatu ditu, bere espezialitatearekin loturik egon zein ez, behin edo gehiagotan irakuririk.
- h) Lanbideko gai-sorta zabal baten inguruko albiste, artikulua eta txostenen edukia eta garrantzia azkar identifikatu ditu.

- i) Euskarri digitalen bidez jasoriko zenbait zailtasun-mailatako jarraibideak eta mezu teknikoak interpretatu ditu.
- j) Testu aski konplexuen itzulpenak egin ditu, laguntza-materiala erabiliz, behar izanez gero.

3. Ahozko mezu argiak eta ongi egituratuak sortzen ditu, egoeraren edukia aztertuz eta solaskidearen hizkuntza erregistroari egokituz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Sektoreko eta eguneroko bizitzako mezu orokorrak igorri ditu, interakzio-estrategia eta loturak erabiliz.
- b) Berriarazko informazio xehatua arin trukatu du, gaitasun-mailarekin bat datorren konplexutasuneko egiturak erabiliz.
- c) Mezua igortzeko erregistro egokiak hautatu eta aplikatu ditu, baita herrialdearen berezko gizarte-harremanetako protokoloak eta arauak ere.
- d) Lanbide-esparruko gaiei buruzko aurkezpen ongi egituratuak egin ditu, ezarritako protokoloak erabiliz.
- e) Lanbidearen terminologia behar bezala erabili du.
- f) Bere eskumeneko lan prozesua deskribatu eta sekuentziatu du ahoz.
- g) Diskurtsoa edo diskurtsoaren zati bat berriro egiteko eskatu da beharrezkotzat jo izan denean.
- h) Naturaltasunez komunikatu da, inguruabarren arabera formaltasun-mailarekin.
- i) Askotariko gai orokor, akademiko, profesional edo aisiaren inguruko mintzatu da hitz-etorri errazez, zehaztasunez eta eraginkortasunez, ideien arteko lotura argi markatuz.
- j) Ikuspuntuak argi adierazi eta defendatu dira, azalpenak eta argudio egokiak emanez.
- k) Bizitza sozioprofesionalari buruzko galderei erantzun die, lan-elkarriketetan erabiltzen ohi direnak barne.

4. Sektoreko, ikasketetako edo eguneroko gaiei buruzko dokumentuak eta txostenak idazten ditu, eta hizkuntza baliabideak dokumentuaren helburuarekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Testu argi eta zehatzak idatzi ditu bere lanbidearekin zerikusia duten gaiez, hainbat iturritatik jasotako informazio eta argudioak laburbilduz eta ebaluatuz.
- b) Bere lanbide-esparruko berriarazko dokumentazioa bete du, hiztegi espezifikoak eta herrialdearen berezko gizarte-harremanetako protokoloak eta arauak erabiliz.
- c) Informazioa zuzentasunez, doitasunez, kohesioz eta koherentziaz antolatu du, eta informazio orokorra edo zehatza eskatu eta/edo eman du.
- d) Ikusizko laguntzen eta hizkuntza-gakoen bidez bete ditu testuak.
- e) Txostenak idatzi ditu, alderdi esanguratsuak nabarmenduz eta euskarritzat erabil daitezkeen xehetasun adierazgarriak eskainiz.
- f) Gutun formalak eta informalak idatzi ditu, eta, horretarako, ezarritako kortesiazko formulak eta haiek lantzeko berriarazko hiztegia erabiliz.
- g) Zenbait motatako dokumentu idatziak laburbildu ditu, bere hizkuntza-baliabideak erabiliz.
- h) Eginen den dokumentuaren beraren kortesia-formulak erabili dira.

5. Jarrera eta portaera profesionalak aplikatzen ditu komunikazio egoeretan; horretarako, atzerriko hizkuntzaren lurraldean ohikoak diren harremanak deskribatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Atzerriko hizkuntza erabiltzen duen erkidegoaren ohitura eta erabileren alderdirik garrantzitsuenak zehaztu ditu.

- b) Herrialdeko gizarte-harremanen protokoloak eta arauak deskribatu ditu.
- c) Atzerriko hizkuntza erabiltzen duen erkidegoaren balio eta sinetsmenak identifikatu ditu.
- d) Sektoreari dagozkion gizarte- eta lanbide-alderdiak identifikatu ditu, edozein testu-motatan.
- e) Atzerriko hizkuntzaren lurraldeko gizarte-harremanen protokolo eta arauak aplikatu ditu.
- f) Jatorriko eskualdeko hizkuntza-markatzaileak ezagutu ditu.

Lanbide-modulua: Komunikazioan, hizkuntzan eta hizketan zailtasunak dituzten pertsonak gizartean integratzeko metodologia

Kodea: 1111.

Baliokidetasuna ECTS kreditutan: 5.

Iraupena: 130 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1. Komunikazio-bitartekaritzaren testuinguruaren ezaugarriak zehazten ditu, eta gizarteratzeko eta gizarte-bazterketako prozesuak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gizarte-integrazioaren esparruko esku hartzeko sektoreak identifikatu ditu.
- b) Gizakiaren garapen ebolutiboaren oinarritzko prozesuak azaldu ditu.
- c) Pertsonen sozializazioan eragina duten prozesu eta faktoreak deskribatu ditu.
- d) Gizarte-integrazio prozesuetan aplikatzen ahal diren psikologiako eta soziologiako oinarritzko kontzeptu eta prozesuak azaldu ditu.
- e) Pertsonen eta kolektiboen gizarte-integratioari eta -bazterketari loturiko oinarritzko prozesuak deskribatu ditu.
- f) Gizarte-bazterketaren faktoreak eta adierazleak identifikatu ditu.
- g) Aurreiritzia eta diskriminazioa gizarte-bazterketaren kausa gisa baloratu ditu.
- h) Kultura-faktoreek marjinazioa eta desgaitasuna eratzean duten eragina aztertu du.

2. Esku-hartze sozialaren esparrua interpretatzen du, eta haren egitura juridikoa eta administratiboa esku hartzeko zerbitzu eta programekin lotzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gizarte-babeseko eta mendekotasunari arreta emateko sistemen aurrekariak eta bilakaera azaldu ditu.
- b) Gizarte-babeseko zenbait eredu alderatu ditu.
- c) Europar Batasunaren esparruan gizarte-babesak duen egoera aztertu du.
- d) Esku-hartze sozialaren egungo administrazio-, lege- eta eskumen-esparrua deskribatu du.
- e) Gizarte-babeseko sistemen garrantzia argudiatu da, gizarte-integratio eta egonkortasun elementu diren aldetik.
- f) Berdintasun-prozesuetan diskriminazio positiboak duen garrantzia nabarmendu du.
- g) Komunikazio Bitartekaritzako goi-mailako teknikariak esku-hartze sozialaren esparruan duen zeregina deskribatu du.
- h) Kolektibo bakoitzak eskuratu ditzakeen prestazio eta laguntza nagusiak zerrendatu ditu.
- i) Aztertu du nolako garrantzia duten diziplinarteko lanak eta espazio seguruak sortzeak erabiltzaileekin esku hartzearen esparruan zein lantaldeetan, gizarte-esparruko profesionalen kode deontologikoan oinarriturik.

3. Informazioa lortzeko metodoak, teknikak eta tresnak zehazten ditu, eta haien ezaugarriak eta aplikazio-esparrua interpretatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Informazioa lortzeko metodo, teknika eta tresna nagusiak identifikatu ditu.

- b) Tresna eta baliabide desberdinak aplikatzeko baldintzak zehaztu ditu.
- c) Teknika eta tresna desberdinen aplikazioak, aukerak eta mugak identifikatu ditu.
- d) Xedearekin koherenteak diren tresnak prestatu ditu.
- e) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabili ditu informazioa lortzeko.
- f) Egoeraren arabera analisi teknika egokiak hautatu ditu.
- g) Esku-hartzea arrakastatsua izateko errealitatearen analisiak duen papera justifikatu du.
- h) Informazio-bilketaren eta haren tratamenduaren alderdi etikoak baloratu ditu.

4. Esku-hartze sozialeko proiektua osatzen duten elementuak zehazten ditu eta plangintza-eredu desberdinekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Esku-hartze sozialeko plangintzaren mailak identifikatu ditu.
- b) Plangintza-prozesuaren faseak deskribatu ditu.
- c) Plangintzaren oinarritzko elementuak identifikatu ditu.
- d) Esku-hartze sozialean aplikatzekoak diren metodoak, teknikak eta tresnak alderatu ditu.
- e) Programazio-eredua hautatzeko irizpideak identifikatu ditu.
- f) Esku-hartze sozialeko proiektuak modu egokian oinarritzeko beharra justifikatu du.
- g) Programazioaren elementuen arteko koherentziaren beharra baloratu du.

5. Esku-hartze sozialeko proiektuak prestatzean genero-ikuspegia erantsi du, eta erabilitako estrategiak eta irizpideak indarrean dagoen teoria- eta lege-esparruarekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Errealitatea generoaren ikuspegitik aztertzeak duen garrantzia argudiatu du.
- b) Esku-hartze sozialeko proiektuak prestatzean generoaren ikuspegia txertatzeko beharra argudiatu du.
- c) Aukera-berdintasuna sustatzen duen lege-esparrua interpretatu du.
- d) Esku-hartzearen ingurunean dauden berdintasuneko instituzioen eta organismoen informazioa eta baliabideak interpretatu ditu.
- e) Proiektuetan generoaren ikuspegia txertatzeko irizpideak identifikatu ditu.
- f) Hizkuntza ez-sexistaren erabilerari buruzko nazioarteko protokoloak aztertu ditu.
- g) Esku-hartze sozialeko proiektuen plangintzan hizkuntza ez-sexista erabili du.

6. Esku-hartzearen kontrol- eta jarraipen-jarduerak egiten ditu, eta bere jarduera eta diziplinarteko taldearen jarduera atzeraelikatze teknikak eta tresnak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ebaluazio-ereduak, -teknikak eta -tresnak deskribatu ditu.
- b) Ebaluazioaren funtzioak eta printzipio orokorrak azaldu ditu.
- c) Ebaluazioaren faseak deskribatu ditu.
- d) Ebaluazio-teknikak, -adierazleak, -irizpideak eta -tresnak zehaztu ditu.
- e) Lorturiko datuak interpretatu ditu.
- f) Programen funtzionamendua optimizatzeko eta haien kalitatea bermatzeko ebaluazioa egin beharra argudiatu du.

- g) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabili ditu ebaluazio-txostenak eta memoriak lantzeko eta aurkezteko.

Edukiak.

Gizarteratzearen eta laneratzearen testuinguruaren ezaugarriak zehaztea:

- Gizarte-integrazioaren esparruko esku hartzeko sektoreak identifikatzea.
- Gizakiaren garapen ebolutiboaren oinarritzko prozesuak aztertzea. Motibazioa, emozioa eta adimen sozioemozionala. Oinarritzko premiak.
- Sozializazioa eta bizi-zikloa.
- Bizitzan zehar trantsizio-prozesuek pertsonen gizarte-integrazioan edo gizarte-bazterketan duten eragina.
- Gizarte-integratioko prozesuetan aplikaturiko psikologia eta soziologia.
- Gizarte-integratioko eta -marjinazioko prozesuei buruzko kontzeptuak eta teoriak: Gizarte-bazterketan eragina duten prozesu eta faktoreak. Nortasun pertsonala eta taldetasuna.
- Marjinazioaren eta desgaitasunaren konfigurazio kulturala.

Esku-hartze sozialaren esparruaren interpretazioa:

- Esku-hartze soziala. Gizarte-babeseko eta mendekotasunaren arretarako sistemen jatorria, bilakaera historikoa eta egungo egoera. Gizarte-babesa eskubide gisa baloratzea.
- Esku-hartzearen Espainiako eta inguruko herrialdeetako ereduen azterketa.
- Esku-hartze sozialaren administrazio-, lege- eta eskumen-esparrua.
- Komunikazio Bitartekaritzako goi-mailako teknikariaren lanbide-profila: Komunikazio Bitartekaritzako goi-mailako teknikariaren lanbide-esparruak. Eskumenak eta eginkizunak. Talde profesionalak. Diziplinartekotasuna gizarte-integrazioan.
- Administrazioek zenbait kolektibori ematen dizkieten prestazio eta laguntzak.

Informazioa lortzeko metodo, teknika eta tresnak zehaztea:

- Gizarte-ikerketako metodoak eta teknikak.
- Informazio-iturri eta informazioa erregistratzeko sistema nagusiak:
 - Behaketa: planifikatzea.
 - Elkarriketa: planifikatzea, faseak eta elkarriketatzailearen zeregina.
 - Galdetegia, inkesta eta dokumentu-bilketa.
- Informazioa biltzeko tresnak prestatzea eta aplikatzea.
- Teknika eta tresna desberdinek eskaintzen dituzten aukerak eta mugak.
- Informazio-iturriak. Zenbait sektoretako txosten-ereduak: judizialak eta sozialak, psikologikoak eta psikiatrikoak eta medikoak, besteak beste.
- Informazioaren fidagarritasuna eta baliozkotasuna.
- Informazioa kudeatzean informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea.
- Informazio-bilketaren alderdi etikoaren balorazioa.

Esku-hartze sozialeko proiektua osatzen duten elementuak zehaztea:

- Esku-hartze sozialak programatzea: Plangintza-motak. Plangintza-mailak: plana, programa eta proiektua.

- Esku-hartze sozialean ohikoak diren programazio teknikak.
- Plangintza eratzeko prozesua. Faseak eta elementuak. Denborak definitzeko teknikak.
- Plangintza esku-hartzearen ezinbesteko elementu gisa baloratzea.

Genero-ikuspegia txertatzea esku-hartze sozialeko proiektuetan:

- Errealitatearen azterketa genero-ikuspegitik.
- Hizkuntza, pentsamendua eta generoa.
- Aukera-berdintasunaren ikuspegi historikoa.
- Genero-eraikuntzaren teoria.
- Sinesmen, jarrera eta portaerak eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna.
- Rol, estereotipo eta balioak generoko aukera-berdintasunean.
- Aukera-berdintasunaren lege-esparrua.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen duten baliabideak eta organismoak aztertzea.
- Nazioarteko protokoloak. Hizkuntza ez-sexistaren gidak eta eskuliburuak.

Esku-hartzearen kontrol- eta jarraipen-jarduerak egitea:

- Esku-hartze sozialak ebaluatzea: Eredu, teknika eta tresnak. Ebaluazioaren eginkizunak eta helburua.
- Ebaluazioaren fase eta elementuak.
- Ebaluazio-metodo eta -tresnak aztertzea.
- Ebaluazio-baliabide eta -jarduerak antolatzea.
- Ebaluazioan lorturiko datuak interpretatu eta aztertzea.
- Esku-hartzearen kalitate-programetan ebaluazioak duen garrantzia.
- Ebaluazioa eta ebaluazio-txosten eta -memoriak idatzi eta aurkeztea.
- Informazioa kudeatzean informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea.
- Ebaluazioaren objektibotasuna baloratzea.

Orientabide didaktikoak.

Lanbide-modulu honek antolatzeko, esku hartzeko/gauzatzeko, ebaluatzeko eta kalitatea kudeatzeko eginkizunak betetzeko behar den prestakuntza biltzen du. Izan ere, beroni esker ezagutzen ahal dira esku-hartze sozialeko eredu nagusiak, esku hartzen den errealitatea aztertzeko metodo, estrategia eta tresnak eta plangintza-eredu eta -printzipio orokorrak.

Horretarako, beharrezkoa da ikasleek erakustea esku-hartzearen faseak aplikatzeko eskatzen zaizkien trebetasunak eta gaitasunak, honako hauek kontuan hartuta: pertsonen helburu eta ezaugarri espezifikoak, testuinguruak, interakzioak, aurreikusitako emaitzak, gauzapen prozesua, baliabideak eta emaitzen balorazioa eta ebaluazioa.

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan moduluaren helburuak lortzeko bidea emanen duten lan-ildoak hauek dira:

- Programen dokumentu-azterketa.
- Talde-lana, helburu hauekin:
 - Gizarte-errealitatea aztertzeko tresnak prestatu eta aplikatzea.
 - Sustapen- eta hedapen-estrategiak eta -kanpainak diseinatzea, eta horretarako behar diren materialak egitea.

- Komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonak integratzeko esku-hartze sozialeko proiektuak ebaluatzea.

–Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea informazioa lortu, kudeatu eta komunikatzeko eta proiektuak sustatu eta hedatzeko.

–Gizarte-integrazioaren esparruko esku-hartze sozialeko proiektuen analisi konparatiboa egitea.

–Esku-hartzeko proiektu bat prestatzea, eta hori gauzatzea edo praktikan jartzea enpresetako prestakuntzan.

–Azterketa-prozesuak egitea ikasle-talde txikietan, komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonen sustapenaren eta integrazioaren esparruko esku hartzeko zenbait talde eta kolektibo horrekin loturiko proiektu sozialak sustatu eta zabaltzeko bitartekoak ezagutzea errazteko.

Ebaluazioari dagokionez, eta aurreko proposamena kontuan harturik, garrantzitsua da ikasleen etengabeko balorazio-prozesuaren barnean kontuan hartzea esku hartzeko proiektua planteatu, garatu eta gauzatzeko jarrerak eta inplikazio-mailak; ikasleen ebaluazioan talde-lanaren eta berrikuntzaren gaitasun eta trebetasunei buruzko itemak sartzea, eta enpresek eskatzen dituzten jarrera- eta lanbide-alderdiak ebaluatzea, ikasleek ikasgelan egiten duten lanaren ebaluazioa eta ikasleen hausnarketa-autoebaluazioa erabiliz.

Lanbide-modulua: Sentsibilizazio soziala eta parte-hartzea.

Kodea: 1112.

Baliokidetasuna ECTS kreditutan: 6.

Iraupena: 70 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1. Gorren eta gor-itsuen kolektiboaren ezaugarriak zehazten ditu, eta haien ezaugarri psikosozial eta kulturalak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gorren eta gor-itsuen ezaugarri psikosozial eta kulturalak identifikatu ditu.
- b) Gorren komunitatea eta haietako bakoitzaren egiturazko elementuak identifikatu ditu.
- c) Gorren eta gor-itsuen ezaugarri psikosozialak haien komunikazio-beharrekin lotu ditu.
- d) Gorren eta gor-itsuen kolektiboaren heterogeneotasuna baloratu du.
- e) Gorren eta gor-itsuen mendekotasunari bidea ematen dioten faktoreak aztertu ditu.
- f) Zeinu-hizkuntzaren balio identitarioa argudiatu du.
- g) Esparru bakoitzak gorren eta gor-itsuen garapenean duen eragina aztertu du.

2. Gizartea sentsibilizatzeko eta gorrek, gor-itsuek eta komunikazio-zailtasunak dituzten beste kolektibo batzuek parte hartzea sustatzeko programak diseinatzeko, komunikazio sozialeko he-dabideak aztertutik.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gorren eta gor-itsuen eskubideak aitortzen dituen lege-esparrua interpretatu du.
- b) Gorren eta gor-itsuen komunitatean eragina duten gaiak eta esparruak identifikatu ditu.
- c) Estrategiak ezarri ditu gorrek, gor-itsuek eta komunikazio-zailtasunak dituzten beste kolektibo batzuek plangintza-prozesuan parte har dezaten sustatzeko.
- d) Gorrei, gor-itsuei eta komunikazio-zailtasunak dituzten beste kolektibo batzuei buruzko gizarte-sentsibilizazioko programen helburuak zehaztu ditu.
- e) Gizarte-sentsibilizazioaren printzipio metodologikoak aztertu ditu.
- f) Kolektibo hartzaileen ezaugarriekin eta beharrekin koherenteak diren sentsibilizazio-jarduerak diseinatu ditu.
- g) Baliabide espazial, material eta pertsonalak definitu ditu.
- h) Gizarte-komunikazioko teknikak hautatu ditu.

3. Gizarte-sentsibilizazioa sustatzeko ekintzak antolatzen ditu, eta gorrek, gor-itsuek eta komunikazio-zailtasunak dituzten beste kolektibo batzuek parte hartzea sustatu eta mantentzeko bideak ezartzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gizarte-sentsibilizazioko ekintzak sustatzeko laguntza-teknika eta -baliabideak hautatu ditu.
- b) Gizarte-sentsibilizazioko ekintzak sustatzeko baliabide ez-konbentzionalak identifikatu ditu.
- c) Gorrek eta komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonen parte hartzea esku hartzeko baliabide ez-konbentzional gisa baloratu du.
- d) Testuinguruen eta ezaugarrien araberako irisgarritasun-beharak identifikatu ditu.
- e) Irisgarritasun unibertsala gorrek, gor-itsuek eta komunikazio-zailtasunak dituzten beste kolektibo batzuek parte hartzeko ezinbesteko baldintza gisa baloratu du.

- f) Gorrek, gor-itsuek eta komunikazio-zailtasunak dituzten beste kolektibo batzuek parte har dezaten sustatzeko esku-hartzean egin beharreko egokitzapenak identifikatu ditu.
- g) Irisgarritasun unibertsala eta pertsona guztiendako diseinua aukera-berdintasunaren arloan sentsibilizatzeko estrategia gisa baloratu ditu.
- h) Inplikaturiko eragile eta pertsonekin ekintzak koordinatzeko estrategiak ezarri ditu.

4. Gizarte-sentsibilizazioa sustatzeko estrategiak aplikatzen ditu, eta komunikazio- eta hedapen-baliabideekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gizarte-sentsibilizazioa errazten duten hedapen-estrategia eta -teknikak hautatu ditu.
- b) Gorrek, gor-itsuek eta komunikazio-zailtasunak dituzten beste kolektibo batzuek komunikabideetan presentzia izan dezaten sustatzeko estrategiak hautatu ditu.
- c) Gizarte-sentsibilizazioko ekintzak hedatzeko dokumentuak prestatu ditu.
- d) Hedapenaren eta gizarte-sentsibilizazioaren helburuekin koherenteak diren mezuak prestatu ditu.
- e) Elkarleen arteko lankidetzak hedapenerako eta gizarte-sentsibilizaziorako baliabide eta estrategia gisa baloratu du.
- f) Sare sozial digitalek hedapenerako eta gizarte-sentsibilizaziorako baliabide gisa duten garrantzia baloratu du.
- g) Ezaugarri identitarioek kolektibo horien sustapen kultural eta artistikorako duten garrantzia argudiatu du.

5. Gorrek, gor-itsuek eta komunikazio-zailtasunak dituzten beste kolektibo batzuek gizartean parte hartzea sustatzeko estrategiak aplikatzen ditu, eta elkarleen ehuna garatzeko prozesuekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gorrek eta komunikazio-zailtasunak dituzten beste kolektibo batzuek parte hartzearekin loturiko lege-esparruko elementu nagusiak identifikatu ditu.
- b) Elkarleen ehunak gorrek, gor-itsuek eta komunikazio-zailtasunak dituzten beste kolektibo batzuek parte har dezaten sustatzeko eragile nagusi gisa duen garrantzia argudiatu du.
- c) Elkarle-espazioak, haien azpiegitura eta pertsonen inplikazioa gizartean parte hartzea sustatu eta garatzeko baliabide metodologiko gisa baloratu ditu.
- d) Elkarle bat eratzearen prozesuari loturiko dokumentazioa bete du.
- e) Elkarleen ehunari laguntza tekniko emateko estrategiak garatu ditu.
- f) Gorrek, gor-itsuek eta komunikazio-zailtasunak dituzten beste kolektibo batzuek parte hartzearen eta komunikatzeko balio estrategikoa duten sare sozialak eta eztabaida-foroak sortu ditu.
- g) Gizartean parte hartzearen komunikazio-teknikak aplikatu ditu, gorren, gor-itsuen eta komunikazio-zailtasunak dituzten beste kolektibo batzuen ezaugarrietara egokituak.
- h) Gorrek, gor-itsuek eta komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonak esku-hartzearen fase guztietan inplikatzeko balio estrategikoa eta metodologikoa argudiatu du.

6. Gorrek eta komunikazio-zailtasunak dituzten beste kolektibo batzuek parte hartzearen eta gizarte-sentsibilizazioko programen kontrol- eta jarraipen-jarduerak egiten ditu, eta hobetu beharreko arloak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gizartea sentsibilizatzeko eta parte hartzearen ekintzak kontrolatzeko eta haien jarraipena egiteko teknikak hautatu ditu.

- b) Gizartea sentsibilizatzeko eta parte hartzeko esku-hartzeak kontrolatzeko protokoloak ezarri ditu.
- c) Komunikazio-beharrekin loturiko gorren eta gor-itsuen prestakuntza- eta informazio-erregistroak bete ditu.
- d) Ekintzen irisgarritasun-maila ebaluatzeko irizpideak eta adierazleak ezarri ditu.
- e) Sentsibilizazio-ekintzek komunikazio sozialeko hedabideetan duten eragina ebaluatzeko adierazleak ezarri ditu.
- f) Esku-hartzearen hartzaileek prozesu osoan zehar duten parte-hartzearen maila ebaluatzeko adierazleak ezarri ditu.
- g) Esku-hartzearen atzeraelikadura bermatzeko eta erabakiak hartzea errazteko tresnak eta protokoloak prestatu ditu.

Edukiak.

Gorren kolektiboaren eta gor-itsuen kolektiboaren ezaugarriak zehaztea:

- Gorren eta gor-itsuen ezaugarriak: Ikuspegi medikoa eta ikuspegi soziokulturala.
- Gorren komunitatearen eta gor-itsuen komunitatearen egiturazko elementuak aztertzea.
- Gorren eta gor-itsuen komunikazio-arloko beharrak:
- Gorren mendekotasun-arriskuak.
- Zeinu-hizkuntzaren balio identitarioa.
- Gorren eta gor-itsuen garapen-eremuak: Gorren familia-, gizarte-, hezkuntza- eta lan-testuinguruen azterketa. Gorren garapenean duten eragina.

Gorrek, gor-itsuek eta komunikazio-zailtasunak dituzten beste kolektibo batzuek parte hartzea sustatzeko eta gizartea sentsibilizatzeko programak diseinatzea:

- Gorren eta gor-itsuen eskubideen lege-esparrua.
- Esku-hartzearen hartzaile diren kolektiboen azterketa.
- Gorren komunitatearekin eta gor-itsuen komunitatearekin loturiko gai eta esparruak: Irisgarritasun unibertsala eta "pertsona guztiendako diseinua". Gorren autonomia eta parte-hartze soziala sustatzea.
- Plangintzako estrategia partizipatiboak.
- Gizarte-sentsibilizazioko programen helburuak zehaztea.
- Printzipio metodologikoak.
- Sentsibilizazio-ekintzak: Jardueren diseinua.
- Komunikazio sozialeko teknikak.
- Komunikazio sozialeko hedabideak sentsibilizaziorako eta parte hartzeko baliabide gisa baloratzea.

Gizarte-sentsibilizazioa sustatzeko ekintzak antolatzea:

- Gizarte-sentsibilizazioa sustatzeko laguntza-teknika eta -baliabideak.
- Baliabide konbentzionalak bilatzeko teknikak.
- Ekintzen finantzaketa. Baliabide ez-konbentzionalak aprobetxatzea.
- Parte hartzeko eremuetan lorturiko ebazpenak: biltzarrak eta foroak.
- Elkarteen ehuna gizarte-sentsibilizaziorako baliabide gisa baloratzea.

- Pertsona guztiendako irisgarritasun eta diseinua gorrei, gor-itsuei eta komunikazio-zailtasunak dituzten beste kolektibo batzuei aplikaturik: Beharrak identifikatzea.
- Ekintzak eta inplikaturiko eragileak koordinatzea.

Gizarte-sentsibilizazioa sustatzeko estrategiak aplikatzea:

- Hedapena gizarte-sentsibilizazioaren zerbitzura.
- Hedapenerako dokumentazioa idaztea: Dokumentu-iturriak. Informazioa bilatzeko estrategiak.
- Komunikazio-iturri formal eta informalak.
- Hedabideak. Inpaktu-indizeak.
- Gorren, gor-itsuen eta komunikazio-zailtasunak dituzten beste kolektibo batzuen kultura- eta arte-sustapena.
- Hedapenean eta gizarte-sentsibilizazioan elkarleen arteko lankidetzak eta sare sozial digitalen garrantzia.

Gorrek, gor-itsuek eta komunikazio-zailtasunak dituzten beste kolektibo batzuek gizartean parte hartzea sustatzeko estrategiak aplikatzea:

- Elkarleen ehunaren lege-esparrua.
- Gorren, gor-itsuen eta komunikazio-zailtasunak dituzten beste kolektibo batzuen elkarleen ehuna: ezaugarriak eta antolaketa-eredua, laguntza teknikoa.
- Gorren, gor-itsuen eta komunikatzeko zailtasunak dituzten beste kolektibo batzuen errealitate soziala eta parte hartzea, beren sare sozialen barnean nahiz kanpoan.
- Gorrek, gor-itsuek edo komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonen gizartean parte hartzeko estrategiak aztertzea.
- Parte hartzeko dinamikak.
- Sare sozial digitalak sortu eta mantentzea.
- Gorrei, gor-itsuei eta komunikazio-zailtasunak dituzten beste kolektibo batzuei aplika dakizkiekeen komunikazioko eta parte hartzeko teknikak hautatzea.
- Parte hartzeko prozesuarekin loturiko dokumentazioa idaztea.
- Zeinu-hizkuntzako komunikaziorako, informaziorako eta hedapenerako teknologiak aplikatzea.

Gizartea sentsibilizatzeko eta parte hartzeko programak kontrolatzeko eta haien jarraipena egiteko jarduerak egitea:

- Gizartea sentsibilizatzeko eta parte hartzeko ekintzei aplikatzen ahal zaizkien kontrol- eta jarraipen-teknikak.
- Kontrol-protokoloak eta -tresnak egitea.
- Erregistroak betetzea.
- Irisgarritasuneko eta parte hartzeko adierazleak zehaztea.
- Inpaktu-indizeak.
- Esku-hartzearen atzeraelikadura-mekanismoak.

Orientabide didaktikoak.

Lanbide-modulu honek sentsibilizazioko eta gorrek, gor-itsuek eta komunikazio-zailtasunak dituzten beste kolektibo batzuek gizartean parte hartzeko prozesuak antolatzeke, esku hartzeko/gauzatzeko eta ebaluatzeke eginkizunak betetzeko behar den prestakuntza biltzen du. Izan ere, beroni esker

ezagutzen ahal dira parte hartzeko eta sentsibilizazioko mailak aztertzeko, esparru horretako ekintzak gauzatzeko eta haien jarraipena egiteko estrategiak.

Antolaketa-funtzioak honelako alderdiak biltzen ditu:

- Beharrak hautematea.
- Programazioa.
- Esku-hartzea kudeatzea/koordinatzea.
- Txostenak egitea.

Esku-hartzeko/gauzatzeko funtzioak alderdi hauek biltzen ditu, besteak beste:

- Informazio-bilketa.
- Jardueraren antolaketa.
- Esku hartzeko estrategiak aplikatzea.
- Jardueren kontrola, jarraipena eta ebaluazioa.
- Loturiko dokumentazioa prestatu eta betetzea.

Ebaluazio-funtzioak esku-hartzea bere osotasunean kontrolatzeko eta haren jarraipena egiteko diseinatutako prozedurak inplementatzeari egiten dio erreferentzia.

Kalitatea kudeatzeko eginkizunak alderdi hauek biltzen ditu, besteak beste:

- Zerbitzuaren balorazioa.
- Prozesuaren kontrola.

Pertsonendako zerbitzuen sektorean, azpisektore hauetan aplikatzen dira eginkizun horiei loturiko lanbide-jarduerak:

- Laguntza psikosoziala.
- Komunikaziorako laguntza.

Halaber, komunitatearendako zerbitzuen sektorean, azpisektore hauetan:

- Informazioa.
- Komunitatearen dinamizazioa.
- Komunikaziorako laguntza.

Moduluko prestakuntzak heziketa-zikloaren a), b), c), k), m), u) eta v) helburu orokorrak eta tituluko a), b), c), k), m) eta t) gaitasunak lortzen laguntzen du.

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan moduluaren helburuak lortzeko bidea emanen duten lan-ildoak hauek dira:

- Gorren komunitateari eta gor-itsuen komunitateari buruzko dokumentu grafikoak eta ikus-entzunezkoak aztertea.
- Gorrekin eta gor-itsuekin loturiko erakundeak bisitatzea.
- Talde-lana, helburu hauekin:
- Gorrei, gor-itsuei eta komunikazio-zailtasunak dituzten beste kolektibo batzuei zuzenduriko sentsibilizazio-ekintzak prestatu, gauzatu eta ebaluatzea.
- Sentsibilizazio-kanpainetarako materialak prestatzea.
- Elkarteen eta baliabideen gidak egitea.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea informazioa lortu, kudeatu eta komunikatzeko.
- Gorrek, gor-itsuak eta komunikazio-zailtasunak dituzten beste kolektibo batzuk integratzeko eta parte hartzeko gizarte-sentsibilizazioak duen balioaz jabetzea.

Prozedurazko eta jarrerazko alderdiak ebaluatzeko, funtsezkoa da ikasleek gelan egin duten lanaren ebaluazioa edukitzea, baita ikasleen gogoetazko autoebaluazioa ere.

Lanbide-modulua: Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea gor-itsuekin.

Kodea: 1113.

Baliokidetasuna ECTS kreditutan: 11.

Iraupena: 130 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1. Gor-itsuekin egiten den komunikaziozko esku-hartzearen ezaugarriak zehazten ditu, eta haren printzipio metodologikoak prozesu kognitiboekin eta esku-hartze mailekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Esku-hartzea gidatzen duten oinarri metodologikoak deskribatu ditu.
- b) Sortzetiko gor-itsutasuna duten pertsonen garapen kognitiboko prozesua aztertu du.
- c) Sortzetiko gor-itsutasuna duten pertsonekin esku hartzeko mailak zehaztu ditu.
- d) Sortzetiko gor-itsutasuna duten pertsonen jokabideak ikasteko prozesua deskribatu du.
- e) Portaera problematikoen komunikazio-balioa eta esku hartzeko teknika egokienak aztertu ditu.
- f) Gor-itsutasunak autonomia pertsonala eskuratzean eta mantentzean dituen ondorio nagusiak zehaztu ditu.
- g) Harturiko gor-itsutasuna duten pertsonen ikaskuntzak eskuratzearen berezitasuna deskribatu du.
- h) Harturiko gor-itsutasunaren ondorio psikosozialak deskribatu ditu.

2. Gor-itsuekiko esku-hartzea antolatzeko, haien ezaugarriak banakako arreta-planean ezarriko jardun-arloekin lotu ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Arreta-plan indibidualizatua aztertu du, eta haren elementuak identifikatu ditu.
- b) Gor-itsuen ezaugarri nagusiak identifikatu ditu, eta esku-hartzearen arloekin eta helburuekin lotu ditu.
- c) Programaturiko helburuen arabera hautatu ditu lehentasunezko jarduerak.
- d) Esku-hartzea optimizatzeke, zentroko eta inguruneke baliabideak identifikatu ditu.
- e) Diziplinarteko taldearen antolamendu-egitura eta egitura funtzionala identifikatu ditu, eta bi-tartekariarekiko koordinazioarekin lotu du.
- f) Jardueren plangintzaren eta esku-hartzean aurreikusiriko helburuen artean koherentzia egotearen garrantzia argudiatu du.
- g) Arreta-plan indibidualizatua lantokiaren esparru orokorrekin lotzearen garrantzia baloratu du.

3. Komunikazio-bitartekaritzako programak ezartzen ditu, gor-itsuen zentroetako esku-hartzerako eremuetara egokiturik.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Arreta goiztiarreko programen garapen-planera egokituriko esku hartzeko estrategiak eta teknikak aplikatu ditu.
- b) Hezkuntza arrunteko eta bereziko programen garapen-planera egokituriko esku hartzeko estrategiak eta teknikak aplikatu ditu.
- c) Gizarte- eta lan-esparrura egokituriko esku hartzeko estrategiak eta teknikak aplikatu ditu.

- d) Bizitegi-esparruan esku hartzeko estrategiak eta teknikak aplikatu ditu.
- e) Esparru bakoitzean materialak landu eta egokitzeko irizpide nagusiak baloratu ditu.
- f) Esku hartzeko esparru bakoitzean talde-lanak duen balioa zehaztu du.
- g) Esku-hartzean taldeko profesional bakoitzaren zeregina errespetatzearen garrantzia baloratu du, esparru bakoitzaren espezifikotasunaren barnean.

4. Komunikazio-bitartekaritzako programak ezartzen ditu, gor-itsuen familia- eta gizarte-inguru-nearen ezaugarrietara egokiturik.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gor-itsuen eta haren inguruko pertsonen arteko harremana definitzen duten alderdiak identifikatu ditu.
- b) Komunikazio Bitartekaritzako goi-mailako teknikariak gizarte- eta familia-esparruetako programen garapenean duen zeregina deskribatu du.
- c) Familia-esparruan komunikazio-gaitasuna errazteko estrategiak zehaztu ditu.
- d) Bitartekaritza-baliabideak eta -estategiak erabili ditu gizarte- eta familia-inguruneko isolamendu-egoerak arintzeko.
- e) Gor-itsuek sozializazioa sustatzen duten jardueretan parte hartzeko aukera ematen duten inguruneko baliabideak identifikatu ditu.
- f) Komunikazio-bitartekaritzako jarraibideak aplikatu ditu oinarritzko zereginak gauzatzeko eta etxebizitza antolatu eta kudeatzeko.
- g) Aisialdiaren eta denbora librearen esparruan esku hartzeko estrategiak eta teknikak aplikatu ditu.
- h) Neutraltasunaren, objektibotasunaren eta familia-unitatearen intimitatearekiko errespetuaren printzipioak bermatzeko beharra argudiatu du.

5. Komunikazioa laguntzeko jardunen jarraipena egiten du, eta ezarritako erregistro-protokoloak betetzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ebaluaziorako adierazleak ezarri ditu.
- b) Esku-hartzearen jarraipena egiteko erregistroak bete ditu.
- c) Komunikazio-bitartekaritzako programa ebaluatzeko lanak egiteko espazioak eta denborak hautatu ditu.
- d) Txosten eta memoriak egin ditu.
- e) Informazioa diziplinarteko taldeari transmititzearen garrantzia argudiatu du.
- f) Diziplinarteko taldeko kideei informazioa igortzeko bideak zehaztu ditu.
- g) Bitartekaritza-prozesuan inplikaturiko agente guztien arteko komunikazio-kanalak mantentzearen garrantzia baloratu du.

Edukiak.

Gor-itsuekin egiten den komunikaziozko esku-hartzearen ezaugarriak zehaztea:

–Gor-itsuekin esku hartzeko printzipio metodologikoak aztertzea:

- Interakzio sozialaren teoria eta hizkuntza garatzea. Vigotsky.

–Sortzetiko gor-itsutasuna duten pertsonen prozesu kognitiboak:

- Sentsazioa, pertzepzioa, arreta iraunkorra eta oroimena.
- Kontzeptuak eratzea.

-Esku-hartzearen mailak: helburuak eta lan-metodologia:

- Interakzio komunikatiboa. Faseak.
- Komunikazioa garatzea: esanahiak sortzea.
- Hizkuntza: Hizkuntza-komunikazioa.

-Sortzetiko gor-itsutasuna duten pertsonen ikaskuntza-prozesuak:

- Jarduteko oinarrizko printzipioak.
- Komunikazio-estiloa. Konfiantza-harremana.
- Jardueren planifikazioa. Eguneko lanaldia egituratzea (espazioa, denbora eta pertsonak).

-Gor-itsuaren portaeraren komunikazio-balioa:

- Autonomia pertsonala.
- Errehabilitazio-teknikariarekin koordinatzea. Erregistroen baliagarritasuna.

-Sortzetiko gor-itsutasuna duten pertsonendako autonomia pertsonaleko programak.

-Harturiko gor-itsutasunaren inplikazioak: Inplikazioak:

- Alderdi psikosozialak. Ingurunearekiko isolamenduarekin kontuz ibiltzea.
-
- Zentzumen-egoera berrira egokitzea.
- Ikaskuntza egokituak.
- Gor-itsuekiko esku-hartzea antolatzea.

-Arreta-programen azterketa. Elementuak. Banakako arreta-plana, lantokiaren esparru orokorrean.

-Esku hartzeko arloak:

- Arreta pertsonaleko zerbitzuak.
- Eskolako hezkuntza-arreta (zero urtetik eskola-etaparen hondarrera arte).
- Garapen motorra.
- Pertzepzio-gaitasunak.
- Ingurunea ezagutzea zentzumenen bidez. Informazio sentSORIALA integratzea.
- Kognizioa, komunikazioa eta hizkuntza.
- Hezkuntza.
- Autonomia pertsonala.
- Desgaitasunera egokitzea.
- Gizarte- eta lan-trebetasunak.
- Lanerako trebetasunak.
- Garapen soziala.
- Komunikaziorako eta informazioa eskuratzeko teknologiak.
- Helduendako prestakuntza-programetako esku hartzea:
 - Berrezarpena.
 - Komunikazioa eta informaziora eskuratzeta.
 - Laguntza psikosoziala (desgaitasunera egokitzea).
 - Helduendako hezkuntza-arreta.
 - Enplegurako laguntzea.
 - Aisia eta astialdia.

- Gizarte-ongizaterako laguntza.
 - Helduendako hezkuntza-arreta.
 - Gor-itsuekin esku hartzeko jarduerak diseinatzea:
 - Testuinguruan kokaturiko ikaskuntza-egoerak diseinatzea.
 - Material eta baliabide didaktikoak prestatu eta egokitzea.
 - Gor-itsuekin esku hartzeko baliabideak identifikatzea.
 - Diziplinarteko taldea:
 - Taldeko kideak. Eginkizunak eta erantzukizun-arloak.
 - Egitura eta interrelazio-eskema.
 - Esku hartzeko plan banakatua.
 - Komunikazio Bitartekaritzako goi-mailako teknikariak diziplinarteko taldean duen zeregina:
 - Betekizun pertsonalak. Gaitasun profesionalak.
 - Esku-hartzearen esparrua.
 - Profesionalen arteko koordinazioa:
 - Profesionalen arteko koordinazioaren garrantzia.
 - Talde-lana.
 - Profesionalen arteko koordinazioaren garrantzia baloratzea.
- Gor-itsuekiko komunikazio-bitartekaritzako programak ikastetxeetan inplementatzea:
- Arreta goiztiarrean esku hartzeko estrategiak eta teknikak:
 - Zuzeneko behaketa.
 - Pertzepzio-gaitasunak garatzea.
 - Esperientzia partekatuen bidez errealitatea esploratu eta ezagutzea.
 - Gorputz-kontaktua. Norberaren gorputza bat etortzea. Niaren aitortzea. Imitazioa.
 - Behaketa eta aritzeko nahia.
 - Haur gor-itsuaren garapen sozial eta emozionala:
 - Adin goiztiarretako emozio-adierazpena.
 - Harreman emozionala errazteko elkarreragin positiboa.
 - Arreta goiztiarreko materialak garatu eta egokitzea:
 - Komunikazioaren garapena.
 - Esanahiak negoziatzea.
 - Erreferentziazko objektuak komunikazio-elementu gisa erabiltzea.
 - Errutinak ezartzea.
 - Arreta goiztiarreko materialak garatu eta egokitzea.
 - Espazioa eta haren ezaugarriak. Argiztapena, ukipen-erreferentziak, jolasak eta jostailuak.
 - Hezkuntza arrunteko ikastetxeetan eta hezkuntza bereziko ikastetxeetan esku hartzeko estrategiak eta teknikak:
 - Ikasketa esanguratsua Ikaskuntza aktiboa.
 - Interakzioa inklusioa bermatzeko gizarte-lotura gisa.
 - Gizarte-portaeraren erregulazioa. Hitzik gabeko komunikazio-trebetasunak.
 - Erabakiak hartzea.

–Gizarte- eta lan-arloko erakundeetan esku hartzeko estrategiak eta teknikak.

- Komunikazio-bitartekaritza eta lantokiak.
- Lanpostua egokitzea. Irisgarritasuna hobetzeko aplikazioak erabiltzea.
- Komunikaziorako laguntza teknikoak eta laguntza-sistemak.

–Egoitza-esparruko erakundeetan esku hartzeko estrategia eta teknikak:

- Komunikazio-dinamizazioa bizitegi-esparruan.
- Gor-itsutasuna duen pertsona zentroko jardueretan inplikatzeko estrategiak.
- Talde-lan koordinatua.

–Esku hartzeko eremu bakoitzean eginiko talde-lana baloratzea.

Komunikazio-bitartekaritzako programak familia- eta gizarte-ingurunean ezartzea:

–Familia eta gor-itsutasuna:

- Gor-itsutasunak familia-ingurunean duen inpaktua. Familiaren egokitzapenaren bilakaera-eta-pak.
- Familia-unitatearen beharrak (prestatutzakoak, medikoak, psikologikoak, ekonomikoak...).
- Bitartekariak familia-unitatean duen zeregina.
- Entitateak eta guraso-elkarteak. Ahaideei atsedeen ematea:

–Gor-itsuaren eta bere gizarte-ingurunearen arteko harremana.

–Komunikazio Bitartekaritzako goi-mailako teknikariak gizarte- eta familia-esparruetan duen zeregina:

- Bitartekariaren zeregina komunikazio-eredu gisa baloratzea.

–Bitartekariaren zeregina komunikazio-eredu gisa baloratzea.

–Familia-esparruan komunikazio-gaitasuna sustatzeko jarraibideak.

–Etxebizitza antolatu eta kudeatzeko komunikazio-bitartekaritzako jarraibideak:

- Etxebizitza eskuratu, egokitu eta mantentzea.

–Oinarrizko zereginak gauzatzeko komunikazio-bitartekaritzako jarraibideak:

- Oinarrizko eta eguneroko zereginak.
- Aurrez aurreko zereginak zein urrunekoak, idatzizko testu-mezuen bidez, telefonoz, internetez eta abarrez.

–Aisialdiko eta denbora libreko komunikazio-bitartekaritzako estrategiak eta teknikak:

- Parte hartzea, aisialdiko eta denbora libreko baliabideak, gozamina eta sozializazioa.

–Familia- eta gizarte-unitateko jardunbide egokiak:

- Intimitatea, neutraltasuna eta objektibotasuna errespetatzea.
- Esku-hartze komunikatiboaren jarraipena egitea:

–Ebaluaziorako adierazleak.

–Erregistroak betetzea:

- Komunikazio-koadernoak.
- Erregistroak eta eskalak.
- Tresnak prestatzea.

–Espazio eta denborak hautatzea.

–Txostenak eta memoriak prestatzea.

–Diziplinarteko lantaldeari informazioa helaraztea:

- Jarraipen-prozesuan inplikaturiko elementuen arteko komunikazio-estrategia eta -kanalak.

–Bitartekaritza-prozesuaren jarraipeneko komunikazio-kanalak:

- Lantaldeko komunikazioa.
- Motibatze teknikak.

–Ebaluazioaren objektibotasunak duen garrantzia baloratzea:

- Gogobetetzea ebaluatze prozedurak, adierazleak eta hobetzeko proposamenak.

Orientabide didaktikoak.

Lanbide-modulu honek antolatze, esku hartze/gauzatzeko eta ebaluatze eginkizunak betetzeko behar den prestakuntza biltzen du. Izan ere, beroni esker ezagutzen ahal dira esku hartze mailak eta arloak komunikazio-bitartekaritzaren ikuspegitik, baita gauzatuko diren programa eta jarduerak antolatze eta haien jarraipena egiteko jarraibide eta irizpide metodologikoak ere.

Antolaketa-funtzioak honelako alderdiak biltzen ditu:

- Beharrak identifikatzea.
- Programazioa.
- Esku-hartzearen kudeaketa.
- Txostenak egitea.

Esku-hartze/gauzatzeko funtzioak alderdi hauek biltzen ditu, besteak beste:

- Informazio-bilketa.
- Jardueraren antolaketa.
- Esku hartze estrategiak aplikatzea.
- Jardueren kontrola, jarraipena eta ebaluazioa.
- Loturiko dokumentazioa prestatu eta betetzea.

Ebaluazio-funtzioak esku-hartzea bere osotasunean kontrolatzeko eta haren jarraipena egiteko diseinatutako prozedurak inplementatzeari egiten dio erreferentzia.

Eginkizun hauei loturiko lanbide-jarduerak aplikatzen dira pertsonendako zerbitzuen sektorean:

- Laguntza asistentziala.
- Etxea kudeatzeko laguntza.
- Laguntza psikosoziala.
- Okupazio-arloari laguntzea.
- Hezkuntza-esparruko laguntza.
- Gizarte- eta lan-arloko laguntza.
- Komunikaziorako laguntza.

Moduluko prestakuntzak heziketa-zikloaren a), b), c), f), g), j), k), m), t) eta u) eta tituluko a), b), c), e), f), g), j), k), m), s) eta t) gaitasunak lortzen laguntzen du.

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan moduluaren helburuak lortzeko bidea emanen duten lan-ildoak hauek dira:

- Desgaitasunaren bizipenaren simulazioa.
- Ikus-entzunezko dokumentuak aztertzea gor-itsuen komunikazio-mailak eta -moduak identifikatzeko.
- Gor-itsuekin komunikazio-bitartekaritzako ekintzak prestatu, gauzatu eta ebaluatze talde-lana, egoera simulatu edo errealean.

Lanbide-modulua: Gor-itsuekiko komunikazio-bitartekaritzaren testuingurua.

Kodea: 1114.

Baliokidetasuna ECTS kreditutan: 10.

Iraupena: 130 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1. Komunikazio-bitartekariaren zereginaren ezaugarriak zehazten ditu, eta haren eginkizunak, lanbide-gaitasunak eta jarduera-esparrua identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gor-itsuekin esku hartzeko bitartekaria izatearen kontzeptuak zehaztu ditu.
- b) Komunikazio-bitartekaritza mota identifikatu du, eta gor-itsuaren beharrekin lotu du.
- c) Populazio horrekiko komunikazio-bitartekaritzaren eginkizunak eta helburuak aztertu ditu.
- d) Bitartekaritza-prozesuaren alderdi garrantzitsuak identifikatu ditu, eta erabiltzaileen ezaugarrietara egokitu ditu.
- e) Baloratu du zer desberdintasun dagoen komunikazio-bitartekariaren, zeinu-hizkuntzaren interpretearen eta gor-itsuen gidatzaile-interpretearen artean, kontzeptuari zein esku-hartzeri dagokienez.
- f) Kolektibo horrekiko esku-hartzean bitartekariak duen zereginaren garrantzia argudiatu du.
- g) Aztertu du nolako garrantzia duten diziplinarteko lanak eta espazio seguruak sortzeak erabiltzaileekin esku hartzearen esparruan zein lantaldeetan, gizarte-esparruko profesionalen kode deontologikoan eta etika profesionalen oinarriturik.

2. Gor-itsuen kolektiboaren ezaugarriak zehazten ditu, eta dituzten zentzumen-egoerekin eta populazio-taldearekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gor-itsutasunaren ikusmolde desberdinak identifikatu ditu.
- b) Gor-itsutasunaren arrazoi nagusiak deskribatu ditu.
- c) Zentzumen-, ikusmen- eta entzumen-egoera bakoitzaren ondorioak identifikatu ditu.
- d) Gor-itsutasuna agertu den unearen eta ordenaren arabera sailkatu ditu populazio-taldeak.
- e) Gor-itsuen funtzionamendu-mailetan oinarriturik sailkatu ditu populazio-taldeak.
- f) Esku-hartzearen ezaugarriak gor-itsutasuna agertu den unearekin lotu ditu.
- g) Gor-itsutasunean eragina duten aldagai nagusiak identifikatzearen garrantzia baloratu du.

3. Komunikazio-egoerak inplementatzen ditu, komunikazioa laguntzeko sistema edo baliabidea hautaturik.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gor-itsuek erabiltzen dituzten komunikazio-sistemak eta komunikaziorako laguntza-baliabideak deskribatu ditu.
- b) Sistema bakoitzaren berariazko jarraibide bereizgarriak deskribatu ditu.
- c) Gor-itsuarentzat egokiena den sistema hautatu du, haren ezaugarri sentzorialak eta beste berezitasun batzuk kontuan harturik.
- d) Komunikazio-trukea zein sistematan egingen den hautatzeko gor-itsuari kontsultatzeko beharra baloratu du.

- e) Komunikazio-egoerak ezartzeko ekintzen sekuentzia zehaztu du.
- f) Komunikazio-trukea eginen den ingurunea aztertu du, testuinguruan kokatzea errazteko.

4. Gor-itsuekin joan-etorriak egiten ditu, gidatzaile ikusmendunaren teknikak eta erabiltzailearen segurtasuna bermatuko duten komunikazio-jarraibideak aplikaturik.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Zenbait konplexutasun-mailatako barneko eta kanpoko espazioetan segurtasunez mugitzeko gor-itsuekin erabiltzen diren gidatzaile ikusmendunaren teknikak deskribatu ditu.
- b) Joan-etorrietako komunikazio-trukeko uneetan eginen diren gidatzaile ikusmendunaren teknikaren egokitzapenak aztertu ditu.
- c) Joan-etorrietan mezuak igorri eta jasotzeko gor-itsustasuna duten pertsonekin komunikatzeko jarraibideak deskribatu ditu.
- d) Komunikaziorako laguntza-sistemetan eta -baliabideetan joan-etorrietan erabiltzeko eginen diren egokitzapenak identifikatu ditu.
- e) Joan-etorrietako arrisku-egoerak aztertu ditu, eta segurtasun-neurri egokiak aplikatu ditu.
- f) Gor-itsutasuna duten pertsonetik joan-etorrietan komunikazioaren gainetik segurtasuna lehenesteko beharra argudiatu du.

5. Laguntza tifloteknikoak eta komunikaziorako eta informazioa eskuratzeko teknologia espezifikoak erabiltzen ditu, eta haien ezaugarriak erabiltzailearen ezaugarriekin erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ordenagailura eta Internetera ikusmenaren bidez sartzeko aukera ematen duten gailu tifloteknikoak eta softwarea erabili ditu.
- b) Ordenagailura eta Internetera entzumenaren bidez sartzeko aukera ematen duten gailu tifloteknikoak eta softwarea erabili ditu.
- c) Ordenagailura eta Internetera ukimenaren bidez sartzeko aukera ematen duten gailu tifloteknikoak eta softwarea erabili ditu.
- d) Gor-itsuekin komunikatzeko aplikazio informatikoek eta baliabideek duten irisgarritasuna, erabilgarritasuna eta aplikagarritasuna baloratu ditu.
- e) Gor-itsuei informazio inprimatua eskuratzeko aukera ematen dieten gailu tifloteknikoak eta softwarea erabili ditu.
- f) Gor-itsuei euskarri digitaleko informazioa eskuratu eta tratatzeko aukera ematen dieten gailu tiflotekniko espezifikoak erabili ditu.
- g) Gor-itsuei telefonia mugikorra erabiltzeko aukera ematen dieten gailu tifloteknikoak erabili ditu, eta entzumen-, ikusmen- eta ukimen-sarbideekin harremanetan jarri ditu.
- h) Aurrez aurreko komunikaziorako gailu tifloteknikoak eta laguntza-baliabideak erabili ditu.

Edukiak.

Bitartekariak komunikazioan duen zereginaren ezaugarriak zehaztea:

–Gor-itsuendako komunikazio-bitartekariaren definizioa.

–Bitartekaritza-prozesua aztertzea.

–Esku-hartze komunikatiboaren helburuak.

–Komunikazio-bitartekaritza motak:

- Bitartekaritza orokorra.

- Hezkuntza-arloko bitartekaritza.
 - Gizarte-arloko bitartekaritza.
- Komunikazio Bitartekaritzako goi-mailako teknikariaren lanbide-gaitasunak.
- Gor-itsuekin esku hartzen duten figura profesionalen arteko desberdintasunak.
- Gor-itsuekiko esku-hartzean eginiko komunikazio-bitartekaritza baloratzea.

Gor-itsutasuna duten pertsonen kolektiboaren ezaugarriak zehaztea:

- Gor-itsutasuna:
- Definizioa eta oinarritzko kontzeptuak.
 - Indarrean dagoen legedia.
- Gor-itsutasunaren etiologia ohikoenak:
- Gor-itsuen populazioaren heterogeneotasuna.
- Gor-itsutasuna eragiten duten ikusmen- eta entzumen-patologia nagusiak identifikatzea.
- Sortzetiko gor-itsutasuna. Etiologia. Kausak. Ezaugarri orokorrak.
- Harturiko gor-itsutasuna. Etiologia. Ezaugarri orokorrak:
- Sortzetiko entzumen-urritasuna eta harturiko ikusmen-galera duten gor-itsuak.
- Sortzetiko ikusmen-urritasuna eta harturiko entzumen-galera duten gor-itsuak.
- Ikusmen- eta entzumen-urritasunik gabe jaio diren eta bizitzan zehar ikusmena eta entzumena galdu duten pertsonak.
- Gor-itsuen funtzionamendu-mailak aztertzea: funtzionamendu-maila baxua, ertaina eta altua.
- Sortzetiko gor-itsutasunarekiko esku-hartzearen eta harturiko gor-itsutasunarekiko esku-hartzearen arteko alderdi bereizgarriak.

Komunikazio-egoerak inplementatzea:

- Komunikazio-sistemen heterogeneotasuna.
- Komunikaziorako sistema edo baliabidea hautatzeko irizpideak:
- Ikusmen- eta entzumen-urritasuna agertzen den ordena eta unea.
 - Ikusmen- eta entzumen-funtzionaltasuna. Erabiliriko entzumen- eta ikusmen-laguntzak.
- Gor-itsuekin komunikatzea:
- Komunikazioa hasteko jarraibideak. Harremanetan jartzea eta elkarrekintzan zehar sistema doitzea.
 - Gor-itsutasuna duen pertsonaren adierazteko eta hartzeko lehentasunezko komunikaziorako sistema.
 - Komunikazio-sistema bat edo batzuk erabiltzeko aurretiazko negoziazioa.
 - Igorlea komunikazio-egoera bakoitzaren ezaugarri espezifikoetara egokitzea.
- Testuingurua baloratzea komunikazio-trukeetan:
- Testuinguruaren komunikazio-balioa.
 - Testuinguruari buruzko informazioa komunikazio-interakzioetan. (Pertsonak, lekuak, objektuak, giroa, gertaerak...).

Gor-itsuekin joan-etorriak egitea:

- Joan-etorrietako gidatzaile ikusmendunaren teknikak:
- Norbera babesteko teknikak.
 - Objektuak kokatzea.

–Era independentean lekualdatzeko teknikak:

- Barneko eremuetan orientatzeko gor-itsuendako teknikak.
- Kanpoko eremuetan orientatzeko gor-itsuendako teknikak.

–Joan-etorrietako komunikazioan eginen diren gidatzaile ikusmendunaren teknikaren egokitzapenak: komunikazio-jarraibideak.

–Joan-etorrietako segurtasuna. Arrisku-egoerak bereiztea eta ukimenaren bidez harremanetan jartzea.

Laguntza tifloteknikoak eta komunikaziorako eta informazioa eskuratzeko berariazko teknologiak erabiltzea:

–Pantaila-handigailuak erabiltzea:

- Ezaugarri orokorrak.
- Ikusizko informazioa eskuratzeko laguntza-elementuak.

–Pantaila-irakurgailuak erabiltzea:

- Ezaugarri orokorrak.
- Ahots-sintesiaren bidez eskuratzea. Ezaugarriak eta entzumena laguntzeko elementuak.
- Braille linearen bidez eskuratzea. Ezaugarria. Braille lerroak.

–Informatika-aplikazioak erabiltzea:

- –Testu-prozesadoreak.
- Web-nabigatzaileak.
- Posta elektronikoaren kudeatzaileak.
- Berehalako mezularitzako programak.

–Informazio inprimatua eskuratzea.

- Eskanerra.
- OCR softwarea.

–Informazioa tratatzeko gailu tiflotekniko autonomoak:

–Ahotsez edo braillez oharrak hartzeko gailu elektronikoak: ezaugarriak eta funtzionaltasuna. Ereduak.

–Liburuak soinu-formatuan erreproduzitzeko gailuak (Daisy).

–Inprimagailuak.

–Software tiflotekniko espezifikoak: hiztegiak. Editoreak.

–Telefonia mugikorrera, tabletara eta erloju adimendunera sartzeko gailu eta software tifloteknikoak.

–Pantaila-irakurgailuak: ahots-sintesiaren bidez sartzeko, ezaugarriak eta entzumen-laguntzako elementuak.

–Braille bidez sartzeko:

- Ezaugarriak eta telefono-terminal mugikorrak. Entzumen-laguntzen bidezko konektibitatea.
- Berariazko aplikazioak: Seein Ai, Listen All, CTO, kolore-detektagailua, argi-detektagailua, mugikortasunerako aplikazioak.

–Komunikagailuak erabiltzea.

–Laguntza tifloteknikoek eta teknologiek gor-itsuen eguneroko bizitzan duten garrantzia balortzea.

Orientabide didaktikoak.

Lanbide-modulu honek eskaintzen du gor-itsuen kolektiboarekiko komunikazio-bitartekaritzan esku hartzeko/gauzatzeko eginkizuna betetzeko behar den prestakuntza. Izan ere, beroni esker ezagutzak eskuratzen ahal dira komunikazio-bitartekaritzako goi-mailako teknikariaren berariazko eginkizunei, kolektibo horren ezaugarriei eta beharrei, komunikaziorako laguntza-baliabideei, gidatzaile ikusmendu-naren teknikari eta komunikaziorako eta informazioa eskuratzeko laguntza tiflotekniko eta teknologiko espezifikoei buruz.

Esku-hartze sozialaren xede den errealitateari eta praktikari buruzko hausnarketa eta etengabe egokitzea testuinguru sozial aldakorren arabera funtsezko osagaiak dira Komunikazio Bitartekaritzako goi-mailako teknikariaren errealitate profesionalera egokitze eta doitzeko.

Zeharkako jarduera gisa, komeni da baloratzea etika profesionalak ingurune bereizietan hartzen dituen ezaugarriak aztertze aukera:

- Profesionalen erantzukizuna.

- Oinarrizko printzipioak: pertsonaren duintasuna, etikaren printzipioak, autonomiarekiko errespetua, intimitatea-pribatutasuna-konfidentziasuna, datuen babesa, gatazkei aurre egiteko modua.

Lanbide-modulua: Zeinu-hizkuntza.

Kodea: 1115.

Baliokidetasuna ECTS kreditutan: 11.

Iraupena: 195 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1. Zeinuzko diskurtso argi eta errazetako eguneroko informazioa ezagutzen du, eta mezuaren eduki globala identifikatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Oso maiz erabiltzen diren eguneroko esamoldeak identifikatu ditu.
- b) Berehalako beharrak asetzea bideraturiko esaldi errazak identifikatu ditu.
- c) Espainiako zeinu-hizkuntzako mezuaren ideia nagusia jaso du.
- d) Zeinuzko mezu batean jasoriko informazioa identifikatu du.
- e) Hedabide baten bitartez Espainiako zeinu-hizkuntzan emandako mezu baten ideia nagusiak atera ditu.
- f) Zeinatutako komunikazio-egoera bateko argumentuaren haria identifikatu du.
- g) Ikusi den sekuentzia batean agertzen den oinarritzko hiztegia identifikatu du.

2. Mezu errazak igortzen ditu Espainiako zeinu-hizkuntzan, eguneroko bizitzako egoerei buruzko hiztegia eta adierazpenak identifikaturik.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Zehaztasunez identifikatu du eguneroko bizitzako zenbait testuingurutan erabiliriko hiztegia.
- b) Informazio garrantzitsuena atera du Espainiako zeinu-hizkuntzan igorritako mezu batetik.
- c) Agindu errazak eman ditu, mezurako egokiak diren hiztegi eta adierazpenak erabiliz.
- d) Espainiako zeinu-hizkuntzaren bidez informazioa eskatzeko edo galderak egiteko egitura errazak identifikatu ditu.
- e) Erabiltzailearentzat bereziki garrantzitsuak diren esperientzia-arloekin loturik dauden eta maiz erabiltzen diren esaldiak eta esamoldeak ulertu ditu.

3. Ahozko mezu erraz, argi eta ongi egituratuak itzultzen ditu Espainiako zeinu-hizkuntzan, mezuaren helburua eta eskuraturiko hizkuntza-egiturak erlazionaturik.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Komunikazioa ezartzeko formula errazak, loturak eta elkarreragin-estrategiak erabili ditu.
- b) Oinarritzko hizkuntza-egiturak zuzen erabili ditu.
- c) Nolabaiteko jarioz deskribatu ditu eguneroko bizitzako egoerak.
- d) Bere buruaren eta beste batzuen aurkezpen laburrak argi egin ditu, dagozkien protokoloak erabilirik.
- e) Etxebizitzari, ondasunei eta ezagutzen dituen pertsonen buruzko oinarritzko informazio pertsonala eman du.
- f) Galdera laburrei erantzun die.
- g) Oinarritzko informazioa trukatu du, arintasun handi samarrez, egitura errazeko esaldiak erabiliz.
- h) Iritzi eta eskaera errazak egin ditu, ingurune ezagunetara egokitutako Espainiako zeinu-hizkuntza aplikatuz.

4. Espainiako zeinu-hizkuntza aplikatzen du iritzi edo eskaera errazak adierazteko, ingurune ezagunetara egokiturik.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Bere ohituren ezaugarri esanguratsuenak definitu ditu Espainiako zeinu-hizkuntzan.
- b) Besteak beste, datu pertsonalei, helbideari, lanari eta aisialdiari buruzko informazioa eskatu du Espainiako zeinu-hizkuntzan.
- c) Espainiako zeinu-hizkuntzaren oinarrizko egiturak identifikatu ditu zenbait komunikazio-tes-tuingurutan.
- d) Espainiako zeinu-hizkuntzan komunikatu da eguneroko zeregin sinple ezagunak deskribatzeko.
- e) Iraganaren, ingurunearen eta berehalako beharrekin loturiko gaien alderdi errazak deskribatu ditu.
- f) Espainiako zeinu-hizkuntzaren erabiltzaileen hiztegia eta komunikazio-estrategiak ezagutu ditu.

5. Espainiako zeinu-hizkuntzan solastatzen da modu espontaneoan; jariakortasunez komuni-katzen da eguneroko gaiei buruz, eta denbora-markatzaileak erabiltzen ditu ekintzak iraganean eta geroaldian kontatzeko.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Eguneroko gaiei, interes pertsonalei eta egoera edo gai ez hain arrunt edo ezagunei buruzko mezuak transmititu ditu Espainiako zeinu-hizkuntzan.
- b) Nolabaiteko jarioz askotariko komunikazio-egoerei egin die aurre.
- c) Iritzi pertsonalak, sentimenduak eta erreakzioak adierazi ditu Espainiako zeinu-hizkuntzan.
- d) Informazioa trukatu, egiaztatu eta berretsi du Espainiako zeinu-hizkuntzan.
- e) Gai abstraktu edo kultural bati buruz zer pentsatzen duen adierazi du Espainiako zeinu-hiz-kuntzan.
- f) Elkarriketak egin ditu Espainiako zeinu-hizkuntzan.

Edukiak.

Zeinuzko diskurtso argi eta errazetako eguneroko informazioa ezagutzea:

–Komunikazioa ezartzeko jarraibideak.

–Gorputz- eta aurpegi-adierazpeneko eta espazioaren erabilerako trebetasunak:

- Egoera eta gogo-aldarte desberdinak komunikatzea norberaren gorputza erabiliz.

–Bereizteko eta ikusizko oroimeneko trebetasunak.

–Espazioa adierazpen- eta gramatika-baliabide gisa erabiltzea.

–Espazioa adierazpen-baliabide gisa:

- Neurriak. Lauak. Helbideak. Ibilbideak. Denborak.
- Hirudimentsiokotasuna.

–Espazioan marraztea. Diseinu espaziala:

- Espazioaren sinbolismoa.
- Elementu espazialak eta komunikazioa.

–Koordinazioa eta mugimen-arintasuna:

- Mugimenduaren iraupena, intentsitatea, ibilbidea eta erritmoa.

- Mugimenduaren kalitateak: larritasuna, tentsioa, espazioa eta denbora, adierazkortasuna...
 - Mugimenduaren denborazkortasuna. Adierazpen-aplikazioa.
 - Segmentazioa.
- Hasierako eta hondarreko agurrak eta aurkezpen formala eta informala: letreiatzea. Beste norbait aurkeztea.
 - Baimena eta barkamena modu errazean eskatzen jakitea.
 - Helbideaz galdegin eta helbidea eman.
 - Errepikatzeko eskatzea.

Mezu errazak igortzea Espainiako zeinu-hizkuntzan:

- Norberaren identifikazioa zabaltzea:
 - Jatorria, adina, egoera zibila eta ahaidetasuna.
- Pertsonak deskribatzea: Deskribapen fisikoak, besteei kalitateak esleitzea.
- Lekuak deskribatzea: etxea, kalea, auzoa eta hiria.
- Objektuak deskribatu eta identifikatzea:
 - Deskriptoreak edo sailkatzaileak.
 - Izenordainari numeroa gehitzea.
- Segmentuz gaindiko elementuak eta gorputz-adierazpena.
- Pertsonak, objektuak eta lekuak kokatzea.
- Informazio espaziala eskatu eta ematea.
- Espazio topografikoa eta sintaktikoa erabiltzea.
- Leku eta helbideei buruzko jarraibideak eskatu eta ematea.
- Baimena eskatzea. Ematea eta ukatzea.
- Proposamen, eskaintza edo gonbidapen bat errefusatu eta onartzea.
- Ezezko biribila emanez erantzutea agindu, eskaera edo eskari bati.
- Proposamen, eskaintza edo gonbidapen bat onartzea.

Mezu sinple, argi eta ongi egituratuak itzultzea Espainiako zeinu-hizkuntzan:

- Sentimendu, iritzi, nahi, gustu eta lehentasunak adieraztea:
 - Kausalitatea, alternatibak, ziurtasuna, ez jakitea, gustuak, lehentasunak, beharrak, zalantza, ezjakintasuna, ezbaia, desengainua, desioa, gonbidatzea, gonbitari uko egitea, adostasuna eta desadostasuna.
- Segmentuz gaindiko elementuak (aurpegi-adierazpena):
 - Iritziekiko adostasuna edo desadostasuna adieraztea. Barkamena eskatzea.
- Iritziak eman eta eskatzea.
- Barkamena eskatzea.
- Baimena eskatu eta ematea.
- Agindua ematea, aholkatzea, gomendatzea eta debekatzea.
- Ohiko ekintzak adieraztea: ordutegiak eta datak. Ordua eskatu eta eman.
- Diskurtsoa egituratu, eraiki eta interpretatzea:
 - Komunikazioa ezartzea.

- Kontakizunari interesez jarraitzen zaiola adieraztea.
- Ixtea proposatzea.
- Pertsona edo gauza bati buruz galdetzea.
- Itxaroteko eskatzea.
- Segmentuz gaindiko elementuak.
- Proposatzea, iradokitzea, ohartaraztea eta aholkatzea.
- Zerbait egiteko bere burua eskaintzea.
- Interes pertsonaleko informazioa elkartrukatzea.
- Aisia: gustuak, zaletasunak, kirolak, ohiturak, jarduerak eta eginkizunak.
- Familia.
- Harremanak.
- Informazioa eta laguntza eskatu eta eskaintzea.

Espainiako zeinu-hizkuntza aplikatzea iritzi eta eskaera errazak adierazteko:

- Inguruneari eta etxeari buruz solastatzea.
- Denbora jakin batean egiten den ekintza baten deskribapena:
 - Aipatzea ekitaldiren bat dagoen ala ez.
 - Aldi bereko ekintzez eta zerbait zer distantziatara dagoen solastatzea. Plan, proiektu eta esperientzia pertsonalak egin eta adieraztea.
- Plan, proiektu eta esperientzia pertsonalak egin eta adieraztea. Akordio bat negoziatzea.
- Betebeharrak adieraztea.
- Espazio sintaktikoko eta topografikoko ekintza-sekuentzia.
- Aholku eta iradokizunak ematea.
- Onartzea eta uko egitea.
- Iradokizunak egin, onartu eta baztertzea.
- Ohiko eta ezohiko ekintzak.
- Agindu edo jarraibide bat ematea.

Solas espontaneoak Espainiako zeinu-hizkuntzan:

- Ekintzak iraganean eta geroaldian kontatzea:
 - Iraganaren, geroaldiaren eta geroaldi zehaztugabearen denbora-markatzaileak. Iraganeko eta etorkizuneko ekintzak hasi eta bukatzea.
 - Espazioa denboraren erregulatzaile gisa erabiltzea.
- Ekintzak iraganean deskribatzea.
- Zerbait gertatu zen lehenbiziko aldia hitz egitea. Zenbait ekintzaren arteko denbora-aldea adieraztea.
- Aspektu burutuan eta ez-burutuan kontatzea:
 - Ekintzen hasiera eta bukaera adierazten duten adierazpideak.
 - Promesa egitea, justifikatzea, aieru eta iragarpenak egitea, gonbidatu eta eskaintzea, zerbaiti buruz zehaztu gabe mintzatzea.
- Iraganetik etorkizunari aipu egitea eta alderantziz.

Orientabide pedagogikoak.

Lanbide-modulu honek esku hartzeko/gauzatzeko eginkizunak betetzeko behar den prestakuntza biltzen du. Izan ere, beroni esker eskuratzen ahal da Espainiako zeinu-hizkuntzaren oinarritzko ulermen eta adierazpena.

Esku-hartzeko/gauzatzeko funtzioak alderdi hauek biltzen ditu, besteak beste:

- Informazio-bilketa.
- Jardueraren antolaketa.
- Esku hartzeko estrategiak aplikatzea.

Eginkizun horiei loturiko lanbide-jarduerak pertsonendako zerbitzuen sektorean aplikatzen dira, azpisektore honetan:

- Komunikaziorako laguntza.

Moduluko prestakuntzak heziketa-zikloaren d), e), f), h), r) eta u) helburu orokorrak eta tituluko d), e), f), h), r) eta v) gaitasunak lortzen laguntzen du.

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan moduluaren helburuak lortzeko bidea emanen duten lan-ildoak hauek dira:

- Espainiako zeinu-hizkuntzan mezu errazak sortzea.
- Espainiako zeinu-hizkuntzan igorritako mezu errazak ulertzea.
- Espainiako zeinu-hizkuntzan solas txikiak izatea.
- Banakako jardunak grabatu eta ikustea, banaka zein taldean aztertzeko.

Lanbide-modulua: Zeinu-hizkuntzaren erabilera-esparruak.

Kodea: 1116.

Baliokidetasuna ECTS kreditutan: 11.

Iraupena: 165 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1. Zeinuzko diskurtsoetako informazioa identifikatzen du, eta bizitza sozialarekin, profesionalarekin edo akademikoarekin lotzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Mezuaren ideia nagusia identifikatu du.
- b) Informazioa atera du bizitza sozialarekin, profesionalarekin edo akademikoarekin loturiko zeinu-hizkuntzako diskurtsoetatik.
- c) Hiztunaren ikuspegiak eta jarrerak identifikatu ditu.
- d) Gai zehatzei eta abstraktuei buruzko mezu eta adierazpenen ideia nagusiak identifikatu ditu.
- e) Xehetasun osoz ulertu ditu Espainiako zeinu-hizkuntzan eman zaizkion argibideak.
- f) Mezua bidaltzeko erabilitako erregistroak identifikatu dira.
- g) Mezu bat bere elementu guzti-guztiak ulertu beharrik gabe orokorrean konprenitzea zeinen garrantzitsua den ohartu da.

2. Espainiako zeinu-hizkuntzako mezuak ulertzen ditu, eta, besteak beste, aisialdiko, laneko eta bidaetako egoeren hiztegi espezifikoak identifikatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Espainiako zeinu-hizkuntzan emaniko jarraibide xeheak bete ditu.
- b) Zenbait egoeratan gertatzen diren eguneroko diskurtsoetako ideia nagusiak atera ditu.
- c) Eguneroko gaiei buruzko eztabaidetan parte hartu du, ulertu dutela baieztaturik eta besteak parte hartzera bultzaturik.
- d) Zeinuz adierazi zaionaren zati bat errepikatu du elkarren ulermena berresteko.
- e) Gai zehatzei eta abstraktuei buruzko hizkuntza-komplexutasun handiko diskurtso baten ideia nagusiak ulertu ditu.
- f) Espainiako zeinu-hizkuntzan emaniko jarraibide xeheak bete ditu.
- g) Gertaera zehatzei buruzko informazio-trukea dakarten edo arazo zehatzei buruzko jarraibideak edo konponbideak ematen dituzten eztabaidetan parte hartu du.

3. Ahozko mezu argiak eta ongi egituratuak ematen ditu Espainiako zeinu-hizkuntzan, egoeraren edukia azterturik eta solaskidearen hizkuntza-erregistroari egokiturik.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Naturaltasunez komunikatu da, inguruabarren arabera formaltasun-mailarekin.
- b) Jarioz, zehaztasunez eta eraginkortasunez aritu da zeinu-hizkuntzan askotariko gaiei buruz (orokorrak, akademikoak, profesionalak zein aisialdikoak), eta argi markatu du ideien arteko lotura.
- c) Hainbat gairi buruzko aurkezpen argiak eta zehatzak egin ditu, terminologia egoki erabilirik.
- d) Ikuspuntuak argi adierazi eta defendatu dira, azalpenak eta argudio egokiak emanez.
- e) Gai abstraktuei eta kulturei buruz aritu da, hala nola filmei, liburuei, musikari eta sentimenduei buruz.

- f) Sinesmenak, iritziak, adostasunak eta desadostasunak adierazi ditu Espainiako zeinu-hizkuntzan.
- g) Malgutasunez erabili ditu askotariko hizkuntza-elementu errazak adierazi nahi duena adierazteko.
- h) Solasean gertatzen ohi diren hari-, estilo- eta enfasi-aldaketetara egokitu da.

4. Espainiako zeinu-hizkuntza erabiltzen du eguneroko esperientzia eta gertakariak argudiatu eta deskribatzeko, gramatika-baliabideak hautaturik.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Deskribapen argi eta zehatzak egin ditu.
- b) Narrazioak (istorioak, liburuak eta filmak, besteak beste) egin ditu Espainiako zeinu-hizkuntzan, adieraziriko gramatika-baliabideak erabiliz.
- c) Gai orokorreki buruzko zenbait ikuspegiren abantaila eta desabantailak nabarmendu ditu, egitura konplexuak erabiliz.
- d) Argudioak garatu ditu Espainiako zeinu-hizkuntzan, hizkuntza-errepertorio zabala erabiliz.
- e) Esperientzia, gertaera, amets eta anbizioak deskribatu ditu, esaldiak era errazean lotuz.
- f) Argi eta garbi adierazi eta aldeztu ditu zenbait ikuspuntu, eta azalpen eta argudio egokiak eman ditu.
- g) Zerbait egiteko modua deskribatu du Espainiako zeinu-hizkuntzan, jarraibide zehatzak emanaz.
- h) Adierazpena egokitu du hain ohikoak ez diren edo zailtasun handiagoa duten egoerei buruz aritzeko Espainiako zeinu-hizkuntzan.

5. Espainiako zeinu-hizkuntza erabiltzen du gai orokor ugaritako diskurtsoak adierazi eta ulertzeko, hiztegia hautaturik eta adierazpen konplexuak erabiliz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Bat-batean komunikatu da, inguruabarretarako egoki diren zuzentasun gramatikarekin eta formaltasun-mailarekin.
- b) Solas bateko argi artikulaturiko diskurtsoei jarraiki die, eta xehetasun osoz ulertu du adierazirikoa, baita ikusizko interferentziak dituen giro batean ere.
- c) Emozio-maila desberdinak transmititu ditu, gertakari edo esperientzia batean nabarmendurik zer den garrantzitsua hiztunarentzat.
- d) Interes orokorreko gai gehienei buruzko solas luze samar batean inplikatu da, eta parte-hartze aktiboa izan du.
- e) Bere espezialitatearekin loturiko gaiei buruzko elkarrizketei jarraiki die, eta xehetasun osoz ulertu ditu solaskideak nabarmenduriko ideiak.
- f) Iritziak adierazi ditu besteen proposamenak ebaluatzeko, erantzuteko eta hipotesiak egin eta defendatzeko.
- g) Gauza jakin bat egiteko moduari buruzko deskribapen argiak eta zehatzak egin ditu, jarraibide zehatzak emanaz.
- h) Zenbait iturritako informazioa eta argudioak laburbildu ditu (azalpena, elkarrizketa eta dokumentuak, besteak beste), eta xehetasunak eskatzen dituzten galdera osagarriei erantzun die.

Edukiak.

Zeinuzko diskurtsoetako informazioa identifikatzea:

–Komunikazioa kontrolatzea. Jakin-mina adierazi eta eragitea.

- Agintera.
- Errepikatzea, galdetzea, zalantza adieraztea eta laburtzea.
- Espainiako zeinu-hizkuntzako adierazpideak: jakin-mina edo harridura, iraganeko denboren arteko aldea adieraztea.
- Jarraibide, aholku, gomendio eta konponbideak ematea.
- Baimena ematea, aginduak ematea, zerbait eskaintzea, desadostasuna adieraztea eta adeitasuna adieraztea.
- Konbentzitzea, arreta erakartzea eta ekintzara animatzea. Konbentzitzea.

Mezuak ulertzea Espainiako zeinu-hizkuntzan:

- Gorputz-jarrerak deskribatzea. Deskriptoreak edo sailkatzaileak.
- Iraganaz hitz egitea. Nahiak eta probabilitatea iraganean eta geroaldian adieraztea.
- Iraganeko denboren arteko aldea adierazteko aurpegi-adierazpenak.
- Kezka, harridura, probabilitatea, desira baten aurreko erreakzioak, deitoratzea, lasaitzea eta irmotasunez ukatu eta baieztatzea.
- Probabilitate-markatzaileak eta iraganeko partizipioaren erabilerak.
- Norbaiten edo zerbaiten existentzia adieraztea.

Mezu argiak eta ongi egituratuak adieraztea Espainiako zeinu-hizkuntzan:

- Deskribatzea eta definitzea.
- Argudiatzea: diskurtsoaren antolatzaile, deskribatzaile eta sailkatzaileak.
- Antolatzea eta argudiatzea.
- Objektu, toki eta pertsonak deskribatzea. Bigarren mailako informazioa ematea.
- Zerbait dakiten edo zerbait edo norbait ezagutzen duten galdetzea.
- Naturaren elementuak deskribatzea.
- Baloratzea eta iritzia ematea. Zerbaiti garrantzia eman edo nabarmentzea.
- Denborako bi une erlazionatzea.
- Etorkizuneko unea finkatzea.
- Denbora-loturak eta denbora-lerroetan oinarrituriko espazioa.

Espainiako zeinu-hizkuntza erabiltzea eguneroko esperientziak eta gertakariak argudiatu eta deskribatzeko:

- Azalpenak ematea eta barkamena eskatzea: etsipena adieraztea, deitoratzea eta norbait lasaitu eta kontsolatzea.
- Iritzi bat justifikatzea aurreko bat ukaturik.
- Ondorioa eta helburua adieraztea: argudio-lokailuak.
- Abantailez eta desabantailez hitz egitea.
- Aholku eta gomendioak ematea.
- Laguntza adierazi eta eskaintzea. Barkamena eskatzea.
- Gonbidapen edo eskaintza bati uko egitea.
- Desira, harridura eta esker ona adieraztea.
- Esker onaren aurrean erantzutea.
- Laguntza, zerbitzu bat edo ideia bat eskaintzea. Zoriontzia.

Espainiako zeinu-hizkuntza erabiltzea diskurtsoak adierazi eta ulertzeko:

- Iritzi eta balioak adieraztea. Sentimenduak eta lehentasunak.
- Ideia baten alde edo aurka agertzea.
- Kexa eta deitoeak adieraztea. Aholku eta gomendioak ematea.
- Adin kronologikoarekin eta eboluzio-etapekin loturiko denborazko perpausak.
- Mendeko perpaus kausalak (orainaldia, iragana eta geroaldia), espazio sintaktiko eta topografi-koarekin.
- Espazioak zehazturiko iraupen-adierazpenak eta haiekin loturiko aditzak.
- Espazioan edo gorputzean markaturiko gorputz-deskribatzaileak. Erabilera semantikoa eta pragmatikoa.
- Aurkaritzako koordinazio-konjuntzioa.
- Iritzi bat justifikatu eta argudiatzea.
- Arazoen konponbideak proposatzea. Proposamenak onartu edo baztertzea.
- Diskurtsoaren kohesioa espazio sintaktikoan ezartzen duten adierazpideak.
- Probabilitatea adieraztea eta hipotesiak formulatzea.
- Probabilitate-adierazpideak eta hipotesiak.
- Etorkizuneko proiektuak egitea.
- Espazio sintaktikoaren erabilera: zuzeneko eta zeharkako estiloak.
- Zerbaiten kausa eta ondorioak azaltzea. Barkamena eskatzea eta aitzakiak jartzea.
- Zerbait beste hitz batzuekin esatea eta ondorioak ateratzea.
- Espazio sintaktikoaren eta topografikoaren bidezko parafrasi eta itzulinguruak.

Orientabide didaktikoak.

Lanbide-modulu honek esku hartzeko/gauzatzeko eginkizunak betetzeko behar den prestakuntza biltzen du. Izan ere, beroni esker eskuratzen ahal da Espainiako zeinu-hizkuntzaren ulermen eta adierazpen aurreratua.

Esku-hartzeko/gauzatzeko funtzioak alderdi hauek biltzen ditu, besteak beste:

- Informazio-bilketa.
- Jardueraren antolaketa.
- Esku hartzeko estrategiak aplikatzea.

Eginkizun horiei loturiko lanbide-jarduerak pertsonendako zerbitzuen sektorean aplikatzen dira, azpisektore honetan:

- Komunikaziorako laguntza.

Moduluko prestakuntzak heziketa zikloaren d), e), f), h), s) eta u) helburu orokorrak eta tituluko d), e), f), h), r) eta t) gaitasunak lortzen laguntzen du.

Moduluaren helburuak lortzea ahalbidetzen duten irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko jarduera-il-doetan gai hauek landuko dira:

- Mezu konplexuak osatzea Espainiako zeinu-hizkuntzan.
- Espainiako zeinu-hizkuntzan igorritako mezu konplexuak ulertzea.
- Gai orokor ugariri buruzko solasak izatea Espainiako zeinu-hizkuntzan.
- Zeinu-hizkuntzazko banakako ekoizpenak edo solasak grabatu eta ikustea, banaka zein taldean aztertzea.

Lanbide-modulua: Komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonekin esku hartzea.

Kodea: 1117.

Baliokidetasuna ECTS kreditutan: 5.

Iraupena: 165 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1. Esku-hartzearen ezaugarriak zehazten ditu, eta haren oinarri diren komunikazio-printzipioak zehazten ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Komunikazio-bitartekaritzako esku-hartzearen esparruak aztertu ditu.
- b) Komunikazio-bitartekaritzaren testuinguruan goi-mailako teknikariak dituen eginkizunak deskribatu ditu.
- c) Komunikazioaren eta hizkuntzaren kontzeptua definitu du.
- d) Hizketaren kontzeptua definitu du.
- e) Elkarrekiko interakzioaren kontzeptua definitu du.
- f) Gizarte-interakzioak dituen zailtasunak aztertu ditu.
- g) Komunikazioan eragina duten hizkuntzaren, ahotsaren eta hizketaren arloko nahasmendu nagusiak identifikatu ditu.
- h) Komunikazioa ezartzea gehien errazten duten interakzio-motak eta -baldintzak aztertu ditu.

2. Esku-hartzearen testuinguruaren ezaugarriak zehazten ditu, eta eskura dauden baliabideak aztertzen ditu kolektiboen eta kolektiboei eragiten dien lege-esparruaren arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Esku-hartzearen lege-esparrua identifikatu du.
- b) Komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonendako zerbitzuak eskaini edo kudeatzen dituzten erakundeak identifikatu ditu.
- c) Komunikazio-desgaitasuna duen populazioaren heterogeneotasuna deskribatu du, baita horren ondoriozko komunikaziorako laguntza-sistemen eta -baliabideen heterogeneotasuna ere.
- d) Hizkuntza garatzeko zailtasunak dituzten pertsonen ezaugarri nagusiak identifikatu ditu.
- e) Inguruneak komunikazioaren bideratzaile edo inhibitzaile gisa duen eragina aztertu du.
- f) Erabiltzailearen ezaugarrien arabera hautatu du komunikaziorako laguntza-sistema edo -baliabidea.
- g) Komunikazio Bitartekaritzako goi-mailako teknikariaren printzipio etiko eta deontologikoak deskribatu ditu.

3. Komunikatzeko eta gizarte-interakziorako zailtasunak dituzten pertsonendako komunikazio-bitartekaritzako programak garatzen ditu, komunikazio-sistema eta esku hartzeko estrategiak hautaturik.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Autismoaren espektroko nahasmendua eta hizkuntzaren nahasmendu espezifikoak duten pertsonen ezaugarri kognitibo, komunikatibo eta linguistikoak deskribatu ditu.
- b) Oinarrizko komunikazio-eginkizunak eskuratzeko esku-hartzea planifikatu du.
- c) Komunikazioa, hizkuntza eta gizarte-harremanak errazteko oinarrizko estrategiei jarraikiz antolatu du esku-hartzea.

- d) Ikusizko laguntzen bidez iragarri eta egituratzearen garrantzia aztertu du.
- e) Autismoaren esparruko nahasmendua eta hizkuntzaren nahasmendu espezifikoak duten pertsonetako esku-hartze goiztiarreko komunikazio-modalitate nagusiak identifikatu ditu.
- f) Autismoaren esparruko nahasmendua eta hizkuntzaren nahasmendu espezifikoak duten pertsonekin erabiltzen diren sistema nagusien ezaugarri eta eginkizunak deskribatu ditu.
- g) Hizkuntzaren nahasmendu espezifikoak duen erabiltzailearen gaitasunen arabera hautatu du sistema egokiena.
- h) Autismoaren esparruko nahasmendua eta hizkuntzaren nahasmendu berariazkoak duten pertsonekin esku hartzeko behar diren jarrerak barneratu ditu.

4. Hizkuntza- eta hizketa-nahasmenduak dituzten pertsonetako komunikazio-bitartekaritzako programak gauzatzen ditu, komunikazio-sistema eta esku hartzeko estrategiak hautaturik.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Hizkuntzaren eta hizketaren nahasmenduak dituzten pertsonen ezaugarriak deskribatu ditu.
- b) Oinarriko komunikazio-eginkizunak eskuratu eta ulertzeko esku-hartzea planifikatu du.
- c) Komunikazioa, hizkuntza eta hizketa errazteko oinarriko estrategiei jarraikiz antolatu du esku-hartzea.
- d) Ikusizko eta eskuzko laguntzen eta laguntza teknikoen bidez iragarri eta egituratzearen garrantzia aztertu du.
- e) Komunikazio-modalitate nagusiak identifikatu ditu hizkuntzaren eta hizketaren nahasmenduak dituzten pertsonetako esku-hartze goiztiarrean.
- f) Hizkuntzaren eta hizketaren nahasmenduak dituzten pertsonekin erabiltzen diren sistema nagusien ezaugarriak eta eginkizunak deskribatu ditu.
- g) Erabiltzailearen gaitasunen eta beharren arabera hautatu du sistema egokiena.
- h) Hizkuntzaren eta hizketaren nahasmenduak dituzten pertsonekin esku hartzeko behar diren jarrerak barneratu ditu.

5. Esku-hartzearen kontrol- eta jarraipen-jarduerak egiten ditu, eta bere jarduera eta diziplinarteko taldearena atzeratzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonekin esku hartzearen helburuak betetzen diren ebaluatzearen eredu, teknika eta tresnak deskribatu ditu.
- b) Entzumen-urritasuna duten pertsonen erabiltzen dituzten laguntzak zuzen funtzionatzen duten ebaluatzearen sistemak identifikatu ditu.
- c) Diziplinarteko taldeari baliabideak egokitzeko beharrak jakinaraztearen garrantzia baloratu du.
- d) Komunikazio-gaitasunak erregistratzeko tresna propioak prestatu ditu, erabiltzaileetako esku-hartzearen ezaugarrien eta unetako arabera.
- e) Komunikazio-egoera berri bat ekartzen ahal duten erabiltzailearen beharren aldaketak identifikatu ditu.
- f) Aldian behingo erregistroak komunikazio-gaitasuna ebaluatzearen bitarteko gisa egitearen garrantzia baloratu du.
- g) Informazioaren eta komunikazioaren teknologia erabili ditu ebaluazio-txostenak eta memoriak lantzeko eta aurkezteko.
- h) Diziplinarteko taldeari informazioa transmititzearen garrantzia aztertu du.

Edukiak.

Esku-hartzearen ezaugarriak zehaztea:

–Esku hartzeko esparruak aztertzea:

- Familia.
- Ikastetxea.
- Zerbitzuak eta/edo gizarte-zentroak eta elkarteak.
- Laneratzeko zerbitzuak edo lantokia.

–Komunikazio Bitartekaritzako goi-mailako teknikariaren eginkizunak:

- Diziplina anitzeko lantaldean.
- Bitartekaritzaren testuinguruan.

–Komunikazio-prozesua.

–Komunikazioaren elementuak.

–Hizkuntza eskuratzeko mekanismoak.

–Hizkuntza eskuratu eta ekoizteko zailtasunak.

–Hizkuntzarekin loturik dauden eginkizun sinbolikoaren eta gaitasun sozialaren nahasmenduak.

Esku-hartzearen testuingurua ezaugarritzea:

–Lege-esparrua.

–Esku-hartzearen kolektiboarekin loturiko erakundeak identifikatzea:

- Osasuna.
- Hezkuntza.
- Gizarte Zerbitzuak.
- Enplegua.
- Aisia eta astialdia.

–Komunikazio-zailtasunak dituen populazioaren heterogeneotasuna zehazten duten aldagaiak aztertzea:

- Definizioa.
- Etiologia.
- Bilakaera.
- Desgaitasunaren izaera bakarra edo anizkoitza.
- Ingurumeneko faktoreak.

–Komunikatzeko eta interakzio sozialerako zailtasunak dituzten pertsonak: autismoaren espektroko nahasmenduak. Larritasun-mailak.

–Komunikazioaren eta hizkuntzaren nahasmendu larriak.

–Hizkuntzaren garapenaren nahasmenduak dituzten pertsonak.

–Hizkuntza-zailtasunak dituzten pertsonak.

–Hizketako soinuen nahasmenduak.

–Adimen-desgaitasunaren ondoriozko nahasmenduak.

–Entzumen-desgaitasuna eta protesiak dituzten pertsonak.

–Ahozko hizkuntza eskuratzeko zailtasunak dituzten pertsonak.

–Harturiko hizkuntza-zailtasunak dituzten pertsonak: afasiak.

- Desgaitasuna duen populazioko intzidentzia. Estatistikak.
- Inguruneak komunikazioan duen zeregina.

Komunikatzeko eta gizarte-elkarreraginerako zailtasunak dituzten pertsonendako komunikazio-bitartekaritzako programak garatzea:

- Autismoaren espektroko nahasmendu, hizkuntzaren eta komunikazioaren garapenaren nahasmendu eta hizkuntzaren nahasmendu espezifikoaren kasuko gizarte-harremanak aztertzea.
- Oinarrizko komunikazio-eginkizunak.
- Komunikazioan eta hizkuntzan esku hartzeko estrategia orokorrak autismoaren esparruko nahasmenduen eta hizkuntzaren nahasmendu espezifikoaren kasuetan:
 - Errorerik gabeko ikaskuntza, esanguratsua eta ingurune naturaletakoa.
 - Funtzionaltasuna.
 - Ingurumen-murrizketa minimoaren printzipioa.
 - Orokortzea.
 - Laguntza fisikoak: moldekatzea eta laguntza kentzea.
 - Errutinak ikasteko modu gisa.
- Ikusizko laguntzen bidez iragarri eta antolatzea: Egituratzeko fisikoa.
- TEACCH metodoa. Denbora-egitura, iragartzeko sistema gisa.
- Ikusizko agendak. Ikusizko laguntzen oinarrizko ezaugarri eta erabilera-irizpideak.
- Esku-hartze goiztiarreko komunikazio-modalitateak:
 - Jokabide instrumentalak.
 - Begiradaren erabilera komunikatiboa.
 - Seinalatzeko keinuak.
 - Keinu naturalak.
- Komunikazioko eta gizarte-interakzioko arazoak dituzten pertsonen erabiltzen dituzten komunikazio-sistema nagusiak:
 - Schaeffer.
 - Irudi-trukean oinarrituriko sistemak.
 - Lagunduriko hizkuntza naturala (jaso dugun ikastaroaren ondotik)
 - Komunikazio bimodala.
 - Zeinu-hizketa.
- Sistema bat edo bestea hautatzeko irizpideak, hizkuntzaren nahasmendu espezifikoak, hizkuntzaren eta komunikazioaren garapenaren nahasmendua edo komunikazio-premia konplexuak dituzten pertsonen ezaugarrien arabera.
- Hizkuntzaren nahasmendu espezifikoak, hizkuntzaren eta komunikazioaren garapenaren nahasmendua edo komunikazio-premia konplexuak dituzten pertsonekin esku hartzeko jarrera zuzenak.

Hizkuntzaren eta hizketaren nahasmenduak dituzten pertsonendako komunikazio-bitartekaritzako programak garatzea:

- Hizkuntzaren eta hizketaren nahasmenduak dituzten pertsonen ezaugarriak:
 - Entzumen-desgaitasuna.
 - Desgaitasun intelektuala.
 - Mugimen-afekzioak.

- Anartriak.
 - Disartriak.
 - Disglosiak.
 - Afasiak.
 - Hitzezko apraxia.
 - Harturiko kalte zerebrala.
 - Esklerosi anizkoitza eta alboko esklerosi amiotrofikoa.
 - Alzheimerra.
 - Beste eritasun neurodegeneratibo batzuk.
- Gutxieneko komunikazio-seinaleak aztertzea.
- Hizkuntza- eta hizketa-mailen arabera esku hartzeko estrategia espezifikoak:
- Komunikazio-irisgarritasuna.
 - Egokitzen akustikoak.
 - Autonomia.
- Ahozko komunikaziorako laguntza-bitartekoak:
- Ezpain-irakurketa.
 - Ikusizko agendak.
 - Azpititulatzea.
- Esku-hartze goiztiarreko komunikazio-modalitateak:
- Negarraren, irribarrearen, begiradaren eta keinuen erabilera komunikatiboa.
 - Keinu naturalak eta ikasiak.
 - Jolas sinbolikoa.
- Komunikazioaren eta hizketaren nahasmenduak dituzten pertsonendako laguntza-sistema hautatzeko irizpideak.
- Hizkuntzaren eta hizketaren nahasmenduak dituzten pertsonekin esku hartzeko jarrera zuzenak.
- Esku-hartzearen kontrol- eta jarraipen-jarduerak egitea:
- Kalkulu-orriak prestatzea:
- Komunikazio-eginkizunak erregistratzea.
 - Adierazpen-hiztegia erregistratzea.
 - Hiztegi konprentsiboa erregistratzea.
- Komunikazio-testuinguruak erregistratzea:
- Familiak.
 - Eskola.
 - Aisia eta astialdia.
 - Enplegua.
- Laguntza tekniko pertsonalen funtzionamendua egiaztatzea:
- Kokleako inplantea.
 - Entzumen-protesiak.
- Laguntza tekniko kolektiboen funtzionamendua egiaztatzea:
- Maiztasun-modulazioa.

- Begizta magnetikoa.
 - Komunikazioko-seinale elektronikoak.
- Baliabideak egokitzeko premiak identifikatzea.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea memoriak eta txostenak idazteko.
- Hizkuntza- eta komunikazio-zailtasun konplexuak dituzten pertsonekin esku hartzean diziplina anitzeko taldeari informazioa transmititzeak duen garrantzia.

Orientabide didaktikoak.

Lanbide modulu honek eskaintzen duen prestakuntzaren bidez, ikasleek behar diren trebetasun sozialak eskuratuko dituzte, laguntzaren arloko lanbidea garatu eta beste pertsona batzuekiko lanbide harremanetan behar bezala aritu ahal izateko, euren portaera haien ezaugarrien eta testuinguruaren arabera egokituta.

Profesional hori harremanak eratzen ari da etengabe. Harreman horiek une eta testuinguru ezberdinetan sor daitezke, eta banakakoak eta/edo taldekoak izan daitezke; hortaz, profesionalak komunikazio gaitasunak izan behar ditu eta bere jarrerak eta emozioak modu egokian kudeatzen jakin.

Halaber, gatazkak kudeatzeko funtzioari ere erantzun nahi dio.

Modulua bi ardatz edo multzotan egituratzen ahal da. Bi ardatz horiek aldi berean ematen ahal dira, ordu eta erdiko saioetan:

Ikasle-taldeari aukera ematen zaio norberaren gizarte-eta komunikazio-trebetasunak probatzeko: entzutea, enpatia, norberak harturiko erabakiei buruzko gogoeta eta autoebaluazioa, eta banakako nahiz taldekako prestakuntza-prozesuan sortzen diren gatazken konponketa.

Ebaluazio-funtzioa ere lantzen ahal da; hau da, norberaren zereginak burutzean besteekin modu egokian aritzeko behar den gaitasun soziala eskuratzeko bilakaeraren kontrola eta jarraipena egitea. Horrez gain, gatazkak kudeatzeko eta haiei aurre egiteko funtzioa ere lantzen ahal da. Funtzio horrek, hain zuzen, bitartekaritza- eta negoziazio-mekanismoak martxan jartzea hartzen du barnean.

Espazio horrek konfidentziala behar du izan, eta noiz eta zer neurritan parte hartu nahi den hautatzeko askatasuna errespetatu behar da.

Prozedurazko eta jarrerazko alderdiak ebaluatzeko, funtsezkoa da ikasleek gelan egin duten lanaren ebaluazioa edukitzea, baita gogoetaren ondoriozko autoebaluazioa ere.

Lanbide-modulua: Komunikazioan esku hartzeko teknikak.

Kodea: 1118.

Baliokidetasuna ECTS kreditutan: 10.

Iraupena: 195 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1. Erabiltzaileen eskubideak errespetatuz hartzen du esku komunikazio-bitartekaritzako egoeretan, eta komunikazio-bitartekaritzaren arau profesionalen, printzipioen eta oinarrien ezaugarriak zehazten ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gorrekin, gor-itsuekin eta entzumen-urritasuna duten pertsonekin egiten diren bitartekaritza-prozesuen printzipioak deskribatu ditu.
- b) Komunikazio Bitartekaritzako goi-mailako teknikariaren aurkezpenari eta jarrerari buruzko arau profesionalak deskribatu ditu.
- c) Erabiltzailearekiko tratua inguruko harreman profesionalak deskribatu ditu.
- d) Bitartekaritza-prozesua gauzatzeari buruzko arauak eta printzipioak aplikatzeko gorrekin, gor-itsuekin eta entzumen-desgaitasuna duten pertsonekin behar diren komunikazio-bitartekaritzako mekanismoak eta trebetasunak baloratu ditu.
- e) Zenbait komunikazio-egoeraren aurrean, modalitate, mota eta tresna egokienak hautatu ditu gorrekin, gor-itsuekin eta entzumen-desgaitasuna duten pertsonekin bitartekaritza egiteko.

2. Zeinu-hizkuntza erabiltzen duten pertsonetik bitartekaritza-prozesua antolatzen du, egoeretako komunikazio-testuingurua eta komunikazio-baliabideak eta -estrategiak aztertutik eguneroko egoeretan.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Beren zerbitzuak eskatzen ahal diren egoera bakoitzaren arteko desberdintasunak identifikatu ditu.
- b) Erabiltzaileekin bitartekaritza egiteko behar diren teknika eta estrategiak hautatu ditu, testuinguru edo egoera bakoitzera egokitutik.
- c) Komunikazio-bitartekaritzako egoera bakoitzerako egokiak diren laguntza-baliabide eta laguntza tekniko eta pertsonalak zehaztu ditu.
- d) Erabiltzailearen komunikazio-beharrei buruzko informazioa eskuratzeko bideak identifikatu ditu.
- e) Informazio-gabeziak eta bitartekaritzarako behar den hiztegia aurreikusi ditu.
- f) Zerbitzu bakoitzerako behar den informazioa hautatu eta aztertu du.
- g) Informazioa biltzeko tresnak prestatu ditu.
- h) Esku hartzeko prozesuan alde aurreko antolaketa duen garrantzia baloratu du.

3. Zeinuzko mezuak igortzen ditu edozein komunikazio-kanal edo -koderatik abiatutik, esku-hartzearen testuinguruaren arabera, komunikazio-bitartekaritzako teknikak aztertu eta ezarritik.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Espainiako zeinu-hizkuntzaren adierazpen-baliabideak hautatu ditu edozein komunikazio-kanal edo -koderen bidez mezuak ondoz ondo transmititzeko.
- b) Espainiako zeinu-hizkuntzaren adierazpen-baliabideak hautatu ditu edozein komunikazio-kanal edo -koderen bidez mezuak aldi berean transmititzeko.

- c) Espainiako zeinu-hizkuntza erabiltzen duten gorrekin, gor-itsuekin eta entzumen-desgaitasuna duten pertsonekin edo komunikazio-, hizkuntza- eta hizketa-zailtasunak dituzten pertsonekin bitartekaritza egiteko behar diren atxikipen-, oroimen-, pertzepzio- eta kontzentrazio-estrategiak barneratu ditu.
 - d) Espainiako zeinu-hizkuntza erabiltzen duten gorrekin, gor-itsuekin eta entzumen-desgaitasuna duten pertsonekin edo komunikazio-, hizkuntza- eta hizketa-zailtasunak dituzten pertsonekin bitartekaritza egiteko behar diren atxikipen-, oroimen-, pertzepzio- eta kontzentrazio-estrategiak aplikatu ditu.
 - e) Komunikazio-kanal edo -kode baten berezko adierazpen-baliabideak hautatu ditu Espainiako zeinu-hizkuntzaren bidez mezuak transmititzeko.
 - f) Espainiako zeinu-hizkuntzaren zeinuak aplikatu ditu, eta sistema egokienak erabili ditu.
 - g) Komunikazio-kanal edo -kode batean eta Espainiako zeinu-hizkuntzan mezuak transmititzean komunikazio-bitartekaritzari arau profesionalak aplikatzearen garrantzia baloratu du.
4. Zeinuzko mezueta oinarrituriko ahozko mezuak edo, hala badagokio, idatziak igortzen ditu, komunikazio-bitartekaritzaren eta esku-hartzearen testuinguruaren arabera adierazpen-teknikak aztertutako eta ezarritak.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Espainiako zeinu-hizkuntzaren berezko zenbait adierazpen transmititu ditu esku-hartzearen testuinguruaren arabera, eta sistema egokienak erabili ditu.
 - b) Kontzentrazio-teknikak erabili ditu zeinuzko mezuak hautemateko.
 - c) Atxikipen- eta oroimen-teknika egokiak aplikatu ditu ondoz ondoko transmisiorako.
 - d) Zeinuzko mezuetaarako atxikipen- eta oroimen-teknika egokiak aplikatu ditu aldi bereko transmisio-egoeretan.
 - e) Hizkuntzaren adierazpen-baliabideak hautatu ditu Espainiako zeinu-hizkuntzan mezuak ondoz ondo transmititzeko.
 - f) Komunikazio-kanal edo -kode baten berezko adierazpen-baliabideak hautatu ditu Espainiako zeinu-hizkuntzaren bidez mezuak aldi berean transmititzeko.
 - g) Espainiako zeinu-hizkuntzaren bidez mezuak ondoz ondo transmititzeari arau profesionalak aplikatzearen garrantzia baloratu du.
5. Komunikazio-bitartekaritza ebaluatzen du, ebaluazio-teknikak eta -erregistroak esku-hartzearen testuinguruarekin loturik.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Erabiltzaileekiko bitartekaritza-prozesuko plangintza-akatsak erregistratu ditu.
- b) Erabiltzaileekiko zenbait bitartekaritza-teknika aztertutako, erabiltzailearen eta egoeraren arabera.
- c) Bitartekaritzan zenbait laguntza-baliabide erabili ditu, erabiltzaileari egokiturik.
- d) Erabiltzaileekiko bitartekaritzako akatsak identifikatu ditu, eta adierazi du kasu bakoitzean zer aldaketak behar diren.
- e) Komunikazio-egoeren ikus-erregistroak egin ditu.
- f) Etengabeko prestakuntzaren garrantzia baloratu du.
- g) Bere zerbitzuen kalitatea hobetzeko eta lanbidea garatzen laguntzeko baliabideak mobilizatzearen eta sortzearen garrantzia argudiatu du.
- h) Laneko segurtasun- eta higiene-arauen garrantzia baloratu du, eta prebentzio-jarduerak arrisku-egoerekin lotu ditu.

Edukiak.

Komunikazio-bitartekaritzako egoeretan esku hartzea:

–Erreferentziazko arau profesionalak; jarrera eta aurkezpena:

- Janzkera hautatzea.
- Puntualtasuna.

–Erabiltzaileekiko bitartekaritzarako komunikazio-prozesuaren garapenari buruzko arau eta printzipioak.

–Kokapena hautatzea.

- Mezuen interpretazioaren leialtasuna:
- Neutraltasuna.

–Erabiltzailearekiko tratuarekin loturiko harreman profesionalak:

- Konfidentzialtasun-alderdiak.
- Autonomiarekin loturikoak.
- Jokabide egokia.

–Erabiltzaileekiko bitartekaritza-prozesuen printzipioak:

- Motak.
- Modalitateak.
- Klaseak.

–Komunikazio-bitartekaritzaren berezko metodo eta tresnak.

–Komunikazio-bitartekariaren profila. Interpretearekiko eta gidatzaile-interpretearekiko harremana. Ezaugarri pertsonal, intelektual eta etikoak. Ezagutza orokorrak. Komunikazio-bitartekariak erabiltzaileekin duen zeregina.

Zeinu-hizkuntza erabiltzen duten pertsonetikiko bitartekaritza-prozesua antolatzea:

–Erabiltzaileekiko komunikazio-bitartekaritzako egoerak.

–Zerbitzuak, oro har.

–Zerbitzu espezifikoak:

- Administrazio-esparrua.
- Hezkuntzaren esparrua.
- Lan-esparrua:
- Osasungintzaren esparrua.
- Aisia eta astialdia.
- Beste premia batzuk.

–Erabiltzaileekin bitartekaritza egiteko teknika eta estrategiak:

- Arreta eta kontzentrazioa.
- Memoria.
- Oharrak hartzea.
- Buru-bizitasuna.
- Hitz-jarioa.

–Lexikoa sortzeko baliabideak.

–Komunikazio-bitartekaritzari aplikaturiko interpretazio-metodoak, testuinguru edo egoera bakoitzari egokituak.

- Definizioa eta ezaugarriak.
- Interpretazioa, informazioa eskuratzeko eta komunikazio- eta kultura-interakzioa erdiesteko bide gisa.
- Ondoz ondoko transferentzia.
- Aldibereko transferentzia.
- Telefono bidezko interpretazioa eta, hala badagokio, bideotefono bidezkoa.
- Testu idatziak interpretatzea.
- Erabiltzaileekiko komunikazio-bitartekaritzako jarduera prestatzea:
 - Zerbitzu-mota.
 - Erabiltzaileen ezaugarri eta beharrak.
 - Lanbide- eta lan-arauak.

Zeinuzko mezuak sortzea:

- Komunikazio-bitartekaritzako jarduerak: interpretazioa, itzulpena, telefonokoa eta laburtzea, besteak beste.
- Edozein komunikazio-kanal edo -kodematik Espainiako zeinu-hizkuntzarako ondoz ondoko komunikazio-bitartekaritza. Ahozko hizkuntzatik Espainiako zeinu-hizkuntzarako ondoz ondoko komunikazio-bitartekaritza.
- Edozein komunikazio-kanal edo -kodematik Espainiako zeinu-hizkuntzarako aldibereko komunikazio-bitartekaritza. Ahozko hizkuntzatik Espainiako zeinu-hizkuntzarako aldibereko komunikazio-bitartekaritza.
- Komunikazio-bitartekartzaren berezko laguntza-teknika, -tresna eta -baliabideak.
 - Mezua: edukia, testuingurua, izaera emozionala, estiloa eta erregistroa.
 - Pertzepzioa. Ikusmena eta entzumena.
 - Lotura-sistemak: arreta eta memoria.
 - Ulermena: azterketa linguistikoa, irudi mentalak eratzea eta norberak ideia bat berregituratzea.
 - Interpretazioa: jatorrizko mezua xede-hizkuntzan birformulatzea eta mezua xede-hizkuntzan sortzea.
 - Inplikaturiko giza baliabideak.
- Espainiako zeinu-hizkuntzaren adierazpen-baliabideak.
- Atxikipen-, oroimen-, pertzepzio- eta kontzentrazio-estrategiak.

Zeinuzko mezuetan oinarriturik ahozko edo idatzizko mezuak igortzea:

- Adierazkortasunerako baliabideak.
 - -Intonazioa:
 - Erritmoa.
 - Ahoskatzea.
- Erabiltzaileekiko bitartekartzaren berezko laguntza-teknika, -tresna eta -baliabideak.
- Zeinuzko mezuak hautemateko kontzentrazio-teknikak.

Komunikazio-bitartekaritza ebaluatzea:

- Autoebaluaziorako baliabide eta estrategiak.
- Laguntza-baliabideak.

- Ebaluazioko eragileak.
 - Talde-lana.
 - Erabiltzailea.
- Akats ohikoenak:
 - Akats linguistikoak.
 - Akats ez-linguistikoak.

Orientabide didaktikoak.

Lanbide-modulu honek komunikazio-bitartekaritza antolatzeke, esku hartzeke/gauzatzeko eta ebaluatzeke eginkizunak betetzeko behar den prestakuntza biltzen du. Izan ere, beroni esker ezagutzen ahal dira bitartekaritzari aplikaturiko interpretazio-estrategia eta -teknikak.

Antolaketa-funtzioak honelako alderdiak biltzen ditu:

- Beharrak hautematea.
- Programazioa.
- Txostenak egitea.

Esku-hartzeke/gauzatzeko funtzioak alderdi hauek biltzen ditu, besteak beste:

- Informazio-bilketa.
- Jardueraren antolaketa.
- Esku hartzeke estrategiak aplikatzea.
- Jardueren kontrola, jarraipena eta ebaluazioa.
- Loturiko dokumentazioa prestatu eta betetzea.

Ebaluazio-funtzioak esku-hartzea bere osotasunean kontrolatzeko eta haren jarraipena egiteko diseinatutako prozedurak inplementatzeari egiten dio erreferentzia.

Eginkizun horiei loturiko lanbide-jarduerak pertsonendako zerbitzuen sektorean aplikatzen dira, azpisektore honetan:

- Komunikaziorako laguntza.

Moduluko prestakuntzak heziketa zikloaren d), f), h), l), r) eta u) helburu orokorrak eta tituluko d), f), h), l), r) eta t) gaitasunak lortzen laguntzen du.

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan moduluaren helburuak lortzeko bidea emanen duten lan-ildoak hauek dira:

- Komunikazio-bitartekaritzako esku-hartzeak antolatu, gauzatu eta ebaluatzeke talde-lana.
- Zeinu-hizkuntzazko banakako ekoizpenak edo solasak grabatu eta ikustea, banaka zein taldean aztertzeke.

Lanbide-modulua: Komunikazio-sistema handigarriak eta alternatiboak.

Kodea: 0343.

Baliokidetasuna ECTS kreditutan: 11.

Iraupena: 130 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1. Erabiltzailearen komunikazio-premiak hautematen ditu, eta komunikazio-sistema handigarriekin eta alternatiboekin erlazionatu ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Erabiltzailearen komunikazio-beharrak identifikatu ditu.
- b) Komunikazio-prozesua errazten duten baliabideak identifikatu ditu.
- c) Komunikazioak pertsonen eguneroko jardunean duen eragina aztertu du.
- d) Komunikazio-sistema bat edo bestea hautatzea eragiten duten alderdiak deskribatu ditu, erabiltzailearen ezaugarri motor, kognitibo eta jarrera-arlokoen arabera.
- e) Komunikazioa ezartzea gehien errazten duten interakzio-motak eta baldintzak aztertu ditu.
- f) Komunikazio-sistema handigarriak eta alternatiboak zuzen erabiltzea oztopatzen ahal duten kanpoko elementuak identifikatu ditu.
- g) Familiaren eta inguruko inplikazioa sustatzeko estrategiak aplikatu ditu, komunikazio-sistema handigarrien eta alternatiboen bidezko esku-hartzean.
- h) Zaintzaileei eskainitako informazio eta orientabide nagusiak aztertu ditu, ezarritako komunikazio-portaerak orokortzea erraztuz.

2. Komunikazioa indartzeko esku-hartzea antolatzen du, erabiltzailearen eta testuinguruaren ezaugarriak interpretatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Esku-hartzeetan komunikazioak duen garrantzia nabarmendu du.
- b) Helburuak zehaztu ditu, erabiltzailearen beharren arabera.
- c) Esku-hartzea egiten den ingurunean komunikazioaren testuingurua aztertu du.
- d) Esku-hartzearen proposamen desberdinetarako komunikazio-estrategiak eta metodologiak hautatu ditu.
- e) Esku-hartze prozedura egokiak identifikatu ditu.
- f) Komunikazio-sistema handigarriak eta alternatiboak hautatu ditu, aurreikusitako helburuen arabera. Laguntza tekniko egokiak identifikatu ditu.
- g) Esku-hartzea komunikaziorako laguntzaren esparruan antolatzeak duen garrantzia baloratu du.

3. Esku-hartze programak aplikatzen ditu komunikazioaren esparruan, sistema handigarri eta alternatibo lagunduak erabiliz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Lagundutako komunikazio-sistema alternatibo nagusien oinarritzko erabilerak eta ezaugarriak deskribatu ditu.
- b) Mezuak sortu ditu lagundutako komunikazio-sistemen bidez, erabiltzaileari bideratutako komunikazioa eta arreta erraztuz.

- c) Gizarte- eta hezkuntza-arretan ohikoak diren egoeretan erabiltzen diren zeinu nagusiak deskribatu ditu.
- d) Lagundutako komunikazio-sistemen bitartez adierazitako mezuak ulertu ditu.
- e) Beharrezkoak diren doikuntzak egin ditu, erabiltzaileen ezaugarri bereizgarrien arabera.
- f) Karakterizatutako kasu praktikoetan aplikatzen ahal diren laguntza teknikoak identifikatu ditu, hala nola bete beharreko kokapen- eta erabilera-baldintzak ere.
- g) Komunikazio-estrategiak aplikatu ditu, hainbat testuinguru aztertuta.
- h) Sinboloen eta piktogramen kopurua handitzearen garrantzia aztertu du, erabiltzaileen interesak eta beharrak aintzat hartuta.
- i) Hirugarrenen parte-hartzea beharrezkoa duten sistemak zuzen erabiltzen ote diren egiaztatu du.

4. Esku-hartze programak aplikatzen ditu komunikazioaren esparruan, zeinu-hizkuntza eta laguntza gabeko sistema handigarri eta alternatiboak erabiliz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Laguntza gabeko sistema alternatiboen oinarrizko egiturak eta arreta sozioedukatiboko ohiko egoeretan erabilitako zeinu nagusiak deskribatu ditu.
- b) Mezuak sortu ditu laguntza gabeko komunikazio-sistemen eta zeinu-hizkuntzaren bidez, erabiltzaileekiko komunikazioa eta arreta erraztuz.
- c) Beharrezkoak diren doikuntzak aplikatu ditu, erabiltzaileen ezaugarri bereizgarrien arabera.
- d) Zeinu-hizkuntzaren eta laguntzarik gabeko komunikazio-sistemen bitartez adierazitako mezuak ulertu ditu.
- e) Komunikazio-estrategiak aplikatu ditu, hainbat komunikazio-testuinguru aztertuta.
- f) Zeinuen kopurua eta haien edukia handitzearen garrantzia aztertu du, erabiltzaileen interesak eta beharrak aintzat hartuta.
- g) Hirugarrenen parte-hartzea beharrezkoa duten sistemak zuzen erabiltzen ote diren egiaztatu du.

5. Esku-hartzearen eraginkortasuna egiaztatzen du, eta komunikazioaren esparruan hobetu daitezkeen alderdiak hautematen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Erabiltzaileak komunikazio-sistema nagusietan duen komunikazio-gaitasunaren maila erregratu du.
- b) Hautatutako komunikazio-sistema osatzen duten elementuen erabilera zuzena egiaztatu du.
- c) Aplikatutako komunikazio-sistematik kanpokoak diren eta komunikazioko esku-hartzea oztopatzen ahal duten hainbat elementu erregratu ditu.
- d) Erabiltzaileen eta ezarritako komunikazio-sistemaren arteko ez-egokitzeak identifikatu ditu.
- e) Ezarritako helburuen betetze-maila aztertu du.
- f) Baloratu da komunikazio-erregistroak egiteak zenbateko garrantzia duen erabiltzaileen komunikazio-gaitasuna ebaluatzeko bitarteko gisa.

Edukiak.

Erabiltzaileen komunikazio-beharrak hautematea:

–Beharren balorazioa eta esku-hartze prozesua:

- Komunikazio-testuinguruak.

- Ingurunearen komunikazio-egitura.
 - Profesionalen komunikazio-espektatibak eta -jarrerak.
- Komunikazio-sistemak:
- Ingurune-baldintzak egokitzea.
 - Komunikazio-sistema erabiltzaileari egokitzea.
- Komunikazio handigarria eta alternatiboa:
- Kontzeptua.
 - Erabilera-estrategiak.
 - Prozesuan eragina duten kanpoko elementuak.
 - Komunikazio-sistema alternatiboa hautatzeko prozesua.
- Lagundutako eta laguntza gabeko komunikazioa.
- Komunikazio handigarriko hautagaiak:
- Lagunduriko komunikazio-sistemak hautatzean eragina duten aldagaiak, erabiltzaileen ezau-garrien arabera.

Esku-hartzearen antolaketa:

- Komunikazioan esku-hartzeko proiektuak:
- Komunikaziorako oinarritzko jarraibideak.
- Komunikazioa sustatzeko programa espezifikoak.
- Komunikazio-sistema alternatiboak eta handigarriak ezartzean kontuan hartu beharreko jarraibideak.
- Esku hartzeko estrategiak.
- Baliabideak eta jarduerak antolatzea.
- Errutina eta testuinguru adierazgarriak ezartzea.

Lagundutako komunikazio sistema alternatiboak aplikatzea:

- Sistema nagusien ezaugarriak.
- SPC sistema erabiltzea.
- Bliss sistema erabiltzea.
- Laguntza bidezko komunikazio-sistema handigarriak eta alternatiboak: teknologia baxukoak, ertainekoak eta altukoak.
- Komunikaziorako sinbolo-motak.
- Piktografikoak.
 - Arbitrarioak.
 - Ideografikoak.
- Kodeak ezartzea eta erabiltzea:
- Koloreak.
 - Sinboloen kokapena.
- Lagundutako komunikazio sistemak eskuratzeko modua.
- Lagundutako komunikaziorako bestelako sistema ez-estandarizatuak erabiltzea.
- Komunikatzeko taulak prestatzea.
 - Teknologia-maila altuko eta baxuko laguntzak. Laguntza teknologikoak erabiltzea.

- Teknologia-maila altuko eta baxuko laguntzak.
- Sistema erabiltzaileari nola egokitzen zaion baloratzea.

Laguntza gabeko komunikazio-sistemak aplikatzea:

- Laguntzarik gabeko komunikazio-sistema handigarriak eta alternatiboak: eskuzko zeinuak, sistema bimodalak (Makaton, Schaeffer), hitz osatua, keinuak.
- Zeinu-hizkuntza: egitura, parametroak eta sailkatzaileak.
- Zeinu-hizkuntzaren erabilera:
 - Kontzeptuak eta ezaugarriak.
 - Hiztegi tematikoa. Sistema bimodala erabiltzea: Kontzeptuak eta ezaugarriak.
- Sistema bimodala erabiltzea.
- Laguntza gabeko komunikaziorako beste sistema batzuk erabiltzea, orokortu gabeak:
 - Mimika.
 - Keinu naturalak.
 - Daktilologia.
 - Begi-mugimenduak.
 - Esku-ahurreko idazkera.
- Sistema erabiltzaileari nola egokitzen zaion baloratzea.

Komunikazio-sistemaren eraginkortasuna egiaztatzea:

- Adierazle adierazgarriak komunikazio-gaitasunen erregistroan.
 - Adieraziriko zeinuen kopurua.
 - Ulerturiko zeinuen kopurua.
 - Daktilologikoan adierazi eta hartzeko abiadura.
 - Irakurketa-idazketan oinarrituriko sistemetako letra-tipoaren tamaina.
- Komunikazio-gaitasunak erregistratzeko sistemak, ebaluatu beharreko elementuen arabera:
 - Motak.
 - Erregistroak betetzea.
 - Informazioa transmititzea.
- Komunikazio-sistemaren doikuntza edo aldaketa ezartzen duten irizpideak.
 - Funtzio mentalen narriadura.
 - Patologia sentsozialak larriagotzea.
 - Komunikazio-gaitasunak orokortzeko zailtasunak.

Orientabide didaktikoak.

Modulu honen bidez, ikasleek pertsonen ezaugarri eta mekanismo psikologikoetan eta testuinguru sozial eta kulturalen aniztasunean oinarritutako ezagutzak eta esperientziak landu eta asimilatzen ahal dituzte, eta orobat gizartearen prozesu dinamikoa eta etengabeko transformazioa, teknologia berrien agerpena gizarte-harremanetako forma berrietan eta komunikazio-, interakzio- eta ezagutza-testuinguruak sortzeko modu berrietan.

Esku-hartze sozialaren xede den errealitateari eta praktikari buruzko hausnarketa eta etengabe egokitzea testuinguru sozial aldakorren arabera funtsezko osagaiak dira Komunikazio Bitartekaritzako goi-mailako teknikariaren errealitate profesionalera egokitze eta doitzeko.

Zeharkako jarduera gisa, komeni da baloratzea etika profesionalak ingurune bereizietan hartzen dituen ezaugarriak aztertzeke aukera:

- Profesionalen erantzukizuna.

- Oinarrizko printzipioak: pertsonaren duintasuna, etikaren printzipioak, autonomiarekiko errespetua, intimitatea-pribatutasuna-konfidentziasuna, datuen babesa, gatazkei aurre egiteko modua.

Lanbide-modulua: Trebetasun sozialak.

Kodea: 0017.

Baliokidetasuna ECTS kreditutan: 6.

Iraupena: 130 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1. Ingurunearekiko komunikazioa eta harreman sozialak errazteko estrategiak eta teknikak ezartzen ditu, eta adimen emozionalaren eta sozialaren printzipioekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Adimen emozionalaren eta sozialaren printzipioak deskribatu ditu.
- b) Lanbidearen jardunean trebetasun sozialek duten garrantzia balioetsi du.
- c) Komunikazio-prozesu baten etapen ezaugarriak zehaztu ditu.
- d) Komunikazio-estiloak eta haien abantailak eta mugak identifikatu ditu.
- e) Pertsonen arteko harremanetan hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa erabiltzeak duen garrantzia balioetsi du.
- f) Zereginak esleitzeko, argibideak jasotzeko eta ideiak edo informazioa trukatzeko komunikazio eraginkorra ezarri du.
- g) Egoerari egokitutako trebetasun sozialak erabili ditu, kultura-aniztasuna kontuan izanda.
- h) Pertsonak ez epaitzeko eta haien berezitasunak (emozioak, sentimenduak, nortasuna) errespetatzeko interesa erakutsi du.
- i) Jarrera positiboa erakutsi du aldaketarekiko eta gertatzen den guztitik ikasteko.
- j) Pertsonen arteko harreman eta komunikazio egokirako trebetasunak garatzeko autokritikak eta autoebaluazioak duten garrantzia balioetsi du.

2. Talde-lana dinamizatzen du, teknika egokiak aplikatuta eta haien aukeraketa justifikatuta, taldearen ezaugarrien, egoeraren eta helburuen arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Talde baten funtsezko elementuak, egitura eta dinamika deskribatu ditu, bai eta haiek aldatzen ahal dituzten faktoreak ere.
- b) Taldeen dinamizazio- eta funtzionamendu-teknikak aztertu eta hautatu ditu.
- c) Talde-lanak bakarkako lanarekiko dituen alde onak azaldu ditu.
- d) Talde batean izaten ahal diren rolak eta haien arteko loturak bereizi ditu.
- e) Taldeko komunikazioaren oztopo nagusiak identifikatu ditu.
- f) Askotariko jarduera-estrategiak proposatu ditu, lidergo-funtzioa eta rolak aprobetxatzeko taldearen egituran eta funtzionamenduan.
- g) Zereginen banaketa zehaztu du talde-laneko prozedura gisa.
- h) Jarrera toleranteak eta enpatiak taldearen konfiantza lortzeko duten garrantzia balioetsi du.
- i) Lan-giro lasaia eta lankidetzakoa lortu du.
- j) Norberarenaz bestelako iritzia eta taldearen erabakiak errespetatu ditu.

3. Bilerak zuzentzen ditu, bildutakoen eta testuinguruaren arabera erabiltzen ahal diren esku-hartze eta antolaketako moduak eta estiloak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Bilera-motak eta bakoitzaren eginkizunak deskribatu ditu.
- b) Bilera baten garapenaren etapak deskribatu ditu.

- c) Bilerak moderatzeko teknikak aplikatu eta justifikatu ditu.
- d) Ideiak argi eta labur adierazteko gaitasunaren garrantzia frogatu du.
- e) Bilera baten arrisku-faktoreak eta sabotaje posibleak deskribatu ditu, eta haiek ebazteko es-
trategiak justifikatu ditu.
- f) Bilera-deialdietan informazio egokia eta askotarikoa emateko beharra balioetsi du.
- g) Bileretan parte hartzea lortzeko motibazioak eta erabilitako estrategiek duten garrantzia des-
kribatu du.
- h) Bilera bati buruzko informazioa biltzeko eta haren emaitzak ebaluatzeko teknikak aplikatu ditu.
- i) Bilerak gidatzean errespetu eta tolerantziatzeko jarrerak erakutsi ditu.

4. Gatazkak kudeatzeko eta arazoak konpontzeko estrategiak ezartzen ditu, estrategia horiek testuinguruaren arabera hautatuta eta eskura dauden ereduak analizatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Taldeko arazoen eta gatazken sorburu nagusiak aztertu eta identifikatu ditu.
- b) Gatazkak kudeatzeko teknika eta estrategia nagusiak deskribatu ditu.
- c) Konponbideak bilatzeko eta arazoak ebazteko estrategia egokienak identifikatu eta deskribatu
ditu.
- d) Erabakiak hartzeko prozesuaren faseak deskribatu ditu.
- e) Arazoak eta gatazkak konpondu ditu, kasu bakoitzerako prozedura egokiak aplikatuta.
- f) Arazo eta gatazken konponbide posibleei dagokienez, besteen iritzia errespetatu ditu.
- g) Bitartekotza- eta negoziazio-teknikak behar bezala aplikatu ditu.
- h) Erabakiak hartzeko prozesuan, pertsonak (erabiltzaileak) kontuan hartu ditu, haien adina,
egoera fisikoa eta mentala edozein izanik ere.
- i) Erabakiak hartzeko zereginaren eta prozesuaren autoebaluazioaren plangintza egin du.
- j) Erabakiak hartzeko unean komunikazio trukeak duen garrantzia balioetsi du.

5. Talde-prozesuak eta lanbide-funtzioak betetzeko duen gaitasun soziala ebaluatzen ditu, eta
hobetu daitezkeen alderdiak identifikatzen.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ebaluazio-adierazleak hautatu ditu.
- b) Gizarte-ikerketako teknikak eta teknika soziometrikoak aplikatu ditu.
- c) Profesionalaren abiapuntuko egoera pertsonalari eta sozialari buruzko autoebaluazioa egin
du.
- d) Informazioa biltzeko tresnak diseinatu ditu.
- e) Datuak ezarritako euskarrietan erregistratu ditu.
- f) Bildutako datuak interpretatu ditu.
- g) Hobetu beharra duten egoerak identifikatu ditu.
- h) Hobekuntzan bete beharreko jarraibideak ezarri ditu.
- i) Profesionalak landutako prozesuari buruzko bukaerako autoebaluazioa egin du.

Edukiak.

Harreman sozialak eta komunikazioa errazten dituzten estrategiak eta teknikak ezartzea:

–Trebetasun sozialak eta antzeko kontzeptuak.

- Komunikazioaren eta bizi-kalitatearen arteko loturaren azterketa esku-hartzeen eremuetan.
- Komunikazio-prozesua. Hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa.
- Testuinguruaren balorazio komunikatiboa: erraztaileak eta oztopoak komunikazioan.
- Jarrerak laguntza-harremanean duten garrantziaren balorazioa.
- Adimen emozionala. Hezkuntza emozionala. Emozioak eta sentimenduak.
- Defentsa mekanismoak.
- Komunikaziorako eta trebetasun sozialetarako programak eta teknikak.

Talde-lana dinamizatzea:

- Taldea. Motak eta ezaugarriak. Talde-garapena.
- Talde-egitura eta -prozesuak aztertzea.
- Taldeak analizatzeko teknikak.
- Komunikazioak taldearen garapenean duen garrantzia balioestea.
- Komunikazioa taldeetan. Komunikazio-estiloak. Hitzezko eta keinuzko komunikazioa. Beste hizkuntza batzuk: ikonikoa, ikus-entzunezkoa, informazio- eta komunikazio-teknikak. Oztopoak eta hesiak. Lankidetzeta eta lehia taldeetan.
- Talde-dinamikak. Talde-dinamikei aplikatutako oinarri psikosozilogikoak.
- Lantaldea. Lan kooperatiborako estrategiak. Zereginen antolamendua eta banaketa.
- Bakarkako lana eta talde-lana.
- Konfiantza taldean.
- Motibazioak talde-dinamikan duen eragina balioestea.
- Norberaren iritziekin bat ez datozen iritzia errespetatzearen garrantziaz jabetzea.

Bilerak zuzentzea:

- Bilera, talde-lanerako tresna gisa.
- Bilera-motak eta haien funtzioak.
- Bilera baten garapen-etapak.
- Bilerak moderatzeko teknikak.
- Bilera batean parte hartzen duten pertsonen ezaugarriak identifikatzea.
- Taldea baten portaeran eragina duten faktoreak aztertzea: boikoteatzaileak eta laguntzaileak.

Gatazkak kudeatzeko eta erabakiak hartzeko estrategiak ezartzea:

- Gatazkaren balorazioa talde-dinamiketan.
- Arazoak konpontzeko teknikak aztertzea.
- Erabakiak hartzeko prozesua.
- Taldea-gatazkak kudeatzea. Negoziazioa eta bitartekaritza.
- Taldea-gatazkak konpontzeko estrategiak aplikatzea.
- Arazoak eta gatazkak konpontzeko garaian errespetuak eta tolerantziak duten zeregina balioestea.

Gaitasun sozialaren eta talde-prozesuen ebaluazioa:

- Datu-bilketa. Teknikak.
- Gaitasun sozialaren ebaluazioa.

- Taldeen egituraren eta prozesuen ebaluazioa.
- Taldeekin lan egiteko gizarte-ikerketako teknikak aplikatzea.
- Taldeak aztertzekeo estrategiak eta tresnak analizatzea.
- Oinarrizko soziometria.
- Autoebaluazioa balioestea, gaitasun soziala hobetzeko estrategia gisa.

Orientabide didaktikoak.

Lanbide modulu honek eskaintzen duen prestakuntzaren bidez, ikasleek behar diren trebetasun sozialak eskuratuko dituzte, laguntzaren arloko lanbidea garatu eta beste pertsona batzuekiko lanbide harremanetan behar bezala aritu ahal izateko, euren portaera haien ezaugarrien eta testuinguruaren arabera egokituta.

Jarrerak eta prozedurak lantzeko modulua da erabat; profesionalaren esku-hartzearekin/gauza-tzearekin eta gaitasun sozialaren ebaluazioarekin lotutako funtzioa lantzen du, bai pertsonen arteko harremanei dagokienez, bai taldeen dinamizazioari edo parte hartzeari dagokienez, rol desberdinak hartuta. Halaber, gatazkak kudeatzeko funtzioari ere erantzun nahi dio.

Esku hartzeko/gauzatzeko eginkizunak azpieginkizun hauek biltzen ditu: zer gizarte-trebetasun dauzkaten edo ez dauzkaten jakiteko informazioa biltzea; jarduera antolatzea eta kontingentziak aurreikustea; hala badagokio, komunikatzeko laguntza teknikoak ezartzea, eta eskuraturiko trebetasun sozialak erabiltzea.

Ebaluazio-funtzioa, berriz, norberaren eginkizunak betetzean besteekin modu egokian aritzeko behar den gaitasun sozialaren bilakaeraren kontrolari eta jarraipenari dagokio.

Azkenik, gatazkak kudeatzeko eginkizuna gatazkak konpontzeko erabilgarri dauden mekanismo guztiak abian jartzeari dagokio, eta bitartekaritza eta negoziazioa eskatzen ditu.

Moduluko prestakuntzak heziketa-zikloaren ñ), p), q), r) eta s) helburu orokorrak eta tituluko ñ), p), q) eta r) gaitasunak lortzen laguntzen du.

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan moduluaren helburuak lortzeko aukera emanen duten lan-ildoak honako hauekin daude lotuak:

- Komunikazio-harreman eta pertsonen arteko harreman egokiak ezartzeko, taldeak dinamizatu eta gidatzeko, gatazkak eraginkortasunez kudeatzeko eta erabakiak hartzeko aukera ematen duten estrategiak hautatu eta ezartzea.
- Lana talde txikian eta talde handian.
- Jarrera profesionalei buruzko gogoeta.
- Gaitasun sozial profesionalaren autoebaluazioa.

Lanbide-modulua: Lehen sorospenak.

Kodea: 0020.

Baliokidetasuna ECTS kreditutan: 3.

Iraupena: 70 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1. Larrialdi batean eman beharreko laguntzaren lehen balorazioa egiten du, arriskuak, eskura dauden baliabideak eta behar den laguntza-mota deskribatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ingurua segurtatu du, prozedura egokiaren bidez.
- b) Istripua izan duten pertsonak manipulatzeko norbera babesteko teknikak identifikatu ditu.
- c) Larrialdietarako botika-kutxaren gutxieneko edukia eta bertako produktuak eta botikak erabiltzeko jarraibideak deskribatu ditu.
- d) Jarduteko lehentasunak ezarri ditu, biktimak asko direnean.
- e) Arnasbideak libre daudela egiaztatzeko prozedurak deskribatu ditu.
- f) Aireztatze-oxigenazioak modu egokian funtzionatzeko baldintzak identifikatu ditu.
- g) Odoljarioa dagoenean jarduteko prozedurak deskribatu eta gauzatu ditu.
- h) Konorte-maila zein den jakiteko prozedurak deskribatu ditu.
- i) Bizi-konstanteak neurtu ditu.
- j) Jarduteko sekuentzia identifikatu du ILCOREk (Berpizteari buruzko Nazioarteko Koordinazio Batzordea) ezarritako protokoloaren arabera.

2. Oinarritzko bizi-euskarriaren teknikak aplikatzen ditu, eta haiek deskribatu eta lortu beharreko helburuarekin lotzen.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Bihotz-biriketako bizkortzearen funtsak deskribatu ditu.
- b) Arnasbideak irekitzeko teknikak aplikatu ditu.
- c) Aireztapena eta zirkulazioa bizkortzeko teknikak aplikatu ditu.
- d) Kanpoko desfibrilazio erdiautomatikoa (DEA) egin du.
- e) Bizkortze ondoko neurriak aplikatu ditu.
- f) Lesio, patologia edo traumatismo ohikoenak zein diren azaldu du.
- g) Istripua izan duenaren lehen mailako eta bigarren mailako balorazioak deskribatu ditu.
- h) Lehen laguntzak aplikatu ditu, agente fisiko, kimiko eta biologikoek eragindako lesioen aurrean.
- i) Lehen laguntzak aplikatu ditu, larrialdietako patologia organikoen aurrean.
- j) Zein kasu edo egoeratan ez den esku hartu behar zehaztu du.

3. Biktimak immobilizatzeko eta mobilizatzeko prozedurak aplikatzen ditu, baliabide materialak eta teknikak aukeratuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Biktimari laguntzeko behar diren maniobrak egin ditu.
- b) Immobilizatzeko eta mobilizatzeko baliabide materialak identifikatu ditu.
- c) Zauritua jarrera egokian egon dadin hartu behar diren neurriak deskribatu ditu.

- d) Mobilizazio eta garraio ezegokien ondorioak azaldu ditu.
- e) Eriak eta zaurituak immobilizatzeko eta mobilizatzeko sistemak prestatu ditu, material konbentzional eta arruntak edo inguruan eskura dauden materialak erabiliz.
- f) Segurtasunerako eta norbera babesteko arauak eta protokoloak aplikatu ditu.

4. Laguntza psikologikoko eta autokontrolleko teknikak aplikatzen dizkie istripua izan duenari eta lagunei, eta komunikaziorako estrategia egokiak deskribatu eta aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Istripua izan duenarekin eta lagunekin komunikatzeko oinarritzko estrategiak deskribatu ditu.
- b) Istripua izan duenaren premia psikologikoak detektatu ditu.
- c) Istripua izan duenaren egoera emozionala hobetzeko laguntza psikologikoaren oinarritzko teknikak aplikatu ditu.
- d) Istripua izan duenari jarduketa osoan zehar konfiantza eta baikortasuna eragitearen garrantzia baloratu du.
- e) Istripu-, larrialdi- eta dolu-egoeretan antsietatea dakarten faktoreak identifikatu ditu.
- f) Dolu-, antsietate- eta larritasun- edo oldarkortasun-egoerak kontrolatzeko zein teknika erabili behar diren zehaztu du.
- g) Laguntza emateko ahaleginaren porrota psikologikoki gainditzeko zein teknika erabili behar diren zehaztu du.
- h) Estres-egoeretan nork bere burua kontrolatzearen garrantzia baloratu du.

Edukiak.

Larrialdian eman beharreko laguntzaren lehen balorazioa:

- Larrialdietako sistemak.
- Lehen sorospenen xedeak eta mugak.
- Lege-esparrua, erantzukizuna eta lanbide-etika.
- Istripu-motak eta horien ondorioak.
- Bizi-konpromisoaren zeinuak helduengan, umeengan eta bularreko haurrengan.
- Ingurua babesteko metodoak eta materialak.
- Norberak hartu beharreko babes-neurriak.
- Lehen sorospeneko botika-kutxa.
- Jarduteko lehentasunak, biktimak asko direnean. Triage sinpleko metodoak.
- Larrialdiaren zeinuak eta sintomak.
- Konorte-mailaren balorazioa.
- Bizi-konstanteak hartzea.
- Miaketarako protokoloak.
- Medikuntzako eta osasun-arloko terminologia lehen sorospenean.
- Informazioa emateko protokoloa.

Bizi-euskarriaren tekniken aplikazioa:

- Arnasbideen iragazkortasuna kontrolatzea.
- Bihotz-biriketako bizkortze oinarritzkoa.

- Kanpoko desfibrilazio erdiautomatikoa (DEA).
- Istripua izan duenaren balorazioa.
- Hasierako laguntza, agente fisikoek eragindako lesioetan (traumatismoak, beroa edo hotza, elektrizitatea eta erradiazioak).
- Hasierako laguntza, agente kimiko eta biologikoek eragindako lesioetan.
- Hasierako laguntza, larrialdietako patologia organikoetan.
- Norberaren eskumenak gainditu gabe aritzea.
- Immobilizatzeko eta mobilizatzeko prozeduren aplikazioa.
- Lekuz aldatzeko beharraren ebaluazioa.
- Segurtasuneko eta itxaroteko jarrerak.
- Immobilizazio-teknikak.
- Mobilizazio-teknikak.
- Ohatilak eta immobilizatzeko materialak egitea.
- Laguntza psikologikoko eta autokontrolako tekniken aplikazioa.
- Komunikaziorako oinarritzko estrategiak.
- Lehendabizi esku hartzen duenaren eginkizunaren balioespena.
- Pertsonen arteko komunikazioa errazten duten teknikak.
- Istripu edo larrialdietan antsietatea eragiten duten faktoreak.

Orientabide didaktikoak.

Modulu honek biltzen dituen gaitasunak beharrezkoak dira istripu, hondamendi edo eritasunen biktimei presako sorospena eta laguntza teknikoak eman ahal izateko. Istripua edo ongieza izan duen pertsonaren inguruan, gertaeren lekuan berean, laguntza espezializatua lortu arte, hasieratik egin beharreko mugimenduak eta hartu beharreko neurriak ikasten dira.

Segurtasunaren arloko beste prestakuntza tekniko batzuetan ez bezala, Lehen Laguntzetan lortzen diren ezagutzak eta gaitasunak, langilearen lanbide-ingurunean ez ezik, eguneroko bizitzako edozein egoeratan erabil daitezke. Beraz, eszenatoki jakinetarako gaitasunak eskuratu behar dira, eta ezus-teko egoeretan eta baliabide mugatuekin teknika zehatzak aplikatzeko gaitasuna eskuratu behar da.

Praktikotasun handiko modulua da, bizkor eta segurtasunez aplikatu behar diren protokolo zehatz batzuen ezagutza oinarritua. Horregatik, ordu gehienak balio anitzeko gelan egingen dira, eta han antzezten ahalko dira egoerak, eta aipatutako protokoloak aplikatzen ahalko dira. Trebetasun horiek lortzeko, beharrezkoak izanen dira manikiak, garraio-sistemak, immobilizatzekoak, bizkortzekoak eta simulazioak egitekoak.

Irakasteko metodologiari dagokionez, larrialdien ezaugarriak eta esku hartzean azaltzen diren eskari emozionalak kontuan izanik, prestakuntzak barnean hartu behar du benetako egoeretako eskakizun berberen esperientzia, simulatua nahiz birtuala. Horretarako, larrialdi desberdinen simulazioak erabiltzea proposatzen da. Ikasleek egoera horiei erantzun beharko diete, eta bideoan grabatzeko aukera izanen da. Haietan kasua aurkezten da, ikasleak larrialdi batean izanen lukeen ohiko informazioarekin, eta beragandik espero denari buruzko jarraibideak emanda; gero jardun praktikoa dator, eta azkenik, «biktimen», ikaskideen eta irakaslearen balorazioa. Saio horien bitartez jarduera-modu egokiak eta portaeren automatizazioa lortu nahi dira.

Edukiak izaera propioa duten lan-unitatetan antolatu beharko dira, bakoitzean honako hauek identifikatuta: xedeak, gaitasun terminalak, jarduteko irizpideak, jarduerak, ebaluazio sistemak, etab. Prozesu logiko baten arabera ordenatuko dira: lehenik, egoera ezagutzea, segurtatzea eta, gero, larrialdiko laguntza ematea. Ondoren, prebentzio- eta segurtasun-egoerak aztertuko dira, eta- azke-

nik, komunikazioari, laguntza psikologikoari eta autokontrolari buruzko edukiak eta teknikak; azken horiek zeharkako jarduketak izanik, lan-unitateetan proposatzen diren jarduera gehienetan aplikatzen ahalko dira.

Hala, edukien antolaketarako eskema hau proposatzen da:

–1. gai-multzoa:

- Larrialdietako sistemaren antolaketa. Lege-esparrua.
- Oinarrizko istripu-motak. Ondorioak.
- Egoeren hasierako balorazioa. Lehentasunak ezartzea.
- Bizi-arriskuaren zantzuak helduengan eta hurrengan. Terminologia espezifiko.
- Norbera babesteko eta inguruak segurtatzeko neurriak.
- Konorte-mailaren balorazioa, bizi-konstanteak. Istripua izan duenaren balorazio orokorra. Segurtasuneko jarrera.
- Lehen laguntzako teknika egokiak aukeratzea. Protokoloak.
- Bizi-euskarriaren tekniken aplikazioa. Bizkortzea, DEA. ILCOR protokoloa.
- Agente fisiko, kimiko eta biologikoak. Lehen laguntzako tekniken aplikazioa.
- Immobilizazioa eta garraioa.

–2. gai-multzoa:

- Ingurune seguruak sortzea. Segurtasuna eskoletan.
- Botika-kutxa. Kokapena, edukiak eta mantentze lana.
- 3. gai-multzoa:
- Pertsonen arteko komunikaziorako teknikak.
- Autokontrolerako teknikak.
- Antsietatea, larritasuna eta oldarkortasuna kontrolatzeko eta dolu-egoeretarako teknika espezifikoak.
- Istripua izan dutenei eta senitartekoei laguntza psikologikoa emateko komunikazio-estrategia egokiak.

Modulu honen xedeko lanbide-profila aintzat hartuta, unitate bakoitzean, informazio orokorra eskaintzeaz gain, teknika edo egoera bakoitzaren ezaugarria ere eskainiko dira, haurren arretara egokituta.

Garrantzitsua da une oro gogoan izatea eginen diren jarduerak prozesu baten parte direla, hainbat pertsona ari direlarik kate horretan, bakoitzak zeregin zehatz eta protokolizatu duela (larrialdietako zerbitzuak, anbulantziak, larrialdietako telefonoak...). Ildo horretan, proposaturiko jarduerak beren arteko lotura-elementuak eduki behar dituzte, jarduketa tekniko bakoitzak duen xede zehatzetik haratago.

Moduluaren ebaluazioa, eskuarki, sortutako egoera bakoitzean ebaluazio irizpideak zuzenean behatuz egiten da. Horregatik, arreta berezia jarriko zaio gertaleku horiek birstortzeari, eta proposatuko diren jarduerak bide emanen dute aldi berean behatzeko, ez bakarrik teknika aplikatzeko gaitasuna, baita erabakiak hartzeko prozesua ere. Erreferentea, normalean, alde aurretik ezarritako protokoloa izanen da.

Azkenik, jarduera bat egiten da, zeinak, modu global eta bateratzailean, bide emanen baitu jarre-rak eta jarduketak (ebaluazio irizpideetan deskribatu direnak) behatzeko, moduluko lan unitateetan eskuratutako gaitasunak aplikatu behar diren egoera konplexu baten aurrean.

Lanbide-modulua: komunikazio-bitartekaritzako moduluarteko proiektua.

Kodea: 1119.

Baliokidetasuna ECTS kreditutan: 5.

Iraupena: 70 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1. Produkzio-sektorearen beharrak identifikatu ditu, eta behar horiek lotzen ditu asetzen ahal dituzten ereduzko proiektuekin.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Sektorako enpresak antolaketa-ezaugarrien arabera eta eskaintzen duten produktuaren edo zerbitzuaren arabera sailkatu ditu.
- b) Ereduzko enpresen ezaugarriak azaldu ditu, antolamenduaren egitura eta departamentu bakoitzaren eginkizunak adierazita.
- c) Enpresei gehien eskatzen zaizkien beharrak identifikatu ditu.
- d) Sektoran aurreikusten ahal diren negozio-aukerak balioetsi ditu.
- e) Aurreikusten diren eskariei erantzuteko behar den proiektu-mota identifikatu du.
- f) Proiektuak izan behar dituen berariazko ezaugarriak zehaztu ditu.
- g) Zerga- eta lan-alorretako eta arriskuen prebentzioko betebeharrak zehaztu ditu, bai eta horiek aplikatzeko baldintzak ere.
- h) Produkzioarako edo zerbitzuarako proposatzen diren teknologia berriak sartzeko har litezkeen laguntzak edo dirulaguntzak identifikatu ditu.
- i) Proiektua lantzeko jarraitu beharreko lan-gidoia prestatu du.

2. Tituluan ageri diren gaitasunekin zerikusia duten proiektuak diseinatzen ditu, eta hura osatzen duten faseak jasotzen eta garatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Proiektuan landuko diren alderdiei buruzko informazioa bildu du.
- b) Proiektuaren bideragarritasun teknikoari buruzko azterlana egin du.
- c) Proiektua osatzen duten faseak edo zatiak eta haien edukia identifikatu ditu.
- d) Lortu nahi diren helburuak ezarri ditu eta haien irismena identifikatu.
- e) Proiektua aitzinera eramateko behar diren baliabide materialak eta giza baliabideak aurreikusi ditu.
- f) Dagokion aurrekontu ekonomikoa egin du.
- g) Proiektua abian jartzeko finantzaketa-beharrak identifikatu ditu.
- h) Diseinatzeko behar den dokumentazioa definitu eta landu du.
- i) Proiektuaren kalitatea ziurtatzeko kontrolatu beharreko alderdiak identifikatu ditu.

3. Proiektuaren gauzatzea planifikatzen du, eta esku-hartze plana eta dagokion dokumentazioa zehazten du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jardueren sekuentziazioa zehaztu du, jarduerak ezartzeko beharren arabera ordenatuta.
- b) Jarduera bakoitzerako behar diren baliabideak eta logistika zehaztu ditu.
- c) Jarduerak gauzatzeko baimenen beharrak identifikatu ditu.

- d) Jarduerak gauzatzeko edo jarduteko prozedurak finkatu ditu.
 - e) Gauzatzeak dituen arriskuak identifikatu ditu, eta arriskuen prebentziorako plana eta behar diren bitartekoak eta ekipamendua definitu ditu.
 - f) Baliabide materialen eta giza baliabideen esleipena eta gauzatzeko epeak planifikatu ditu.
 - g) Ezarpenaren baldintzei erantzuten dien balorazio ekonomikoa egin du.
 - h) Gauzatzeko behar den dokumentazioa zehaztu eta prestatu du.
4. Proiektua gauzatzean, jarraipena eta kontrola egiteko prozedurak definitu ditu, eta erabilitako aldagaiak eta tresnak zergatik hautatu dituen justifikatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jarduerak edo esku-hartzeak ebaluatzeko prozedura definitu du.
- b) Ebaluazioa egiteko kalitate-adierazleak definitu ditu.
- c) Jarduerak egin bitartean gertatzen ahal diren gorabeherak ebaluatu, konpondu eta erregistratzeko prozedura definitu du.
- d) Baliabideetan eta jardueretan izaten ahal diren aldaketak kudeatzeko prozedura definitu du, horiek erregistratzeko sistema barne.
- e) Jarduerak eta proiektua ebaluatzeko behar den dokumentazioa definitu eta prestatu du.
- f) Erabiltzaile edo bezeroek ebaluazioan parte hartzeko prozedura ezarri du, eta berariazko dokumentuak prestatu ditu.
- g) Proiektuaren baldintza-agiria, halakorik dagoenean, beteko dela bermatzeko sistema bat ezarri du.

Orientabide didaktikoak.

Lanbide-modulu honek osatu egiten du tituluko gainerako lanbide-moduluetan ezarritako prestakuntza, testuingurua aztertzeke, proiektua diseinatzeko eta gauzatzea antolatzeke funtzioetan.

Testuingurua aztertzeke eginkizunak azpieginkizun hauek biltzen ditu: informazioa biltzea, beharrak identifikatu eta lehenestea, eta balizko esku-hartzea errazten edo zailtzen duten alderdiak identifikatzea.

Esku-hartzea diseinatzeko eginkizunaren helburua da esku-hartzearen ildo orokorrak ezartzea, hautemaniko premiei erantzuteke, esku-hartzea alderdi guztietan definitzeko. Azpieginkizun hauek biltzen ditu: esku-hartzea definitu edo egokitzea, ekintzak lehenetsi eta sekuentziatzea, esku-hartzea planifikatzea, baliabideak zehaztea, ebaluazioa planifikatzea, eta dokumentazioa eta bezeroari arreta emateke plana diseinatzea.

Esku-hartzea antolatzeke eginkizunak azpieginkizun hauek biltzen ditu: eskaerak eta premiak hautematea, esku-hartzea programatu, kudeatu, koordinatu eta gainbegiratzea, eta txostenak idaztea.

Eginkizun horiei loturiko lanbide-jarduerak gauzatzen dira pertsonendako zerbitzuen eta komunitatearendako zerbitzuen sektoreetan.

Moduluko prestakuntzak lotura du zikloko helburu orokor guztiekin eta gaitasun profesional, pertsonal eta sozialekin.

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan moduluaren helburuak lortzeko aukera emanen duten lan-ildoak honako hauekin daude lotuak:

- Lanak taldean egitea.
- Egindako lanaren ardura eta autoebaluazioa.
- Autonomia eta ekimen pertsonala.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera.

Lanbide-modulua: Enplegarritasunerako ibilbide pertsonala II.

Kodea: 1710.

Baliokidetasuna ECTS kreditutan: 5.

Iraupena: 70 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1. Enplegurako hautaketa-prozesuetan estrategiak planifikatzen eta abian jartzen ditu, laneratzeko aukerak hobetzeko.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Langileak hautatzeko prozesuan gaur egun sektorean erabiltzen diren teknikak zehaztu ditu.
- b) Enplegua bilatzeko estrategiak garatu ditu, gaur egun gehien erabiltzen diren teknikekin loturik eta sektorearen testuingurua kontuan harturik.
- c) Sektore pribatua eta publikoa hautaketa-prozesuak gainditzeko aukera ematen duten jarrerak eta gaitasunak baloratu ditu.
- d) Marka pertsonal bat eraiki du, eta, horretarako, egungo merkatuaren beharrak, eta bere gaitasun, trebetasun eta balio-ekarpenak identifikatu ditu.

2. Enplegurako konpetentzia pertsonal, sozial eta emozionalekin lotutako estrategiak aplikatzen ditu, enplegarritasuna hobetzeko.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gaitasun pertsonalek eta sozialek erreferentziazko sektoreko enplegarritasunean duten garrantzia baloratu du.
- b) Taldearen helburuak ezartzen eta erabakiak hartzen aktiboki parte hartu du; taldearen ekintzen eta erabakien erantzukizuna bere gain hartu du; aktiboki parte hartu du partekaturiko helburuak lortzen, beste pertsona batzuekin lankidetzan arituz eta lidergoa partekaturik.
- c) Komunikazio eraginkor eta afektibo baterako egokiak diren ahozko zein idatzizko aurkezpen- eta komunikazio-teknikak eta -baliabideak ikaskuntza-prozesuan bertan txertatu ditu, eta gai da egoera eta inguruabar bakoitzera egokitzeko haiei bakoitzak eskaintzen dituen aukerak eta zailtasunak baloraturik.
- d) Banakako nahiz taldeko helburuak lortzeko erabilgarri dagoen denbora kudeatzeko teknikak eta estrategiak aplikatu ditu, eta behar diren jarduerak programatu ditu.
- e) Emozioak bideratzeko estrategiak aplikatu ditu, eta jarrera malgua erakutsi du beste pertsona batzuekiko harremanetan.
- f) Antolamendu efizienteko irizpideei jarraituz jarduerak programatzeko estrategiak garatu ditu, eta izan litezkeen zailtasunak aurreikusi ditu.
- g) Gatazka eta egoera berrien aurrean era malgu eta positiboan erreakzionatu da, aukerak aprobetxatuz eta zailtasunak kudeatuz, eta adimen emozionalarekin lotutako estrategiak baliatuz.

3. Eredu jasangarri bat lortzeko bidean, produkzio sektorea modernizatzea sustatzen duten berrikuntza eta ikerketa prozesu aplikatuak garatzeko beharrezko diren ekintzailatza-trebetasunak praktikan jartzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Berrikuntzaren kontzeptua eta horrek gizabanakoen ongizatea hobetuko duen gizarte jasangarriago bat eraikitzearekin duen lotura identifikatu ditu.
- b) Ekintzailatzarako metodologiak aztertuz, baita horiek berrikuntza bultzatzeko eta enplegua eta gizarte-ongizatea sortzeko duten garrantzia ere.

- c) Ekintzailletza eta barne-ekintzailletza sustatzeko behar diren ekintzailletza-trebetasunak aplikatu ditu.
- d) Elkarlana jarri du martxan, berrikuntza-prozesuak garatzeko baldintza gisa.
- e) Ekoizpen-sektorea modernizatzea sustatzen duten berrikuntza- eta ikerketa-prozesu aplikatuak hobetzeko behar den gaitasun digitala garatu du.
- f) Jasangarritasunarekin eta ingurumenarekin loturiko politiken eta ekimenen helburuak txertatu ditu eredu ekonomiko eta sozial jasangarria garatzera bideraturiko enpresa-estrategian.

4. Ingurune sozioproduktiboa aztertzeke estrategietatik abiatuta, aukera berriak sortzen dituzten ekintzailletza-ideiak identifikatzen, definitzen eta baliozkotzen ditu, ekintzailletzarako metodologia arinak erabiliz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Proiektu ekintzailearen hartzaile potentzialen arazoak identifikatu ditu, aukera bihurtuko diren soluzioak proposatu aurreko urrats gisa.
- b) Sormen-prozesua erabili du balio ekonomiko, sozial eta/edo kulturala emanen duen ideia ekintzaile bat lortzeko.
- c) Ideia ekintzailletik eratorririko negozio- eta/edo kudeaketa-eredu bat diseinatu du.
- d) Ideia ekintzaileari balio etiko eta sozialak gehitu dizkio, balantze sozialaren ereduak aztertutik.
- e) Ekonomia zirkularrak eta ondasun komunaren ekonomiak ekitatean, justizia sozialean eta jasangarritasunean oinarritutako eredu ekonomiko eta sozial baten garapenari egiten dioten ekarpena aztertu du.
- f) Ingurune orokorraren eta espezifikorearen osagai nagusiak aztertu ditu, baita haiek ideia ekintzailean duten eragina ere.
- g) Arazo-elkarrizketak egin ditu ideia ekintzailearen hartzaileen profila eta arazoa baliozkotzeko.
- h) Prototipoak sortuz baliozkotu du soluzioa, eta arazoa eta soluzioa bat etortzea bilatu du.
- i) Marketin-estrategiak erabiltzearekin esperimentatu du, komunikazio- eta salmenta-tekniketan trebetasunak garatzeko.

5. Ingurunearekin lankidetzan, berrikuntza sozial eta/edo teknologiko aplikatutako proiektu ekintzaile bat garatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ekintzailletzaren eta gizarte-berrikuntzaren oinarritzko kontzeptuak aztertu ditu.
- b) Erakundeetan dagoen lidergo etiko eta jasangarriaren beharrari buruz hausnartu du.
- c) Teknologia produkzio-eredua aldatzeko oinarri izateari buruzko gogoeta egin du.
- d) Diseinu-pentsamenduaren berezko estrategiak abiarazi ditu gizarte- eta ingurumen-beharrak hautemateko.
- e) Negozio-eredu ekosozialen eta/edo oinarri teknologikodunen diseinuaren elementuak aztertu ditu.
- f) Garapen jasangarriko helburuak negozio-eredu ekosozial eta/edo oinarri teknologikodunak diseinatzearekin lerrokatu ditu.
- g) Proiektu ekintzailearen bideragarritasuna aztertzeke behar diren estrategiak aplikatu ditu.
- h) Sozialki arduratsuak diren finantza-aukerak ikertu ditu.
- i) Proiektuan inplikaturiko eragileak definitu ditu, baita proiektuan duten parte-hartzea ere.

3. ERANSKINA

BALIOZKOTZEAK ETA SALBUESPENAK

Lanbide-moduluen arteko baliozkotzeak, zehazki, 1/1990 Lege Organikoaren (LOGSE) babesean ezarritakoen eta, 2/2006 Lege Organikoaren babesean, Komunikazio Bitartekaritzako goi-mailako teknikari tituluaren ezarritakoen artekoak.

1/1990 LEGEAN (LOGSE) EZARRITAKO HEZIKETA-ZIKLOETAKO LANBIDE-MODULUAK	HEZIKETA-ZIKLOKO LANBIDE MODULUAK (2/2006 LOE): KOMUNIKAZIO BITARTEKOTZA
Gorren eta gor-itsuen psikosoziologia. Gor-itsuendako gidaritza-interpretazioa.	1113. Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea gor-itsuekin. 1114. Gor-itsuekiko komunikazio-bitartekaritzaren testuingurua.
Interpretatzeko teknikak Espainiako zeinu-hizkuntzari aplikatzea.	1118. Komunikazioan esku hartzeko teknikak.
Espainiako zeinu-hizkuntza. Zeinu-hizkuntzari aplikaturiko gorputz-adierazpena.	1115. Zeinu-hizkuntza. 1116. Zeinu-hizkuntzaren erabilera-esparrua.
Komunikazioko oinarrizko jarraibideak eta sistema alternatiboak.	0343. Komunikazio-sistema handigarriak eta alternatiboak.

4. ERANSKINA

LANBIDE-MODULUEN ETA GAITASUN-UNITATEEN ARTEKO KORRESPONDENTZIA

A) Gaitasun-unitateek lanbide-moduluekin duten korrespondentzia, horiek baliozkotzeko.

EGIAZTATUTAKO GAITASUN-UNITATEAK	BALIOZKOTU DAITEZKEEN LANBIDE-MODULUAK
UC0252_3: Gizarte-integrazioko esku-hartzeak programatzea, antolatzea eta ebaluatzea.	1111. Komunikazioan, hizkuntzan eta hizketan zailtasunak dituzten pertsonak gizartean integratzeko metodologia.
UC1026_3: Genero-ikuspegia txertatzea gizarte-arloko esku-hartzeen proiektuetan.	1112. Sentsibilizazio soziala eta parte-hartzea.
UC1447_3: Norbanakoak, taldeak eta erakundeak gorren komunitateari buruz aholkatzea eta sentsibilizatzea.	
UC1023_3: Elkarleen ehuna sortzeko eta garatzeko lanetan esku hartzea, haiek sostengatzea eta laguntzea.	
UC1439_3: Gor-itsuentzako hezkuntza- eta prestakuntza-programak garatzen parte hartzea.	1113. Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea gor-itsuekin.
UC 1441_3: Gor-itsuaren interakzioa erraztea, oinarritzko zereginak egin ditzan.	1114. Gor-itsuekiko komunikazio-bitartekaritzaren testuingurua.
UC1438_3: Gor-itsuen komunikazioari laguntzeko sistema eta baliabide espezifikoak eta gidatzaile ikusmendunaren teknikak erabiltzea.	
UC1440_3: Gor-itsuen bakartze-egoerak arintzeko esku-hartzeak egitea.	
UC1437_3: Espainiako zeinu-hizkuntza erabiltzea bere eginkizunak betetzeko.	1115. Zeinu-hizkuntza.
	1116. Zeinu-hizkuntzaren erabilera-esparruak.
UC0254_3: Komunikazio-sistema alternatiboak ezartzea, egokitzea eta aplikatzea.	0343. Komunikazio-sistema handigarriak eta alternatiboak.

9. artikuluko 1. puntuaren ondorioetarako, gelaxka berean egiaztaturiko bi gaitasun-unitate edo gehiago agertzen badira, ulertu behar da horiek guztiak egiaztaturik eduki beharko direla baliozkotzeko.

B) Lanbide-moduluek gaitasun-unitateekin duten korrespondentzia, horiek egiaztatzeko.

GAINDITUTAKO LANBIDE-MODULUAK	EGIAZTATZEN AHAL DIREN GAITASUN-UNITATEAK
1111. Komunikazioan, hizkuntzan eta hizketan zailtasunak dituzten pertsonak gizartean integratzeko metodologia.	UC0252_3: Gizarte-integrazioko esku-hartzeak programatzea, antolatzea eta ebaluatzea. UC1026_3: Genero-ikuspegia txertatzea gizarte-arloko esku-hartzeen proiektuetan.
1112. Sentsibilizazio soziala eta parte-hartzea.	UC1447_3: Norbanakoak, taldeak eta erakundeak gorren komunitateari buruz aholkatzea eta sentsibilizatzea. UC1023_3: Elkarleen ehuna sortzeko eta garatzeko lanetan esku hartzea, haiek sostengatzea eta laguntzea.
1113. Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea gor-itsuekin.	UC1439_3: Gor-itsuentzako hezkuntza- eta prestakuntza-programak garatzen parte hartzea. UC 1441_3 Gor-itsuaren interakzioa erraztea, oinarritzko zereginak egin ditzan.
1114. Gor-itsuekiko komunikazio-bitartekaritzaren testuingurua.	UC1440_3: Gor-itsuen bakartze-egoerak arintzeko esku-hartzeak egitea.
1115. Zeinu-hizkuntza. 1116. Zeinu-hizkuntzaren erabilera-esparrua.	UC1437_3: Espainiako zeinu-hizkuntza erabiltzea bere eginkizunak betetzeko.
0343. Komunikazio-sistema handigarriak eta alternatiboak.	UC0254_3: Komunikazio-sistema alternatiboak ezartzea, egokitzea eta aplikatzea.

9. artikuluko 2. puntuaren ondorioetarako, gelaxka berean gaindituriko bi lanbide-modulu edo gehiago agertzen badira, ulertu behar da horiek guztiak gainditurik eduki beharko direla egiaztatzeko.

5. ERANSKINA

IRAKASLEAK

A) *Esleitutako irakaslan.*

LANBIDE-MODULUA	IRAKASLEEN ESPEZIALITATEA	KIDEGOA
1111. Komunikazioan, hizkuntzan eta hizketan zailtasunak dituzten pertsonak gizartean integratzeko metodologia.	Esku-hartze Soziokomunitarioa.	Bigarren Hezkuntzako katedradunak. Bigarren Hezkuntzako irakasleak.
1112. Sentsibilizazio soziala eta parte-hartzea.	Esku-hartze Soziokomunitarioa.	Bigarren Hezkuntzako katedradunak. Bigarren Hezkuntzako irakasleak.
1113. Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea gor-itsuekin.	Komunitatearentzako Zerbitzuak.	Bigarren Hezkuntzako katedradunak. Bigarren Hezkuntzako irakasleak. Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoa (iraungi beharrekoa).
1114. Gor-itsuekiko komunikazio-bitartekaritzaren testuingurua.	Komunitatearentzako Zerbitzuak.	Bigarren Hezkuntzako katedradunak. Bigarren Hezkuntzako irakasleak. Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoa (iraungi beharrekoa).
1115. Zeinu-hizkuntza.	Uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuaren V. tituluaren IV. kapituluaren ezarrikoaren arabera.	
1116. Zeinu-hizkuntzaren erabilera-esparruak.	Uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuaren V. tituluaren IV. kapituluaren ezarrikoaren arabera.	
1117. Komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonen esku hartzea.	Komunitatearentzako Zerbitzuak.	Bigarren Hezkuntzako katedradunak. Bigarren Hezkuntzako irakasleak. Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoa (iraungi beharrekoa).
1118. Komunikazioan esku hartzeko teknikak.	Uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuaren V. tituluaren IV. kapituluaren ezarrikoaren arabera.	
0343. Komunikazio-sistema handigarriak eta alternatiboak.	Komunitatearentzako Zerbitzuak.	Bigarren Hezkuntzako katedradunak. Bigarren Hezkuntzako irakasleak. Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoa (iraungi beharrekoa).
0017. Trebetasun sozialak.	Esku-hartze Soziokomunitarioa.	Bigarren Hezkuntzako katedradunak. Bigarren Hezkuntzako irakasleak.
0020. Lehen sorospenak.	Osasun eta Laguntza Prozedurak.	Bigarren Hezkuntzako katedradunak.
	Diagnostiko Kliniko eta Ortoprotesikoko Prozedurak.	Bigarren Hezkuntzako irakasleak. Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoa (iraungi beharrekoa).
1119. Komunikazio-bitartekaritzako moduluar-teko proiektua.	Komunitatearentzako Zerbitzuak.	Bigarren Hezkuntzako katedradunak. Bigarren Hezkuntzako irakasleak. Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoa (iraungi beharrekoa).
	Esku-hartze Soziokomunitarioa.	Bigarren Hezkuntzako katedradunak. Bigarren Hezkuntzako irakasleak.
1709. Enplegararritasunerako ibilbide pertsonala I.	Lanerako Prestakuntza eta Orientabideak.	Bigarren Hezkuntzako katedradunak. Bigarren Hezkuntzako irakasleak.
1710. Enplegararritasunerako ibilbide pertsonala II	Lanerako Prestakuntza eta Orientabideak.	Bigarren Hezkuntzako katedradunak. Bigarren Hezkuntzako irakasleak.
1708. Produkzio-sistemari aplikatutako jasangarritasuna.	Komunitatearentzako Zerbitzuak.	Bigarren Hezkuntzako katedradunak. Bigarren Hezkuntzako irakasleak. Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoa (iraungi beharrekoa).
	Esku-hartze soziokomunitarioa Lanerako Prestakuntza eta Orientabideak.	Bigarren Hezkuntzako katedradunak. Bigarren Hezkuntzako irakasleak.
1665. Produkzio-sektoreei aplikatutako digitalizazioa (GM).	Komunitatearentzako Zerbitzuak.	Bigarren Hezkuntzako katedradunak. Bigarren Hezkuntzako irakasleak. Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoa (iraungi beharrekoa).
	Esku-hartze Soziokomunitarioa. Lanerako Prestakuntza eta Orientabideak.	Bigarren Hezkuntzako katedradunak. Bigarren Hezkuntzako irakasleak.

LANBIDE-MODULUA	IRAKASLEEN ESPEZIALITATEA	KIDEGOA
0179. Laneko ingelesa (GM).	Ingelesa.	Bigarren Hezkuntzako katedradunak. Bigarren Hezkuntzako irakasleak.

6. ERANSKINA

EREMUAK

PRESTAKUNTZA-ESPAZIOA
Erabilera anitzeko gela.
Komunikazio-bitartekaritzako tailerra.